

**III. GAZTE PLANA
2020REN
MARKO OROKORRA**

***GAZTERIAREN ARLOKO
EUSKAL ESTRATEGIA***

I. III. GAZTE PLANAREN PROFILA

1. GAZTERIAREN ARLOKO POLITIKA INTEGRALAREN EZAUGARRIAK
 - 1.1. Aurrekariak.
 - 1.2. Euskadiko gazteen egoera.
 - 1.3. Gazte Politika Integrala garatzen jarraitzearen beharra.
 - 1.4. Gazteriaren arloko europar politiken eta gure ingurukoen arteko uztardura

2. EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020REN FUNTSA
 - 2.1. III. Gazte Planaren abiapuntua eta ezaugarriak.
 - 2.2. Gazte kontzeptua.
 - 2.3. Xedea.
 - 2.4. Ikuspegia.
 - 2.5. Printzipio Gidariak.

3. III. GAZTE PLANA 2020REN EGITURA
 - 3.1. Antolamendu orokorra: marko orokorra eta erakundeen planak.
 - 3.2. Eskuhartze-ardatzak eta -areak.
 - 3.3. Adierazle eta Xedeen Multzoa
 - 3.4. Ebaluatzeko metodologia.
 - 3.5. Plana koordinatu, bultzatu eta garatzeko mekanismoak

II. III. GAZTE PLANA 2020REN EGINKIZUNAK ETA HELBURUAK

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA
 1. Area. Hezkuntza.
 2. Area. Enplegua.
 3. Area. Etxebizitza.

2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA
 4. Area. Osasuna.
 5. Area. Gizarte Ekintza.
 6. Area. Kultura.
 7. Area. Aisialdia.
 8. Area. Kontsumoa.
 9. Area. Mugikortasun Iraunkorra.

III. III. GAZTE PLANA 2020REN ADIERAZLE ETA XEDEEN MULTZOA

ERANSKINA: Erabilitako agiri-iturriak.

I.- III. GAZTE PLANA 2020REN PROFILA

1. GAZTERIAREN ARLOKO POLITIKA INTEGRALAREN EZAUGARRIAK

1.1. AURREKARIAK

- II. Gazte Plana (2002-2005)

Gazteei egokiro gizarteratzeko beharrezkoak ziren bideak eskaintzeko asmoz abiarazi zen. Aurreko plana bezala (1999-2001), sektore arteko eta erakunde arteko plana zen, parte-hartzean oinarritua eta gazteriaren arloan benetako politika integrala bultzatzeko xedez.

- Aldi Baterako Neurriak (2006-...)

Eusko Jaurlaritzak aldi baterako neurri batzuk onartu zituen 2006an (harik eta Gazteen Euskal Legea onartu artekoak), gazte-politika integrala bultzatzen jarraitzeko.

- II. Gazte Planaren amaierako ebaluazioa

Emaitzen ebaluazioa egin eta gero, Eraginaren ebaluazioaren helburua EAeko gazteen egoerak izan dituen aldakuntzak balioestea da. Horretarako, Planean ezarritako arloekin, helburuekin eta esku-hartze ildoekin erlazionatutako hainbat adierazle aztertu eta gero.

II. GAZTE PLANAREN ERAGINAREN EBALUAZIOAREN GOMENDIOAK:

- *Egoera berriei egokitutako diagnostikoa egin behar da, plan berriaren lehentasunak zehazteko.*

Plan berriak bere baitan hartu beharko lituzkeen edukiei edo neurriei buruzko gogoetak, eta ezarri beharko lituzkeen helburuei buruzko gogoetak egin aurretik, ezinbestekoa da gazteek dituzten arazoei buruzko hausnarketa eguneratua egitea — eta administrazio publikoek esku-hartzeko dituzten aukerei buruzkoa—, krisi ekonomiko larria, langabeziaren igoera eta baldintza sozioekonomiko orokorren gainbehera kontuan hartuta.

- *Jarduketa-arlo bakoitzaren helburuak zehaztu eta adierazleak erabakitzea, burutu eta gero, eragina edo efizientzia ebaluatuko badira.*

Hari beretik jarraituz, gomendagarria litzateke planean ezarritako helburu orok izatea, formulatzen den unetik beretik, haren inpaktua baloratzeko gerora erabiliko diren adierazleen definizioa, erabiliko den datu-iturria eta, baita ere, lortu nahi den helburuaren zenbateko zehatza.

- *Jarraipenerako eta azterketarako sistemak hobetzea.*

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Egun dauden jarraipen- eta emaitza-adierazleen kalitatea hobetzean datza, eta, gauzatutako ekintza-motaren arabera, adierazle-sorta komuna sor dadin sustatzea; izan ere, horrela, gazteen bizi-baldintzen zeharretarako azterketa egin ahalko da, baina, batez ere, gazteria-arloko politiken emaitzen eta inpaktuaren zeharretarako azterketa.

Horrenbestez, beste Gazte Plan bat egiteko ezinbestekoa da inpaktu-adierazleen taula aurretiaz zehaztea —behar bezala adostuta, lehenetasunen arabera zerrendatuta eta kuantifikatuta—, eta etenik izango ez duen datuen elikatze-sistema zehaztea ere bai, horren bidez datuak etengabe aztertzeko eta jakitera emateko.

- *Helburuen eta jardun-esparruak garrantziaren eta lehenetasunen arabera benetan ezartzea.*

Horretarako, behar bezala erabakitako berariazko helburu-sorta bat lortzeari erreparatu beharko zaio bereziki. Hori hala izanik, baliteke planak ez hartzea bere baitan gazteen bizi-kalitateari eragiten dioten alderdi guztiak —eta hala gertatzen da; izan ere, eguneroko bizitzako arlo asko geratzen dira planaren eremutik kanpo—, baizik eta politika publikoak ezarriz aldaketa sakonena behar duten eta lehenetasunezkoak diren alderdiak baino ez.

Garrantziaren arabera zerrendatuz gero, argiago ezarriko lirateke, zalantzarik gabe, helburuak, ekintzak, horien kuantifikazioa, jarraipena eta emaitzen hedapena. Horrez gain, EAEko gazteek dituzten oinarrizko arazoekiko sentsibilizazioa handiagoa izango litzateke, eta ahalegin handiagoa egin ahalko litzateke lehenetasunezko arazotzat hartutakoetan.

- *Politika publiko orokorrak aintzat hartzea (osasunari, enpleguari, etxebizitzari, hezkuntzari, gizarte-zerbitzuei, kulturari, aisiari buruzkoak).*

Gazteen premiak zein adin-tarte guztietakoen premiak kontuan hartuko dituztenak. Halaber, eta agerikoa denez, gazteentzako propio egindako politika sektorialak ezinbestekoak dira, baina, azken batean, badirudi komeni dela politika orokorrei nagusitasun handiagoa ematea, eta ez hainbeste propio gazteentzat ezarritako neurriei.

1.2. EUSKADIKO GAZTEEN EGOERA

Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteen egoerari buruzko diagnostiko-txosten bat egin zuen 2009ko irailaren eta abenduaren artean, oinarrizko erreferentzia-elementua izan dadin EAEko III. Gazte Plana egiteko; arian-arian eguneratuz joan da.

Euskadiko gazteen errealitatea nolakoa den jakiteko, EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen egoerari buruzko azterketa deskribatzailea biltzen da txostenean,

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

eta honako gaikako arlo hauei erreparatu zaie: ingurune demografikoa, lana, etxebizitza, hezkuntza, euskara, osasuna, eta gazteen iritziak, balioak eta portaerak.

Hona hemen diagnostiko horren ondorio nagusiak:

EAE-KO GAZTEAK: EZAUGARRI OROKORRAK

- Gazteen kopurua gutxitu egin da, eta haien demografia-portzentajea biztanleria osoarekiko ere bai.
- Atzerritarren indizeak gora egin du.

LANERATZEA ETA EGOERA EKONOMIKOA

- Azken hamarkadan biztanleria gazte osoaren jarduera-tasa murriztu egin da eta emantzipazio-tasak bere horretan jarraitu du.
- Langabezia-tasa bikoiztu egin da urtebetean, eta biztanleria osoaren langabezia-tasa baino askoz ere handiagoa da oraindik ere.
- Lan-ezgonkortasuna eta kontratuen behin-behinekotasuna oso handiak dira oraindik ere.
- Familia da oraindik ere diru-iturri nagusia.
- Eskura diru gutxi izatea eta pobrezia-maila handiak edukitzea familiaren laguntzaren bidez konpentsatzen da askotan.

ETXEBIZITZA ESKURATZEA

- Emantzipazio-tasek gora egin badute ere, gehienek jatorrizko familiarekin bizitzen jarraitzen dute.
- Etxebizitzaren prezioa da oraindik ere emantzipatzeko zailtasun nagusia.
- Behera egin du Etxebiden eskaera egin duten gazteen kopuruak, eta bere horretan jarraitzen du etxebizitza erostea alokairuan hartzea baino nahiago duten gazteen kopuruak.

HEZKUNTZA ETA LANERAKO PRESTAKUNTZA

- Hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak hobera egin du, bai eta Lanbide Heziketari buruzko balorazioak ere.
- Eskolatzeko-tasek eta prestakuntza-mailak bere horretan jarraitzen dute.
- Laneratze-maila hobea da Lanbide Heziketako, unibertsitateko eta Lanerako Prestakuntzako ikasketak amaitu ondoren.

EUSKARAREN JAKITE MAILA ETA ERABILERA

- Gazte elebidunen kopuruak gora egin du azken urteotan.
- Euskara dakiten pertsonen erdiek batez ere gaztelaniaz hitz egiten dute lagunekin eta familiarekin.

OSASUNA ETA OSASUN-ARRISKUAK

- Euskadiko gazteek osasun ona dutela eta forma fisiko onean daudela irizten diote.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Heriotza-tasa erdira murriztu da, eta zirkulazio-istripuek eragiten dute oraindik ere heriotza gehien
- Haurdunaldiaren borondatezko etenduren kopuruak gora egiten jarraitzen du.
- GIBen bidezko infekzioen detekzio-kopuruak gora egiten jarraitzen du, baina gutxitu egin da hiesaz kutsatutakoen kopurua.
- Atzeratu egin da zertxobait substantzia psikoaktiboak kontsumitzen hasteko adina
- Tabakoaren kontsumoak gora egin du gazte helduenen artean.
- Alkoholaren gehiegizko kontsumoaren tasek eta askotan mozkortzen diren gazteen ehunekoak behera egin dute.
- Behera egin du legez kanpoko substantzia guztien kontsumoak, cannabisarenak salbu, bai eta drogen mendekotasunagatik tratamendua jasotzen duten gazteen kopuruak ere.
- Osasun mentaleko arazoak dituzten gazteen ehuneko txikiagoa da oraindik ere biztanleria osoarena baino, eta emakumeak dira kaltetuenak.

BALIOAK, JARRERAK ETA PORTAERAK

- Gehienek uste dute gazteen egoera hala-moduzkoa dela, nahiz eta ona dela uste dutenen kopuruak gora egin.
- Politikarekiko interesa duen gazteen kopuruak behera egin du, bai eta EAEko demokraziaren funtzionamenduari gustura daudenen kopuruak ere.
- Gora egin du kolektibo batzuekiko intolerantzia-sentimenduen kopuruak, bai eta etorkinenganako arbuio-sentimenduenak ere.
- Genero-indarkeriako kasuen kopuruak gora egin du.
- Gazteek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari.
- Gehienak oinez ibiltzen dira batetik bestera, nahiz eta autoa izan gehien erabiltzen den garraio-bidea asteburuetan batetik bestera mugitzeko.
- Lau gaztetik hiruk egunean hiru ordu libre baino gehiago dituzte aisiarako, eta batez ere lagunekin egoteko erabiltzen dituzte.
- Gero eta gehiago dira etxean ordenagailua eta Interneterako sarbidea duten gazteak, eta ia gazte guztiek dute eskuko telefonoa.
- azteen % 6,4k soilik egiten ditu boluntario-jarduerak, baina hamar gaztetik lau dira elkarteren bateko kide.

1.3. GAZTE POLITIKA INTEGRALA GARATZEN JARRAITZEAREN BEHARRA

Beharrezkoa da, oraindik ere, gazteei eragiten dieten politikei ikuspuntu integrala ematea. Baina izaera integral hori jarduteko printzipio metodologikoa baino ez da, lanerako estrategia, gazteei eragingo dieten politika ugariak eta errealitateak eskatzen dituztenak koherentziaz jantziko dituen tresna. Ikuspuntu integralak zentzua du, administrazioen eskumenak oso zatituta daudela eta gazteen egoerak oso anitzak direla ikusita.

Gazteriaren arloko eskumenak deszentralizatuta daude; gazteen elkarten ehuna etengabe garatzen ari da; eta euskal herri-administrazio guztiek eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bi hamarkada baino gehiago eman dituzte gazteen premia eta

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

arazoei aurre egiteko politikak, planak eta neurriak ezartzen. Gazte-politikei balio erantsia emango dien formula berria martxan jartzeko unea heldu dela dirudi.

Abagune egokia da, III. GAZTE PLANA 2020 honen bitartez, erronkak eta konponbideen proposamenak uztartzeko, baliabideak optimizatze eta gazte-politiken eraginkortasuna areagotze aldera. Beharrezkoa da gazteen belaunaldi berriari zuzendutako lan-estrategiak berrikusi eta bideratzea, gazte-politiken bilakaeraren eta Euskadiko gazteen gizarte- eta kultura-baldintzen azterketatik abiatuta.

1.4. GAZTERIAREN ARLOKO EUROPAR POLITIKEN ETA GURE INGURUKOEN ARTEKO UZTARDURA

- **Gazteriaren Liburu Zuria (2001)**

“Europako gazteentzako bultzada berria” izeneko Liburu Zuria onartu zuen Europako Batzordeak 2001eko azaroan. Gazteriaren arloan elkarlanean aritzeko elkarlan-esparrua zehazten da bertan. Hona hemen esparru horren helburuak: gazteen partaidetza, herritar izatea eta boluntario-jarduerak sustatzea, Europako gaiei buruzko informazio gehiago izan dezatela lortzea eta politikak gazteak hobeto ulertzeko bideak gara ditzala. Europar elkarlan-esparrua gazteriaren arloan garatzea bultzatzen du Liburu Zuriak, elkarlan-esparru irekian oinarritua eta politika nazionaletan aplikatzen diren helburu komunak ezartzen dituena.

- **Gazteriaren aldeko Europar Hitzarmena (2005)**

Arretagunea berriz ere hazkundera eta enpleguan jartzen duen Lisboako Estrategia berrikusian oinarrituta, Gazteriaren aldeko Europar Hitzarmena onartu zuen Europako Batzordeak 2005eko martxoan. Bere arretagunea hazkundera eta enplegua dira. Bere helburu nagusia gazteen hezkuntza eta lanbide-prestakuntza, mugikortasuna, laneratzea eta gizarteratzea hobetzea da, baina baita lanaren eta bizitza pertsonalaren uztardura erraztea ere. Era berean, Batzordeak hainbat esparrutan hartutako erabakien arteko koherentzia zaintzea ekatzen du.

- **Gazteen arloko lankidetzarako esparru berria (2010-2018)**

2009ko azaroan Gazteen arloko lankidetzarako esparru berria (2010-2018) onartu zuen Europako Kontseiluak. Agiri hark Europako gazteei aukera hobekak eskaintzea zuen xede, bai eta Europako lankidetzaren eraginkortasuna eta eragingarritasuna hobetzea ere. Horretarako, estrategia bat ezarri du datorren hamarkadarako, aurreko esparruko lorpenetan eta pilatutako esperientzian oinarritua. Europako lankidetzara 2010-2018 eperako bultzatzen duten helburuak uztarturik daude:

- Hezkuntzan eta lan-merkatuan aukera gehiago sortzea eta aukera horien berdintasuna bermatzea.
- Herritar-izate aktiboa, gizarteratzea eta elkartasuna sustatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Hori dela-eta, beharrezkoa da gazteriaren arloko ekimen zehatzak eta gizarteratze-ekimenak garatu eta sustatzea, politikaren beste esparru batzuetan gazteei eragiten dieten gaiak txertatuko dituztenak. Esparru berrituak zortzi ekintza-arlo ditu; gazteei laguntzeko sektore arteko ekimenak hartu behar dira arlo horietan: hezkuntza eta prestakuntza; enplegua eta enpresa-sena; osasuna eta ongizatea; partaidetza; boluntario-jarduerak; gizarte-inklusioa; gazteak eta mundua; sormena eta kultura.

- **Gazteriaren arloko europar adierazleak (2011)**

Europako Batzordeak gazteriaren arloko europar agiri bat argitaratu du lehen aldiz, 2011ko martxoan. Agiri horretan, Gazteriaren Arloko Europar Estrategian zehaztutako zortzi arloak hartzen dira barne. Gainera, Batzordeak, gazte-politikara gehiago hurbilduta egin dituen bestelako hobekuntza batzuk ere aipatzen dira bertan. Adierazle horiek funtsezkoak dira gazteen bizitzaren eta lanaren nondik norakoak hobeto ulertzeko. Gazteen bizitzekin lotuta dauden hainbat dimentsio hartzen dituzte aintzat: hezkuntza eta prestakuntza; enplegua eta enpresagintza; osasuna eta ongizatea; kultura eta sormena eta gazteen partaidetza.

- **Gazteriaren arloko Ministerio arteko Plana (2005-2008)**

2005eko uztailaren 1eko Ministroen Kontseiluak 2005-2008 pepaldirako Gazteriaren arloko Ministerio arteko Plana onartu zuen, gazteei zuzenduriko neurri-multzozko zabala biltzen zuen tresna estrategiko gisa. Ministerioetako 13 sailek eta 43 zuzendaritza-zentrok hartu zuten parte Planean; zuzendaritza-zentroak jarduketara bakoitzaz arduratu ziren. Planaren lehentasunak hiru muien ingurukoak ziren: emantzipazioa, partaidetza eta prestakuntza. Bertako ekimenen artean, honako hauek zeuden: Emantzipatzeko Oinarrizko Errenta, bekak areagotzea, ingelesa ikasteko eta hobetzeko laguntzak, Erasmus programaren laguntza osagarriak eta osasun-kanpainak.

- **Espainiako Gazteriaren Liburu Zuria 2020**

Senatua Espainiako Gazteriaren Liburu Zuria 2020 prestatzen ari da. Datozen urteetako gazte-politikak eta gazteen eta administrazioen arteko harremanak zehazteko xedea du. Azterketa Batzorde Bereziak lehenengo txostena prestatu du dagoeneko (2011ko apirilean). Bertan hainbat hausnarketa interesgarri jasotzen da:

“gazteek gaurko eta mehatxutzat hartzen dituzten bihar eguneko arazo zehatzetarako erantzun zehatzak eskatzen dizkiete sistema demokratikoari eta gazte-politikei, batez ere laneratzeari eta ongizate-estatuaren etorkizunari dagokienez, baina baita bidezko elkarbizitza baketsuari eta ingurumen-iraunkortasunari dagokienez ere.

Beraz, une egokia da hau eztabaida politikoa bultzatzeko, aurreko gazte-politikaren bilakaeraren azterketatik eta biztanle gazteen gizarte- eta kultura-baldintzetatik abiatuta, arlo horretan gizarte- eta ekonomia-aldaketa sakon bezain nahitaezkoak

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

burutu beharko dituen belaunaldi berri honentzat lan egiteko estrategia berdefinitu eta bideratuko duen eztabaida.

Horrenbestez, beharrezkoa da politika horien etorkizuna berrikustea; abagune egokia ez ezik, ezinbestekoa ere bada, gaurko kezkak herritarren eta gazteen artean daude eta. Ez dira erantzun beharreko kontu periferiko hutsak, gizarte- eta politika-eztabaidaren erdigunean kokatu beharrekoak baizik.”

2. EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020REN FUNTSA

2.1. III. GAZTE PLANAREN ABIAPUNTUA ETA EZAUGARRIAK

Aldaketa bereziki barneratzen duen kolektiboa da gazteena, eta gizarte-erlaketek eragina dute euren bizi-baldintzetan, balioetan eta jarreretan. Gaur egungo testuinguruan, krisialdi ekonomikoaren ondorioak bortizkien pairatzen dituzte, hain zuzen ere. Beraz, ziklo ekonomikoaren gorabeheren aurrean ahulago direla aintzat harturik, arreta berezia jarri behar da Euskadiko gazteen emantzipazio-aukeren hobekuntzan.

Gazte-politikak gizarte-egoera aldakorrari egokitzeaz gain, gazte-politikek politika publikoen baitan duten garrantzia aldarrikatu nahi du III. GAZTE PLANA 2020k: norbanakoak bizitza osoari aurre egiteko trebetasunak, tresnak eta baliabideak eskuratzen ditu gaztaroan.

Familiarengandik emantzipatu ere garai horretan emantzipatzen diraa, adiera zabalean. Hori dela-eta, aukerak sortzeko aroa da, gizarte-mugikortasuneko ibilbideak eraikitzen direnekoa. Politika publikoen ikuspuntutik, bizi-zikloaren une hori desberdintasunak erreproduzitzearen aurka borrokatzeko aukera da gaztaroa.

Gazte-politiken ahalmen hori ez da denbora luzez aitortu; aitzitik, politikok periferikotzat jo izan dira. Beharrezkoa da askotariko eragileek gazte-politiken eraldatze-ahalmena aitortzea eta esku-hartze publikoen artean funtsezkotzat jotzea.

Beraz, gizartea egun inoiz baino ziurgabeagoa, konplexuagoa eta dinamikoagoa bada ere, horrek ez du III. GAZTE PLANA 2020 zentzuz husten; aitzitik, bere existentzia justifikatu egiten du, batez ere, gazteengan eragiteko eraldatze-ahalmen horri esker.

Euskadiko gazte-politiken datozen urteetarako bidai orria den aldetik, benetako aukera-berdintasunaren eta gazteek euren bizitzak autonomiaz zein askatasunez garatzearen aldeko lanean –etorkizuneko gizartearen oinarri- politika publikoek duten egitekoa hobetu eta areagotzeko ekintzak nahiz neurriak txertatzen lagundu nahi du III. GAZTE PLANA 2020k.

Estrategia hori garatzea gazteriaren arloan diharduten erakunde eta eragile guztiei dagokie, bakoitzak bere eskumenari helduta. Beraz, erakundeek baterako erantzukizuna dute Euskadiko gazteentzat errealitate berria lortzeko lanean. Hain zuzen ere, eragile guztien jardun koordinatu eta sendoaren bidez baino ez gara izango gai erantzunak eta aldaketarako aukerak sortzeko.

Zeharkako, sail arteko eta erakunde arteko plana

III. GAZTE PLANA 2020k Gazte Planak gazteen errealitateari ikuspegi globaletik heltzen dio, errealitate horren dimentsio anitzak elkarren osagarri hautemanda: lan-egoera,

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

hezkuntza eta prestakuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-ekintza, aisialdia, kultura eta abar. Hartara, III. GAZTE PLANA 2020k aurreko Gazte Planen izaerari eusten dio, oinarritzko ezaugarriei dagokienez, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeetako sail guztien zeharkako plana izatea.

Baterako diagnostikoan oinarritua

III. Gazte Plana 2020 hainbat erakundek, gizarte-eragilek eta gazteek baterako diagnostiko zorrotzean errotuta dago III. GAZTE PLANA 2020. Euskadiko gazteek hainbat arlotan bizi duten eguneroko errealitatea islatzen du diagnostikoak.

Horretarako, Gazteen Euskal Behatokiak 2009ko abenduan prestatutako hasierako diagnostikotik abiatuta, Euskadiko gaur egungo gazteen premia eta eskari nagusiak zehaztuz eta lehenetsiz joan dira 2010eko urtarriletik 2012ko urtarrilera bitarteko kontsulta-fasean. Premia eta eskari nagusi horiek izango dira datozen urteetan gazteriaren arloan gainditu beharko diren erronkak.

Gizarte-partaidetzara irekia

Plana koordinatu, bultzatu eta garatzeko mekanismoak abiarazten diren neurrian, zehaztuz joango dira gazteek nahiz gizarteak parte hartzeko bideak. Horrez gain, III. Gazte Plana 2020 partaidetzara irekita dago, prestatzen hasi zen une beretik.

2010eko urtarrilean, **lehen zirriborroa** kaleratu zen. Honako hauen iritziak eta ekarpenak jasotzen ziren bertan: Eusko Jaurlaritza, gainerako erakundeak, EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, beste gazte-elkarte batzuk, gazte-politiken arloko gizarte-eragileak, elkarteetako gazteak nahiz elkarteetatik kanpokoak eta herritar guztiak, oro har.

Horrela, berariaz prestatutako publizitate-kanpaina baten ondoren, ekarpenak banaka nahiz taldeka errazago biltzea lortu zen, Irekia atariaren nahiz Gazteaukeraren postontziaren bitartez.

Bestetik, gazteriaren arloko profesionalentzako jardunaldiak antolatu zituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EUDELen lankidetzaz, 2010eko martxoaren 15ean eta 16an, Gasteizen. Jardunaldion helburua, halaber, euren iritziak eta ekarpenak jasotzea izan zen.

Halaber, parte-hartze prozesuan aurreikusitako faseei jarraiki, hainbat “world café” antolatu ziren batxilergoko nahiz lanbide-heziketako ikastetxeetan eta Euskadiko hiru unibertsitateetako kanpusetan, 2010eko martxo-apiriletan.

Era berean, 14 elkarrizketa pertsonal eta *focus group* delako bat antolatu ziren 2010eko ekainean, gazteen gizarte-ordezkariekin (astialdiko eskolak eta boluntarioen

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

agentziak), politikaren, sindikatuen eta enpresaren arloko ordezkariekin zuzenean lan egiteko asmoz.

Jasotako ekarpenak —Gazteaukeran argitaratuak— aztertu eta sartu ondoren, Gazteen Euskal Behatokiak III. Gazte Planaren xedeen eta adierazleen proposamena egin zuen 2011ko lehen hiletan, II. Gazte Planaren amaierako ebaluazioko gomendioetako bati jarraiki. Amaierako testua Eusko Jaurlaritzako sail guztiei bidali zitzaien, eta horrelaxe sortu zen **hirugarren zirriborroa**.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluak Gazteriaren Euskal Legearen Proiektua onartu zuenez geroztik, hain zuzen ere, 2011ko urriaren 7an, foru-aldundientzako kontsultafasea hasi zen, bai eta EUDEL eta EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarentzako bigarren ekarpen-bilketa ere, denak ere hirugarren zirriborroaren gainekoak. Fase hori 2012ko urtarrilaren 13an amaitu zen. Jarraian, EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020REN marko orokorra definitzen duen agiri honen proposamenari behin betiko idazketa eman zaio, barne-tramitazioari ekite eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzak onartu eta gero, Eusko Legebiltzarrera igortze aldera.

Leheneste estrategikoa

Planaren erronkak adostu eta gero, Planaren indarraldian aintzat hartu beharreko lehenetsunak ezarri dira. Hartara, helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak ezarri dira; gizarte-eragile nahiz erakunde eskudunek garatu beharko dituzte, proposamen adostutik eta eragile bakoitzaren konpromisotik abiatuta.

2.2. GAZTE KONTZEPTUA

Gazteria mugatu nahi denean, adinaren bitartez egin ohi da. Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektuak erabiltzen duen adin-tartea 12 eta 30 urte bitartekoa da. Gazteriaren konplexutasuna eta politiken aniztasuna dela-eta, adin-mugak irekiak izan beharko direla aurreikusten da bertan.

Hori dela-eta, eta baldintza beretan, 12 eta 30 urte bitarteko erreferentziari eutsiko dio III. GAZTE PLANA 2020k. Hala ere, praktikan, definizio hori esku-hartze premietara hobekien egokituko den adin-mugetara zehaztuko da politika bakoitzaren baitan.


2.3. IKUSPEGIA

Etorkizuneko egoera adierazten du ikuspegiak, III. GAZTE PLANA 2020k heltzea nahi duen helmugako egoera, bere existentzia baldintzatu eta justifikatu egiten duena. Ikuspegi hori honela adieraz daiteke:



2.4. XEDEA

Xedeari buruz mintzo garenean, III. GAZTE PLANA 2020K bete nahi duen helburuaz ari gara. Izan ere, plangintza estrategikoaren tresna bat da, eta arestian aipatutako ikuspegirako bidean aurrera egiteko eman beharreko urratsak ezarriko ditu. Beraz, bere funtsezko alderdiak ezartzeaz ari gara, Euskadin gazte-politikak garatzeko gida gisakoa.



2.5. PRINTZIPIO GIDARIAK

- **Zeharkakotasuna**

Euskal herri-administrazioetako sailek aurrera eramandako lerro eta neurrien inguruko orientazio eta koordinazio gisa ulertuko da, hau da, biztanle talde jakin batzuetan espezializatuta dauden sailen eta jarduera-sektore jakin batzuetan oinarrituta daudenen arteko koordinazioa eta orientazioa.

- **Integraltasuna**

Gazteak gizarte-, politika-, ekonomia-, ingurumen- eta kultura-esparruetan txertatzea bultzatzeko neurriak artikulatzerakoan gizarte osoaren eta, bereziki, euskal herri-administrazioen eta gizarte-eragileen inplikazio gisa ulertu behar da.

- **Gazte-ikuspegia txertatzea**

Gazte-ikuspegia txertatuko da euskal herri-administrazioetako politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta gazteen emantzipazioa sustatzeko helburu orokorra ezarriko baitute.

- **Elkarlana eta koordinazioa**


Euskal herri-administrazioak, gazte-politikak garatzean, elkarlanean arituko dira, beren jarduketak koordinatuta, egiten diren esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezen eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat etor daitezen. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz kanpoko beste instituzio eta erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatuko da, bereziki ekimen sozialarekikoa.

- **Partaidetza**

Euskal herri-administrazioek gazteen parte-hartzea izango dute gazteentzako politika eta baliabideak taxutu eta abiarazteko garaian, horien diseinuak gazteen eskari eta igurikapenetara egokitu daitezen.

3. III. GAZTE PLANA 2020REN EGITURA

3.1. ANTOLAMENDU OROKORRA: MARKO OROKORRA ETA ERAKUNDEEN PLANAK



a) Marko orokorra

Aurreko planetan ez bezala, Euskadiko III. Gazte Planean, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegorako marko orokorra lantzea aurreikusten da. Erreferentziako marko orokor horretan euskal herri-administrazioek gazteriaren arloan garatzen duten jarduna bideratuko duten esku-hartze lerroak eta jarraibideak biltzen dira, koordinaturik eta modu globalean. Hartara, Euskadiko III. Gazte Plana 2020ren marko orokor hau prestatu da. 2020ra arteko epe ertainerako premiak, lehenasunezko erronkak eta helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak mugatzen dira, kontsultafasean adostuz joan den premien eta eskarien diagnostikotik abiatuta.

b) Erakunde bakoitzaren plana

Marko orokorra prestatu eta onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko plan orokorraren esku-hartze lerroak eta jarraibideak garatuko ditu herri-administrazio bakoitzak. Horretarako, legegintzaldi bakoitzari dagokion eperako plana landuko du, bai eta ebaluatuko ere, urtean behin eta plan bakoitzaren indarraldia amaitu eta gero.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Horrela, batetik, erakunde bakoitzak epe laburreko konpromisoak egokiro moldatuko ditu, hiruzpalau urtean behin diagnostiko osoa, esku-hartze lerroak eta jarraibideak berrikusi beharrik gabe. Batetik, aldiari egokitzapenak egingo ditu, hala badagokio, eta, bestetik, plangintza eta programazioa, legegintzaldiaren edo gobernuaren aldiaren erritmoa jarraituta.

3.2. ESKUHARTZE ARDATZAK ETA AREAK

III. Gazte Plana 2020ren xedearen ildotik, bi eskuhartze-ardatz ezarri dira.

Lehenengoan, **Emantzipazioa eta autonomia**, gazteen bizi-proiektuak burutzeko prozesuan zuzenean eragiten duten hiru areak daude: hezkuntza, enplegua eta etxebizitza.

Bigarren ardatzak, **Bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa**, gazteek bizi-kalitate egokia eskuratzea bermatuko duten areak hartzen ditu barne. Arreta berezia emango zaio gizarte-desberdintasunak berragertzea ekiditeari. Hona ardatz honetako areak: osasuna, gizarte-ekintza, kultura, aisia, kontsumoa eta mugikortasun iraunkorra.



3.3. ADIERAZLE ETA XEDEEN MULTZOA

III. Gazte Plana 2020k eraldatzeko nahia eta helburua du: Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen errealitatea eta bizi-baldintzak aldatu nahi ditu.

Eraldatzeko nahi hori mamitze aldera, Euskadiko gazteen errealitateari buruzko 25 Xede Estrategiko proposatzen ditu III. Gazte Plana 2020k. Euskadiko Gazte Politika Integralak datozen urteetarako ezarri duen ikusmuga zehazten dute, bai eta gazteen

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

gizarte-egoeran eragiteko moduko lehentasunezko alderdiak zein diren eta aldaketa zein norantzan egin nahi den.

25 helburu horiei 29 adierazle lotu zaizkie. Hain zuzen ere, III. Gazte Plana 2020k 2016aren ostean (tarteko berrikusketaren urtean) eta 2020an (Plana amaitzen den urtean) lortu beharreko balioak edo joerak zehazten ditu. Xedeei dagozkien alderdiak III. Gazte Plana 2020ren xede nagusiari lotuta daude.

Gazteen Euskal Behatokiak taxututako adierazleen multzoa ezarri du III. Gazte Planaren estrategiak, gazteen egoerarekin lotutako alderdirik garrantzitsuenen aldakuntzari jarraipena egiteko. Aldian-aldian elikatu eta berrikusita, kudeaketa eraginkortasunez kontrolatuko da eta, horrenbestez, erabakiak modu dinamikoago eta eraginkorragoan hartuko dira.

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA		
AREA	XEDEA	ADIERAZLEA
Globala	Emantzipatutako gazte-kopurua handitzea.	Emantzipazio-tasa
Globala	Emantzipatzeko adina aurreratzea.	Emantzipatzeko batez besteko adina.
1. Hezkuntza	Eskola-uzte goiztiarraren tasa murriztea.	Eskola-uzte goiztiarraren tasa
1. Hezkuntza	Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketa-maila handitzea.	Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasa
1. Hezkuntza	Hirueledunen kopurua handitzea.	Hirueletasun-tasa
1. Hezkuntza	Goi-mailako ikasketasunaren kopuruari eustea.	Goi Mailako Hezkuntzako prestakuntza dutenen ehunekoa
2. Enplegua	Gazteen langabezia murriztea.	Gazteen langabezia-tasa
2. Enplegua	Gazteen enpleguan aldi baterako kontratuen kopurua murriztea.	Aldi baterako kontratudunen tasa.
2. Enplegua	Gazteen artean enpresagintza areagotzea.	Norberaren kontura lan egiten dutenen tasa
2. Enplegua	Gazteen artean lan-istripuak murriztea.	Laneko istripuen tasa
3. Etxebizitza	Etxebizitza alokatzeko ahalegin ekonomikoa murriztea.	Alokairuko etxebizitzaren merkatura sartzeko kostua
3. Etxebizitza	Alokairuan bizi diren gazteen kopurua handitzea.	Alokairu-erregimeneko emantzipazioa

2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA		
AREA	XEDEA	ADIERAZLEA
Globala	Gazteen bizi-kalitatea hobetzea.	Satisfazio pertsonalaren indizea
4. Osasuna	Trafiko-istripuak ziozko gizon gazteen hilkortasun-tasa murriztea.	Gizonen hilkortasun-tasa, trafiko-istripuak direla-eta
4. Osasuna	Gazteen artean gizentasuna eta sedentarisinoa murriztea.	Gizentasun-tasa
4. Osasuna	Gazteen artean gizentasuna eta sedentarisinoa murriztea.	Jarduera fisikoa
4. Osasuna	Gazteen artean drogen kontsumoa murriztea (tabakoa, alkohola eta kannabisa)	Tabako-kontsumoa
4. Osasuna	Gazteen artean drogen kontsumoa murriztea (tabakoa, alkohola eta kannabisa)	Alkoholaren asteburuetakoko gehiegizko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa
4. Osasuna	Gazteen artean drogen kontsumoa murriztea (tabakoa, alkohola eta kannabisa)	Kannabisaren ohiko kontsumoa
4. Osasuna	Nerabegaroko haurdunaldi-kopurua murriztea.	Nerabegaroko haurdunaldien tasa
5. Gizarte-ekintza	Familia-bizikleku gazteetan pobrezia-arriskua murriztea.	Pobrezia-arriskua
5. Gizarte-ekintza	Etxeko lanetan, genero-aldea murriztea.	Genero-aldea etxeko lanetan
6. Kultura	Gazte gehiagok parte hartzea jardueren artistikoetan.	Partaidetza jardueren artistikoetan
6. Kultura	Gazteen artean irakurtzeko ohitura handitzea.	Irakurtzeko ohitura
6. Kultura	Gazteen artean irakurtzeko ohitura handitzea.	Euskaraz irakurtzeko ohitura
7. Aisia	Euskararen erabilera areagotzea gazteen artean, aisialdian.	Euskararen erabilera lagunartean
7. Aisia	Gazte-elkarkidetzaren areagotzea.	Elkarkidetzaren tasa
8. Kontsumoa	Gazteen artean kontsumo iraunkorra areagotzea.	Kontsumo iraunkorra
9. Mugikortasun iraunkorra	Gazteek garraio kolektiboan gehiago erabiltzea.	Garraio publiko kolektiboaren erabilera

Esparru-planaren xedeen jarraipena egitea ahalbidetuko duen Gazteriaren arloko Adierazleen Multzoarekin batera, adierazle osagarrien sorta bat ere ezarri da, helburu estrategikoen multzoa ebaluatzeko bide-erakuslea izango dena. Bi tresnok agiri honen III. Atalean aurkituko dituzu, garatuta.

3.4. EBALUAZIO METODOLOGIA

III. Gazte Plana 2020ren ebaluazioari buruz ari garenean, aintzat hartu behar dira politika publikoen eta gizartearen errealitatearen artean kausalitate zuzena ezartzeko zailtasunak.

Besteak beste, gizarte-aldaketaren prozesuen konplexutasunak eta kausa anitzek dakarte zailtasuna. Hori dela-eta, oso zaila da neurtzen zein heinetan lagundu duen politika publiko jakin batek biztanleen bizi-baldintzak hobetzen; izan ere, oraindik ere, erronka handia da gizarte-politiken ebaluazioan eragina neurtzea.

Hala ere, garatutako politikaren eta denboraren poderioz burutzen diren gizarte-aldaketen artean kausalitate zuzenak ezartzeak dituen zailtasunez aparte, beharrezkoa da politika publikoak gizartean eta pertsonen bizi-baldintzetan aldaketa jakinak eragiteko duen egokitasuna ebaluatzen lagunduko digun analisi-maila bat ezartzea.

3.4.1. Ebaluazio-mailak

a) Analisiaren lehenbiziko maila III. Gazte Planaren **25 helburu estrategikoak ebaluatzearekin** lotuta dago. Hartara, planaren indarraldian lortu beharreko konpromisoak dira helburu estrategiko horiek. Helburuen jarraipena eta ebaluazioa izan behar da gazteen egoeraren bilakaera aztertze nahiz Planaren bi ebaluazio-ikusmugetan (tarteko ebaluazioan eta amaierako ebaluazioan) ezarri diren mugarribalioak zer neurritan erdietsi diren jakiteko tresna. Azterketa horri esker, helburuen eta hautatutako adierazleen egokitasuna ere egiaztatu ahal izango da. Posible denean, adierazleen bilakaeraren etengabeko jarraipena egingo da.

b) Azterketaren bigarren maila III. Gazte Plana 2020ren **xedea betetzeko jardun- eta aurrerapen-maila** da. Hartara, xedea betetzeaz harago, edo, hain zuzen ere, betetze hori neurtu ahal izateko, beharrezkoa da helburu horietarako bidean lagunduko diguten elementuak aztertzea.

c) Hori dela-eta, tarteko ebaluazioaren hirugarren maila III. Gazte Plana 2020ren **lehentasunezko erronkak eta helburu estrategikoak** aztertzean datza. Ikusi beharko da nola laguntzen duten mahairatutako helburu estrategikoek gazteen emantzipazio-aukerak eta bizi-kalitatea hobetzen.

Hiru azterketa-maila horiek, gazteen egoera aztertze bestelako agiri batzuekin konbinatuta (lau urtean behingo *Euskadiko gazteak* txostena eta gazteen egoerari buruzko adierazleen sistema, kasu, biak ala biak Gazteen Euskal Behatokiak burutuak), bidea eman behar dute, batetik, Euskadiko gazteen egoera aztertze eta, bestetik, III. Gazte Plana 2020k bilakaera horretan izan duen eragina.

3.4.2. Faseak

Legegintzaldiko erakunde-planen dagozkien urteroko programazioaren betetze-mailaren ebaluazioak eta amaierako ebaluazioak nahiz Gazteen Euskal Behatokiak eta beste erakunde batzuek gazteen egoera ezagutzeko egiten dituen ikerketek eta azterlanek eskaintzen duten etengabeko jarraipenaz gain, zehaztu beharra dago III. Gazte Plana 2020ren tarteko zein amaierako berrikusketak gauzatzeko erabiliko den ebaluazio-metodologia.

a) Tarteko ebaluazioa

Tarteko ebaluazioa gazteen gizarte-egoeran nahiz emantzipatzeko aukeretan eragiteko III. Gazte Plana 2020k duen ahalmena aztertzean datza. Horretarako, Planaren 25 helburu estrategikoen lortze-maila aztertuko da, Gazteei buruzko Adierazleen Multzoan ezarritako oinarritzko 29 adierazleak eguneratuta. Oinarritzko adierazleen azterketa, gainera, adierazle-sorta zabalago baten jarraipenarekin osatuko da. Esparru-planeko helburu estrategikoen egoeraren berri emango digu adierazle-sorta zabalago horren azterketak, eta gazteen egoeraren diagnostiko osoa eskainiko.

III. Gazte Plana 2020ean edozein arlo estrategikotan aurreikusitakoari egokitzen ez zaizkion alderdiak aldatzeko eta moldatzeko abiapuntua izango da tarteko ebaluazioa. Hartara, legegintzaldiko erakunde-planak berbiderratu eta bertaxutu ahal izango dira, Euskadiko gazteen premietan eta eskarrietan gauza litezkeen aldaketetara moldatzeko malgutasuna oinarri hartuta.

Bidezkoa da esatea sartuko diren aldaketak zehaztasunez baloratu beharko direla, batez ere III. Gazte Plana 2020ren egituran (ardatzak, areak, helburu estrategikoak, helburuak) eragina duten alderdietan sartuko liratekeenak, III. Gazte Planaren bideragarritasunean nahi ez diren ondorioak izan ditzaketen edo, indarraldia amaitu eta gero, ebaluazioa oztopa dezaketen desorekak ekiditeko.

b) Amaierako ebaluazioa

Esparru-planaren amaierako ebaluazioak gazteen gizarte-egoeran nahiz jarreretan, azturetan edo jokaeretan egondako aldakuntzak aztertuko ditu. Hartara, aurretiazko diagnostikoko egoera —plana ezartzeko oinarria— esparru-planaren indarraldiaren amaierakoarekin alderatuko da.

Ebaluazio hori, eraginaren ebaluaziotzat jotzen dena, adierazleen eta ezarritako 25 helburu estrategikoen arteko kontrastean funtsatuko da. Ebaluazioa gazteen egoerari buruz agiri honen III. atalean eskaintzen den datu-kopuru handiari esker aberastuko da.

Gazteriaren arloan egin beharreko esku-hartzeetarako orientazioa izango dira, bai esparru-planaren amaierako ebaluazioa, bai bertako ondorioak eta gomendioak ere.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

3.5. PLANA KOORDINATU, BULTZATU ETA GARATZEKO MEKANISMOAK

Plana bultzatzea, garatzea eta koordinatzea lortuko duten hainbat mekanismo abiaraztea aurreikusten du III. Gazte Plana 2020k.

ERAKUNDEA	GAZTE PLANAREN MEKANISMOAK
<i>GAZTE POLITIKA INTEGRALAREN ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO ORGANOA</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gazte-politika integralaren garapena eta ebaluazioa bultzatzea. ▪ Ekintzen plangintzari, programazioari eta betetze-mailari buruzko txostena.
<i>GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gazteen egoerarekin lotutako gaiei buruzko ikerketa. ▪ Gazte-politiken adituentzako, profesionalentzako eta bitartekarientzako zerbitzu teknikoa eta dokumentazioa. ▪ Teknikarien, gizarte-eragileen eta gazteen prestakuntza.
<i>EUSKO JAURLARITZA</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakunde arteko koordinazioa. ▪ Eusko Legebiltzarrari informazioa ematea. ▪ Euskadiko Marko Orokorra garatuta, dagokion legegintzaldiko erakunde-plana lantzea. ▪ Sail arteko koordinazioa. ▪ Erlazionatutako beste plan batzuekiko koordinazioa. ▪ Gazteukera atari gaztea eta gazteen bestelako zabalkunde- eta partaidetza-bideak artatzea.
<i>FORU ALDUNDIAK ETA UDALAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskadiko Marko Orokorra garatuta, dagokion legegintzaldiko erakunde-plana lantzea. ▪ Sail arteko koordinazioa.
<i>GAZTEAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gazteen elkarteak Administrazioarekin solaskidetzan aritzea, EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bitartez.
<i>GIZARTE ERAGILEAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Legegintzaldiko erakunde-plan bakoitzean zehaztu beharrekoa.

**III. GAZTE PLANA
2020REN
EGINKIZUNAK ETA
HELBURUAK**

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

1. AREA: HEZKUNTZA

Hezkuntza-politikek ezin ukatuzko eragina dute gazteen bizi-ibilbideen eta bizi-proiektuen oinarriko alderdien gain. Hori dela eta, gazte-politiken artean garrantzitsuenetako bat dira hezkuntza-politikak.

Horrela, ezin uka daiteke ikasketek nahiz ikasketetan lortutako emaitza akademikoek baldintzatuko dituztela pertsona batek lan-munduan izango dituen aukerak. Gauza bera gertatuko da zentzurik oso eta zabalenean hartzen badugu hezkuntza, hau da, nortasuna eta pertsonaren garapena sortzen duten jakintzak, trebetasunak eta jokabideak barneratzeko prozesu gisa.

1. Abiapuntua: auziaren egoera.

Nagusiki, "Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoa. 2009ko abendua. Datu nagusien sintesia" izeneko txostenetik hartu ditugu atal hau idazteko datuak. Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen txosten hori 2009an, eta Behatokiaren web-orrian dago eskuragarri¹. III. Gazte Planerako oinarri moduan egin zen mintzagai dugun diagnostikoa, eta hartaz baliatu dira III. Gazte Plana diseinatu duten teknikariak. Agiri honetan, badira lehen aipatutako diagnostiko horretatik hartu ez ditugun zenbait datu. Horrelakoetan, datua nondik hartu dugun adieraziko dugu eranskinean. Gerta daiteke, baita ere, diagnostiko horretan jasotakoak baino berriagoak izatea zenbait datu. Hala bada, datu berrien iturria ere zehaztuko dugu eranskinean.

Esparru honetako estrategiak eta helburuak zein diren azaldu aurretik, gaiaren egungo egoera irudikatuko dugu, beharrak eta eginkizunak zehaztu ahal izateko. Beraz, EAEko hezkuntza zer egoeratan den jakiteko, beharrezkoak diren zenbait datu, informazio, eta bi horietatik ateratako hainbat ondorio jaso ditugu lerro hauen azpian.

Azken urteotan, oro har, onera egin du euskal **hezkuntza-sistemari** buruz gazteek duten **iritzia**. 2000. urteko datuen aldean, aurrera egin dugu alderdi horretan. Azken urteotan, baita ere, lehen baino iritzi hobea dute gazteek Lanbide Heziketari buruz. Hainbeste non gazteen bostetik lauk uste duen Lanbide Heziketa eginez prestakuntza egokia lortzen dela lan-mundura sartzeko. Hala eta guztiz ere, gazteen hirutik bakar batek aukeratzen du Lanbide Heziketa; hirutik bik, ordea, unibertsitate-ikasketak nahiago ditu.

EAEko gazteen **eskolatze-tasan**, bestetik, ez da aldaketa nabarmenik izan urtetan, antzera baita ikasten duten gazteen ehunekoak. Azpimarratu beharra dago, baita ere,

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

emakumezkoen eskolatze-tasak gizonezkoenak baino handiagoak direla adin guztietan. Adinari dagokionez, bestalde, zenbat eta zaharrago orduan eta txikiagoa da ikasleen eskolatze-maila. 2007-2008 ikasturtean, esaterako, 16 urteko gazteen hamarretik bederatzi ikasten ari ziren; 18 urtekoen lautik hiru baino zertxobait gehiago; 20 urtekoen bostetik hiru; 22 urtekoen bostetik bi; eta 24 urtekoen bostetik bat baino zertxobait gehiago.

Aurreko urtekoen beratxoak izan ziren 2008ko datuak. Urte horretan, **20 eta 24 urte bitarteko gazteen %80,1k gutxienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa² amaitu zuen** (ondoko ikasketa hauei buruz ari gara: batxilergoa; lanbide hezkuntzako, arte grafikoetako eta diseinuko erdi-mailako heziketa-zikloak; gizarte-garantiako programak; eta erdi mailako kirol ikasketak). Nabarmentzekoa da, baita ere, sexuen arteko aldea: nesken %85,4 graduatu zen; mutiletan, aldiz, %75.

22 urteko pertsonen gutxienez %85ak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak amai ditzala proposatu zuen Europar Batasunak; erronka handia da, batez ere, mutilen kasuan. Hizpide dugun helburu hori bete ez arren, esan beharra dago EAEko gazteenak direla espainiar estatuko daturik onenak. Datuok, gainera, Europako batez bestekoaren gainetik daude (%78,5 baita EBko 27 herrialdeen batez bestekoa).

Bestetik, **garai-aurreko eskola-uztearen tasa legoke³**, hau da, soilik oinarritzko bigarren hezkuntza gaindituta –edota hura gainditu gabe ere– ikasketak bertan behera utzi dituzten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa. Tasa hori %14,7 izan zen EAEn 2008an; %18,1 mutiletan. Estatuko tasarik txikiena da hori, eta Europar Batasunaren batez bestekoaren parekoa⁴.

Hezkuntza-mailari⁵ dagokionez, lanbide-ikasketak egin ditu 20 eta 29 urte bitarteko herritar gazteen %12,1ek; %14,2k, ordea, erdi-mailako goi ikasketak egin ditu; eta %24,5ek goi-mailako ikasketak (azken multzo horren barruan daude: lizentziaturak; goi-ingeniaritzak; doktoretza-ikastaroak; espezializazio-ikastaroak; eta abar). Guztira, 20 eta 29 urte bitarteko gazteen %38,7k unibertsitate-ikasketak ditu.

30 eta 34 urte bitarteko kasuan, ordea, pixka bat handiagoa da goi-mailako unibertsitate-ikasketak edo erdi-mailako goi unibertsitate-ikasketak dituztenen tasa (%39,6). Espainiar estatuan 2009an izandakoaren bertsua da aipatu berri dugun 2006ko ehuneko hori (%39,4), eta Europar Batasuneko 27 herrialdeen batez bestekoa baino zertxobait handiagoa (%32,3)⁶.

Oro har, alde handia dago **emakumeen eta gizonen** ikasketa-mailaren artean. Lanbide Hezkuntzako ikasketetan, esaterako, gizonezkoak dira nagusi: 20 eta 29 urte bitarteko gizonen %14k lanbide-ikasketak egin ditu; adin-tarte horretako emakumeetan, berriz, %10ak. Unibertsitate-ikasketen kasuan, aitzitik, alderantziz gertatu da: 20 eta 29 urte bitarteko emakumeen %47k erdi-mailako goi ikasketak edo goi-mailako ikasketak ditu; adin-tarte horretako gizonen kasuan, aldiz, %30,8k. Desberdintasunak daude, baita ere, lurralde historikoen artean. Araban, adibidez, beste lurraldeetakoa baino txikiagoa

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

da 20 eta 29 urte bitarteko gazteetatik lanbide eta unibertsitate ikasketak dituztenen kopurua.

Zientzia eta teknologiaren alorreko espezializazio-ikasketei dagokienez⁷, zientzian, matematikan edo teknologian hirugarren mailako titulazioa duten (hots, goi-mailako lanbide-heziketa, diplomatura, lizentziatura, masterra edo doktoretza duten) 20 eta 29 urte bitarteko EAEko herritarren tasa %27,2koa izan zen 2007an. Tasa hori askoz handiagoa da Estatuko batez bestekoa (%11,2) eta EBko 27 herrialdeetako bataz bestekoa (%13,4) baino. Bestetik, goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak egin dituzte, matematikan eta teknologian graduatutako gehienak; horiek baino gutxiago izan baitira diplomatura-, lizentziatura- eta graduondoko-ikasketak egin dituztenak. Hortaz, ikerkuntza are gehiago sustatu beharra dagoela ondorioztatu du Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak. Aurreko aldagaian gertatu bezalaxe, honetan ere alde handia dago gizon eta emakume gazteen artean: graduatuen %38,1 gizonezko dira; emakumezko, aldiz, %15,8. EBk ezarritako helburuetako bat da, beraz, Europako herrialde guztietan hauteman daitekeen gizonen eta emakumeen arteko desoreka murriztea.

Ondorio harrigarriak aterako ditugu, baita ere, EAEko **15 eta 29 urte** bitarteko gazteen **gizarte-klasea** aztertzen badugu⁸. Derrigorrezko ikasketen ondokoak egin dituzten pertsonen dagokienez, alde handia dago behe-klaseko eta goi-klaseko gazteen artean. Bestalde, goi-klaseko gazteek eta behe-klasekoek oso bestelako ikasketak aukeratu ohi dituzte. Adibidez: lanbide-heziketaren alde egiten duten gazteen kopurua askoz handiagoa da behe-klasekoetan goi-klasekoetan. Gainera, unibertsitate-ikasketak dituzten behe-klaseko gazteen kopurua ez da iristen unibertsitate-ikasketak dituzten goi-klaseko gazteenen erdira ere.

Ikuspegi horretatik, gazteen bizi-ibilbideak eta bizi-proiektuak garatzeko aukerak baldintzatzen dituen elementua da hezkuntza. Esan genezake, baita ere, hezkuntzaren bidez mantendu eta handitu egiten direla sexu, lurralde, herriaren tamaina, gizarte-klase, eta abarreatikiko **desberdintasun sozialak**. Hortaz, gogoan izan beharko genuke gizarte-aukerak sortzeko tresna izan daitekeela hezkuntza. Horretarako, klaseen arteko oinarritzko desberdintasunak kontuan izan beharko genituzke eta, desberdintasun horiek direna baino handiago izan daitezela galarazteko asmoz, baliabide teknikoak, ekonomikoak eta sozialak txertatu beharko genituzke.

Azken urteotan, atzerriko herritarren kopuruak gora egin du gure gizartean; ondorioz, baita ikasle atzerritarren kopuruak ere. Hortaz, ohikoez bestelako etnia eta kulturetako ikasle andana dituzte irakasleek. Ikasleok, askotan, harrera-gizarteko hizkuntzaz bestelakoa darabilte.

Faktore berri horren eraginez, premiazko hainbat behar sortu dira: ikasle atzerritarren premiak asetzea; hezitzaileei eta ikastetxeei laguntzea; hezitzaile nahiz ikastetxeak baliabide pedagogikoz, langilez, materialez eta abarrez janztea; ikasgelan **kultura-artekotasuna** lantzea; eta abar.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Bestetik, **gazteen hezkuntza-ibilbideak** pixkanaka-pixkanaka **dibertsifikatu** dira azken urteotan. Lehen, norabide bakarreko harreman lineala zegoen hezkuntza-munduaren eta lan-munduaren artean. Orain, ordea, hainbat aukera daude: joan eta etor gaitzke; sartu eta irten, etenik gabe. Beraz, lehen aipatutako linealtasun hori hautsi egin da. Azken urteotan, gainera, jokabide etenak izan dira gazteen ibilbideetan. Horren ondorioz, erronka berriak sortu dira gazteria-politikan. Egoera horren aurrean egoki erantzun ahal izateko, errealitate berriak kontuan hartu eta funtzionamendu-irizpide berriak ezarri beharko dituzte gazteria-politikek.

Jakintza teorikoak iristeaz gain, hezkuntzaren bidez lantzen dira, baita ere, pertsonak guztiz garatzeko bide ematen duten trebetasunak eta jarrerak, hau da: jakitea, egiten jakitea, eta izaten jakitea. **Jarrera eta balio** horiei dagokienez, gazteen artean herritartasun askea eta ingurunearekiko konpromisoa sustatzeko balio du hezkuntzak.

Bestetik, gazteen trebetasunekin eta jarrerekin lotura duten gaitasunetako asko eskolatik kanpo lantzen dira, artean: ohitura osasungarriak, berdintasunezko harremanak, jarrera iraunkorrak, elkertasuna, herritartasuna, parte-hartzea, eta abar. Hortaz, eskolak baino eragin sozializatzaile handiagoa izango dute hezkuntzako beste eragile batzuek.

Horregatik, koordinatu egin behar dira **hezkuntzan parte hartzen duten**, eragin sozializatzailea duten eta pertsonen banakako nahiz taldeko nortasuna eratzen laguntzen duten eragile nahiz dimentsio guztiak.

Hortaz, hiru hezkuntza-mota bereiz daitezke: hezkuntza formala (ikastetxea, familiak eta ikasleak); formala ez den hezkuntza (elkartek eta hezkuntza-zerbitzuak); eta hezkuntza informala (hedabideak, IKTak, herritarrak, berdinkideen taldea, eta abar). Beraz, hiru hezkuntza-mota horietako neurriak, esparruak eta eragileak kontuan hartu beharko ditugu hezkuntzaren arloko gazteria-politikak proposatzean.

Gazteen artean gehien zabalduetako jarreretako batzuk gatazkatsu izan daitezke. Gazteek, adibidez, tolerantziarik eza agertzen dute zenbait talderekiko; immigranteak baztertzen dituzte; eta lehen baino gutxiago arduratzen dira taldeko auzi edota auzi publikoetaz⁹.

Euskarari dagokionez, azken urteotan etenik gabe egin du gora 16 eta 24 urte bitarteko gazte elebidunen kopuruak. 2006an, esaterako, EAEko gazteen hamarretik sei elebidun ziren; duela hamar urte, ordea, gazteen lautik bat mintzo zen Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan. Era berean, gazteen lautik batek dio elebiduna izan ez arren "ondo edo oso ondo ulertzen duela" euskaraz. Datuok oinarri, beraz, baieztatu daitezke Euskadiko gazteen bostetik lauk euskaraz ondo dakitela.

Gazte elebidunen kopuruan ere alde handia dago **lurralde** batetik bestera. Euskaraz nahiz gaztelaniaz mintzatzen diren gazte gehienak Gipuzkoan daude.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Hala ere, euskara ezagutzeari eta euskaraz **mintzatzeari** buruzko datuak ez datoz bat. Hau da, euskaraz dakiten gazteen %62 gaztelaniaz edo, euskaraz baino, gaztelaniaz aritzen da etxean; eta gazte horien %53 gaztelaniaz aritzen da lagunekin.

Atzerriko hizkuntzei dagokienez, ingelesez "oso ondo" edo "nahiko ondo" hitz egiteko gai dela adierazi du EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia erdiak (%48,3k). Halaxe dakar, bederen, berriki egindako inkesta batek¹⁰. Bestetik, gazteek gehien hitz egiten duten atzerriko bigarren hizkuntza frantsesa da (gazteen %5,1ek hitz egiten baitu).

Lehen aipatutako inkesta horren arabera, halaber, hizkuntzak ikastera edo hizkuntza-maila hobetzera joan izan da noizbait atzerrira EAEko gazteen lautik bat (%25,8); ikasketengatik edota ikastetxeko nahiz unibertsitateko ikasle-trukeak direla eta joan da atzerrira EAEko gazteen %17,2; lanera, praktiketan edo ikerketa-lanak egitera joan da gazteen %8,8; azkenik, boluntario moduan, garapenaren aldeko elkarlanean, edota lan-eremuetan parte hartzera joan da EAEko gazteen %2,5.

2010-2011 ikasturtean, esaterako, Erasmus beka jaso zuten EAEko unibertsitateetako 1.375 ikaslek. Erasmus edo Leonardo beken bidez, gainera, atzerriko lantokietan egin zituzten praktikak 2009-2010 ikasturtean Lanbide Heziketan graduatutako edota Lanbide Heziketa egiten ari ziren 892 gaztek (ikasturte horretako Lanbide Heziketako praktika guztien %10 da).

Beste herrialde batera joateko prestasunari dagokionez, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %15,7k atzerrira joateko asmoa du 2011n, hizkuntzak ikasi edota dakiena hobetzeko. Gazteen %3,6, ordea, beste era bateko ikasketak egiteko edota ikastetxeko nahiz unibertsitateko ikasle-trukeen bidez joango da atzerrira. Oraintsu edo geroxeago atzerrira joateko asmoa dutenetatik, atzerrira, aukera izanez gero, ikasten joango litzatekeela dio EAEko gazteen %60,3k; %65,1 lanera joateko prest legoke; eta %55,9 boluntario moduan, garapenaren aldeko elkarlanean, edota lan-eremuetan parte hartzera.

Ondorioak

Hezkuntzaren alorrean eragina duten aldagaiak azterturik, gazteen azken urteotako errealtatearen ezaugarriak ondoko hauek direla ondorioztatu dugu:

- Lehen baino iritzi hobea dute gazteek hezkuntza-sistemari buruz, bai eta Lanbide Heziketari buruz ere.
- Eskolatzeko-tasak eta prestakuntza-maila bere horretan mantendu dira, eta espainiar estatuko onenak dira. Hala eta guztiz ere, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak amaitu dituzten 20 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoak ez du betetzen Europar Batasunak proposatutako helburua (%85).

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Unibertsitateko titulazioa duten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak Lanbide Heziketako ikasketak dituztena baino hiru aldiz handiagoa da.
- Zientziako, matematikako, edota teknologiako titulua duten 20 eta 29 urte bitarteko pertsonen tasa Estatuko eta Europako batez bestekoa baino askoz handiagoa da. Hala ere, alde handia dago gizonen eta emakumeen artean. Gainera, zientziako eta teknologiako hirugarren mailako titulazioa duten EAEko pertsona gehienek Goi Mailako Lanbide Heziketako titulua dute –horiek baino gutxiago dira unibertsitateko titulua dutenak–.
- Zenbait faktorek –hala generoak nola gazteen egoera sozial eta ekonomikoak– eragin handia dute lortutako derrigorrezkoaren ondoko ikasketa-mailaren gain.
- Lehen baino askoz ikasle atzerritar gehiago daude ikasgeletan.
- Azken urteotan, pixkanaka-pixkanaka, hezkuntza-ibilbideak nabarmen dibertsifikatu dira.
- Hezkuntzaren ikuspegi integralak berekin dakar jakintza teorikoak iristea eta, horrez gain, trebetasunak nahiz jarrerak lantzea. Badira balioetan hezteko prozesuaren gain eragina duten kanpoko zenbait eragile. Beraz, eragile horiekin batera aritu beharko dugu elkarlanean.
- Azken urteotan hazi egin da gazte elebidunen kopurua.
- Euskaraz dakiten pertsonen erdiak baino gehiagok gaztelaniaz hitz egiten du lagun eta senitartekoekin.
- EAEko gazteen ia erdiak ondo edo nahiko ondo hitz egiten du ingelesez.
- Aukera izanez gero, atzerrira ikasten, lan egiten edo boluntario moduan joango litzateke EAEko gazteen erdiak baino gehiagok.

Beharrak

Hizpide dugun gaiari buruzko azalpen labur hori aztertzean, gazteen hezkuntzan kontuan hartu beharko liratekeen hainbat behar hauteman ditugu:

1. Prestakuntza-maila hobetu beharra dago eta eskola-uzteen tasa murriztu, Europar Batasunak ezarritako mugetara gerturatu nahi badugu.
2. Hezkuntzako aldagai guztietan murriztu beharra dago euskal gazteen generoak, gazteak bizi diren lurraldeak, haien egoera sozioekonomikoak eta beste faktore batzuek duten eragina.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

3. Lehen baino ikasle atzerritar gehiago izatearen ondorioz ikasgelatan suertatutako beharrak ase behar dira.
4. Aurre egin behar zaie gazteen hezkuntza-ibilbideetan sortutako jokabide etenen ondorioz suertatutako beharrei.
5. Balio-hezkuntza hobetu beharra dago, hezkuntzaren eremu formalean nahiz formala ez den eremuan.
6. Hezkuntzako eragile guztien lana koordinatu behar da.
7. Euskararen ikaskuntza sustatzen jarraitu beharra dago, batez ere, euskaraz gutxien egiten edo euskara gutxien ezagutzen den lurraldeetan.
8. Euskararen erabilera sustatu beharra dago hezkuntza formaletik kanpo.
9. Gazteen hizkuntz gaitasuna hobetu beharra dago eta, mugikortasuna sustatzearen bidez, ikasketak handitzen lagundu.
10. Ikasketa-bizipenekin, hizkuntza-aniztasunarekin eta kultura-artekotasunarekin lotutako mugikortasuna bultzatzea.

2. Hezkuntzako III. Gazte Planaren lehentasunezko eginkizunak

Sistema arautuaren barruan hezkuntza-arrakasta bermatzeko tresna da hezkuntza. Hezkuntza baliozkoa da, halaber, pertsona garatzeko aukerak baita formala ez den hezkuntzaren eremuan ere hobetzen dituzten ikaskuntzak iristeko. Hortaz, aurreko atalean adierazitakoari atzera helduz, goian aipatutako beharrak asetzen ahalegindu behar da III. Gazte Plana.

1. Asetzea gizarte-desberdintasunen ondorioz suertatutako beharrak. Behar horien artean izango dira, baita ere, ikasgelatan lehen baino ikasle atzerritar gehiago egotearen ondorioz sortutakoak.
2. Balio-hezkuntza hobetzea, hezkuntzaren eremu formalean nahiz formala ez den eremuan.
3. Gaitasun instrumentaletan, prozedurazko gaitasunetan, trebetasunetan eta jarreretan eragina duten hezkuntza-eragileen lana koordinatzea, eskola-barrukoena nahiz -kanpokoena.
4. Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, bai EAEko bi hizkuntza ofizialetan, baita gutxienez atzerriko hizkuntza batean ere.

5. Gazteen hizkuntz gaitasuna hobetzeko eta ikasketak handitzeko asmoz, haien mugikortasuna sustatzea.

3. Hezkuntzaren alorreko III. Gazte Planeko helburu estrategikoak eta esku-hartzeko ildoak

1. **Gizarte-desberdintasunen** eragina murriztea, eta desberdintasun horiek hezkuntza-sisteman errepika daitezela ekiditea.
 - Beken eta lanarekin batera daitezkeen ikasketa-planen bidez, ikasten hasteko, ikasten aritzeko eta ikasketak amaitzeko aukerak sustatzea, batez ere, derrigorrezkoen ondoko ikasketei dagokienez.
 - Ikasleen aniztasuna zaintzea, eta jatorri, kultura, balizko elbarritasun, eta abarreatatik ikasleek izan ditzaketen beharrak asetzeari.
 - Garai aurretik ikasketak utzi dituzten gazteek kalifikazio profesionala lortzeko esparruak sortzea, eta esparru horiek sustatzea.
 - Lurralde bakoitzeko ezaugarrien eta beharren arabera diseinatzea derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza.
 - Genero-estereotipoei aurre egitea.
 - Arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako politikak bultzatzea, ikasleak eta haien familiak oinarri harturik.
 - Egoki diren baliabideen bidez, emigrazioaren errealitatera egokitzea ikastetxeak.
 - Oporraldietan euskalduntze-proiektuak sustatzea, atzerritar nerabeek zein gazteek euskararen oinarritzko ezagutza izan dezaten.
2. **Balio-hezkuntza** hobetzea, hezkuntzaren eremu formalean nahiz formala ez den eremuan.
 - Eskolako eta eskolaz kanpoko jardura guztietan balio-hezkuntza sustatzea. Zenbait argibide emango dira, hezkuntza-mota hori ikasturtearen urteko planean sartu ahal izateko.
 - Kultura-artekotasuna indartzea, hezkuntza-sistemako zeharkako lan-ildo bezala.
3. **Gizarteko eta hezkuntzako eragile guztiak** hezkuntzako politika bateratuan biltzea.
 - Ikasleek ikastetxean parte hartzeko duten gogoia piztuko duten estrategiak garatzea.
 - Ikastetxeek udalekin nahiz eragile sozialekin lankidetzak hitzarmenak egin ditzatela sustatzea, elkarrekin jarduerak antolatu eta bien interesekoak diren esparruak erabil ditzaten.
 - Goian aipatutako eragile horien ardurakidetzak aitortzea. Familiaren funtzioa sustatzea, eragile aktibo baita sendia. Gizarte-sareen eta hezkuntza-elkarteen ahalmen estrategikoa indartzea eta hautematea.
 - Eskola-orduetatik edota eskola-egunetatik kanpo irekitzea ikastetxeak, kirol guneak, eta abar, ikasteko, zalantzak argitzeko eta bestelako kultur jarduerak egiteko erabil daitezkeen.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Ikastetxeko curriculum-proiektuan gertuko nahiz Europako gizartearen eta kulturaren ezaugarriak jaso daitezela sustatzea eta laguntzea.
 - Ikasleenentzako programak martxan jartzea, komunikatzeko gaitasunak, hau da, hizkuntza-gaitasunak, gaitasun teknologikoak eta harremanetarako gaitasunak garatzeko eta, ondorioz, inguruarekin erlazio hobea izateko.
4. Gazteen **hizkuntzetarako gaitasuna** hobetzea EAEko bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean.
- Bekak prestatzea, gazteek atzerrian egin ditzaten hizkuntza-ikastaroak.
 - EBko herrialdeekin ikasle gazteen trukeak egin daitezela bultzatzea.
 - Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea hezkuntza-eremu formalean nahiz formala ez den hezkuntza-eremuan, batez ere, euskara gutxien erabiltzen den lurraldeetan.
5. **Gazteen mugikortasuna** handitzea, bizipen-trukeari, hizkuntza-aniztasunari eta kultura-artekotasunari bidea emateko.
- Gazteek Europako mugikortasun-baliabideak orain baino gehiago erabil ditzatela lortzea.
 - Baliabide publikoen nahiz pribatuen eskaintza eta gazteen mugikortasuna sustatzeko ekimenak bultzatzea.
6. **Ikerketa eta espezializazio-ikasketak babestea**
- Espezializazio-ikasketak atzerrian egiteko beken zenbatekoa handitzea.
 - Ikerkuntza suspertzeko programak bultzatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p>.-Prestakuntza-maila hobetzea eta eskola-uzteen tasa murriztea, Europar Batasunak ezarritako mugetara gerturatu ahal izateko.</p> <p>.-Hezkuntzako aldagai guztietan murriztea euskal gazteen generoak, gazteak bizi diren lurraldeak, haien egoera sozioekonomikoak eta beste faktore batzuek duten eragina.</p> <p>.-Lehen baino ikasle atzerritar gehiago izatearen ondorioz ikasgelatan suertatutako beharrak asetzea.</p> <p>.-Aurre egitea gazteen hezkuntza-ibilbideetako jokabide etenen ondorioz sortutako beharrei.</p> <p>.-Balio-hezkuntza hobetzea, hezkuntza formalean nahiz ez formalean.</p> <p>.-Hezkuntzako eragile guztien lana koordinatzea.</p> <p>.-Euskararen ikaskuntza sustatzen jarraitzea, batez ere, euskaraz gutxien egiten den edo euskara gutxien ezagutzen den lurraldeetan.</p> <p>.-Euskararen erabilera sustatzea hezkuntza formaletik kanpo.</p> <p>.-Gazteen hizkuntz gaitasuna hobetzea eta, mugikortasuna sustatzearen bidez, ikasketak handitzen lagundu.</p> <p>.-Ikasketa-bizipenekin, hizkuntza-aniztasunarekin eta kultura-artekotasunarekin lotutako</p>	<p>.- Asetzea gizarte-desberdintasunen ondorioz suertatutako beharrak, genero-desberdintasunei arreta berezia emanik. Behar horien artean izango dira, baita ere, ikasgelatan lehen baino ikasle atzerritar gehiago egotearen ondorioz sortutakoak.</p> <p>.- Balio-hezkuntza hobetzea, hezkuntza formalean nahiz ez formalean, emakumeen eta gizonen berdintasunean eta emakumeak ez diskriminatzean arreta jarrita.</p> <p>.- Gaitasun instrumentaletan, prozedurazko gaitasunetan, trebetasunetan eta jarreretan eragina duten hezkuntza-eragileen lana koordinatzea, eskola-barrukoena nahiz -kanpokoena.</p> <p>.- Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea, bai EAEko bi hizkuntza ofizialetan, baita gutxienez atzerriko hizkuntza batean ere.</p> <p>7. Gazteen hizkuntz gaitasuna hobetzeko eta ikasketak handitzeko asmoz, haien mugikortasuna sustatzea.</p>	<p>1.- Gizarte- eta genero-desberdintasunen eragina murriztea, eta desberdintasun horiek hezkuntza-sisteman errepika daitezela ekiditea.</p> <p>2.- Balio-hezkuntza hobetzea, hezkuntza formalean nahiz ez formalean.</p> <p>3.- Gizarteko eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntzako politika bateratuan biltzea.</p>	<p>1.1.- Beken eta lanarekin batera daitezkeen ikasketa-planen bidez, ikasten hasteko, ikasten aritzeko eta ikasketak amaitzeko aukerak sustatzea, batez ere, derrigorrezkoen ondoko ikasketei dagokienez.</p> <p>1.2.- Ikasleen aniztasuna zaintzea, eta jatorri, kultura, balizko elbarritasun, eta abarrengatik ikasleek izan ditzaketen beharrak asetzea.</p> <p>1.3.- Garai aurretik ikasketak utzi dituzten gazteek kualifikazio profesionala lortzeko esparruak sortzea, eta esparru horiek sustatzea.</p> <p>1.4.- Lurralde bakoitzeko ezaugarrien eta beharren arabera diseinatzea derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza.</p> <p>1.5.- Genero-estereotipoei aurre egitea.</p> <p>1.6.- Arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako politikak bultzatzea, ikasleak eta haien familiak oinarri harturik.</p> <p>1.7.- Egoki diren baliabideen bidez, emigrazioaren errealitatera egokitzea ikastetxeak.</p> <p>1.8.- Oporraldietan euskalduntze-proiektuak sustatzea, atzerritar nerabeek zein gazteek euskararen oinarriko ezagutza izan dezaten.</p> <p>2.1.- Eskolako eta eskolaz kanpoko jarduera guztietan balio-hezkuntza sustatzea. Zenbait argibide emango dira, hezkuntza-mota hori ikastetxearen urteko planean sartu ahal izateko.</p> <p>2.2.- Kultura-artekotasuna indartzea, hezkuntza-sistemako zeharkako lan-ildo bezala.</p> <p>2.3.- Belaunaldi arteko esperientziak trukatzeko ahalbidetuko duten jarduerak edo programak bultzatzea.</p> <p>3.1.- Ikasleek ikastetxean parte hartzeko duten gogoia piztuko duten estrategiak garatzea.</p> <p>3.2.- Ikastetxeek udalekin nahiz eragile sozialekin lankidetzatza-hitzarmenak egin ditzatela sustatzea, elkarrekin jarduerak antolatu eta bien interesekoak diren esparruak erabil ditzaten.</p> <p>3.3.- Goian aipatutako eragile horien ardurakidetzatza aitortzea. Familiaren funtzioa sustatzea, eragile aktibo baita sendia. Gizarte-sareen eta hezkuntza-elkarteen ahalmen</p>

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

<p>mugikortasuna bultzatzea.</p>		<p>4.- Gazteen hizkuntzearako gaitasuna hobetzea EAEko bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean.</p> <p>5. Gazteen mugikortasuna handitzea, bizipen-trukeari, hizkuntza-aniztasunari eta kultura-artekotasunari bidea emateko.</p> <p>6.- Ikerketa eta espezializazio-ikasketak babestea.</p>	<p>estrategikoa indartzea eta aitortzea.</p> <p>3.4.- Eskola-orduetatik edota eskola-egunetatik kanpo irekitzea ikastetxeak, kirol guneak, eta abar, ikasteko, zalantzak argitzeko eta bestelako kultur jarduerak egiteko erabil daitezzen.</p> <p>3.5.- Ikastetxeko curriculum-proiektuan gertuko nahiz Europako gizartearen eta kulturaren ezaugarriak jaso daitezela sustatzea eta laguntzea.</p> <p>3.6.- Ikasleentzako programak martxan jartzea, komunikatzeko gaitasunak, hau da, hizkuntza-gaitasunak, gaitasun teknologikoak eta harremanetarako gaitasunak garatzeko eta, ondorioz, inguruarekin erlazio hobea izateko.</p> <p>4.1.- Bekak prestatzea, gazteek atzerrian egin ditzaten hizkuntza-ikastaroak.</p> <p>4.2.- EBko herrialdeekin ikasle gazteen trukeak egin daitezela bultzatzea.</p> <p>4.3.- Euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzea hezkuntza formalean nahiz ez formalean, batez ere, euskara gutxien erabiltzen den lurraldeetan.</p> <p>5.1.- Gazteek Europako mugikortasun-baliabideak orain baino gehiago erabil ditzatela lortzea.</p> <p>5.2.- Baliabide publikoen nahiz pribatuen eskaintza eta gazteen mugikortasuna sustatzeko ekimenak bultzatzea.</p> <p>6.1.- Espezializazio-ikasketak herrialdean nahiz atzerrian egiteko bekak sustatzea.</p> <p>6.2.- Ikerkuntza suspertzeko programak bultzatzea.</p>
----------------------------------	--	---	--

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

2. AREA: ENPLEGUA

Gure gizarteko eremurik garrantzitsuena edo garrantzitsuenetako bat da enplegua, eragin handia baitu gizarte-nortasunak eratzeko prozesuaren eta gazteen emantzipazio-ibilbidearen gain.

Horrez gain, lotura handia dago enplegua lortzeko aukeren eta lan-munduan sartzeko asmoz egindako ikasketen artean –lanbide-heziketa eta unibertsitateko ikasketei buruz ari gara–.

1. Abiapuntua: auziaren egoera.

Nagusiki, "Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoa. 2009ko abendua. Datu nagusien sintesia" izeneko txostenetik hartu ditugu atal hau idazteko datuak. Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen txosten hori 2009an, eta Behatokiaren web-orrian dago eskuragarri¹¹. III. Gazte Planerako oinarri moduan egin zen mintzagai dugun diagnostikoa, eta hartaz baliatu dira III. Gazte Plana diseinatu duten teknikariak. Atal honetan, badira lehen aipatutako diagnostiko horretatik hartu ez ditugun zenbait datu. Horiek erabiltzean, datua nondik hartu dugun adieraziko dugu eranskinean. Gerta daiteke, baita ere, diagnostiko horretan jasotakoak baino berriagoak izatea zenbait datu. Horrelakoetan ere, datu berrien iturria zein den adieraziko dugu eranskinean.

Aztergaiak, bestalde, bi multzotan banatuko ditugu: enplegurako prestakuntza, batetik, eta enplegua bera, bestetik.

Enplegurako prestakuntza

Enplegurako prestakuntza analizatzeko orduan, 20 eta 29 urte bitarteko gazteen **hezkuntza-mailari**¹² buruzko datuak aztertuko ditugu lehendabizi: 20 eta 29 urte bitarteko herritar gazteen %12,1ek, esaterako, lanbide-ikasketak egin ditu; %14,2k, ordea, erdi-mailako goi ikasketak; eta %24,5ek goi-mailako ikasketak (azken multzo horren barruan daude: lizentziaturak; goi-ingeniaritzak; doktoretza-ikastaroak; espezializazio-ikastaroak; eta abar). Guztira, EAEko 20 eta 29 urte bitarteko gazteen %38,7k unibertsitate-ikasketak ditu.

Oro har, **alde handia dago emakumeen eta gizonen** ikasketa-mailaren artean. Lanbide Hezkuntzako ikasketetan, esaterako, gizonetakoak dira nagusi: 20 eta 29 urte bitarteko gizonen %14k lanbide-ikasketak egin ditu; adin-tarte horretako emakumeetan, berriz, %10ak. Unibertsitate-ikasketen kasuan, aitzitik, alderantziz gertatu da: 20 eta 29 urte bitarteko emakumeen %47k erdi-mailako goi ikasketak edo goi-mailako ikasketak egin

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

ditu; adin-tarte horretako gizonetan, aldiz, %30,8k. Desberdintasunak daude, baita ere, lurralde historikoen artean. Araban, adibidez, beste lurraldeetan baino txikiagoa da 20 eta 29 urte bitarteko gazteetatik lanbide- eta unibertsitate-ikasketak dituztenen kopurua.

Ikasketak bazter, EAeko gazteek **uste onean dute lanbide-heziketa**; are gehiago, lanbide-heziketari buruz gazteek duten iritzia hobera egin du azken urteotan. 2007ko datuen arabera, gazteen bi herenak uste du EAEn kalitate oneko lanbide-heziketa eskaintzen zaiela gazteei. Hariari tenk, gazteen hamarretik zortzik uste du lan-munduan sartzeko egoki prestatzen dituela lanbide heziketak euskal gazteak. Hala ere, lanbide-heziketako modulua egitea baino, biharko egunean seme-alabek unibertsitate-ikasketak egitea nahiago lukete gazte gehienek.

Lanbide-heziketako ikasleak lan-merkatuan eraginkortasunez sartu diren aztertuz gero¹³, ikusiko dugu aurreko urtean lanbide-heziketako ikasketak amaitu zituzten pertsonen erdia baino gehiago lanean zirela 2009an. Aurreko urteekin alderatuta, hala ere, nabarmen egin du behera lana aurkitu duten lanbide-heziketako ikasleen tasak. Estreinakoz, gainera, handiagoa da emakumeen enplegu-tasa (%56,5) gizonezkoena baino (%50,4). Alderantzikatu egin da, beraz, aurreko promozioetako joera.

Kontratu gehienak, bestetik, enpresa pribatuetan egin dira. Lan-baldintzei dagokionez, ordea, aldi baterako lan-kontratua dute hizpide ditugun pertsona gehienek, eta lanaldi osoz aritzen dira. Esan gabe doa, baita ere, lanaldi murriztuak –gehiengo ez badira ere– ohikoagoak direla emakumeen artean gizonen artean baino. Batez besteko soldata 1000 eurotan da. Hala ere, gizonen batez besteko soldata zertxobait handiagoa da emakumeena baino.

Bestetik, gero eta lotura handiagoa du lortutako lanak egindako ikasketekin: 2009an, esaterako, lanpostu bat lortu dutenen %67 egindako ikasketekin lotura duen postuan dabil; %11, ordea, ikasketekin nolabaiteko lotura duen lanpostuan dabil; eta %22a soilik dabil egindako ikasketekin inolako loturarik ez duen lanpostu batean. Ikasitakoarekin loturarik ez duen lanpostu batean jardutea ohikoagoa da emakumeen artean gizonen artean baino.

Ikastetxearen eta praktikak egindako enpresaren bitartez aurkitu dute lana hizpide ditugun gazte horietako gehienek. Horien ondotik, lana aurkitzeko biderik erabilienak izan dira: curriculumak enpresetara bidaltzea; ikasleek beren burua lanerako eskaintzea; eta lagunen nahiz ezagunen sarea.

Unibertsitateko ikasleen lan-munduratzeari dagokionez¹⁴, aurreko hiru urteetan EHUUn unibertsitate-ikasketak amaitu dituztenen %80 lanean zen 2009an. Nesken enplegu-tasa handiagoa izan da mutilena baino. Hala ere, lanean diren gizonetatik enplegu iraunkorra dutenen tasa (%63) handiagoa da emakumeena baino (%47).

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Bada unibertsitatean ikasitako en lan-baldintzen berri ematen duen beste adierazle bat: hilabeteko batez besteko soldata garbia. Egun, 1550 euro inguruan da unibertsitatean ikasitako en soldata. Kontratuen iraupenarekin gertatu bezala, aldagai honetan ere bada aldea gizon eta emakumeen artean: gizonek, batez beste, emakumeek baino 130 euro gehiago irabazten dituzte. Bada, baita ere, unibertsitateko ikasketak amaitzen dituzten en lanpostuen kalitatea neurtzeko beste adierazle bat: zuzendaritza- edo burutza-lanpostuan dauden en kopurua. Gizonen %12k eta emakumeen %4k lortu du era horretako lanposturik.

Lana lortzeko bideei dagokienez, bestetik, hauek dira, hurrenez hurren, lana aurkitzeko orduan unibertsitatean ikasitakoek gehien erabili dituzten bideak: lagunen eta ezagunen sarea; curriculum vitaeak bidaltzea enpresetara; beren burua lanerako eskaintzea; Internet; unibertsitatea; praktikak; proiektua; lan-poltsatan sartzea; eta oposaketak egitea.

Lortutako hezkuntza-mailaren eta azken horrek lan-munduan sartzearen gain duen eraginari atzera helduz, gora egin du **unibertsitateko graduondokoak**¹⁵ egin dituzten gazteen kopuruak. Ikasketa horiek eginez, are espezializazio handiagoa izatea eta lan-merkatu hurbiltzea lortu nahi dute ikasleek. Bestetik, era horretako ikasketek eragin handia dute beroriek egin dituzten en lan-egoeraren gain; emakumeen gain, bereziki.

Lanerako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu dutenen lan-munduratzeari dagokionez¹⁶, prestakuntza amaitu eta sei hilabetera lanean dira 2008-2009 ikasturteko ikasleen hamarretik sei. Proporzio hori are handiagoa da 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen taldean. Mintzagai ditugun ikasketa horiek eginda lan-munduan txertatu direnen tasak ondoko bilakaera hau izan du azken urteotan: txertatze-tasarik handiena 2005 eta 2008 urteen artean izan zen; ondoren, aztertutako azken urtean, behera egin zuen txertatze-tasak.

Aztertu ditugu, baita ere, 2010eko hirugarren hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteei EAEn egindako kontratuak¹⁷. Titularraren ikasketen arabera, kontratuak hiru multzo handitan bana ditzakegu: DBHn edo batxilergoan titulatu egin zaizkie kontratuen erdia baino gehiago (%52,1); erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketa egin dutenei, berriz, kontratuen ia %20a; eta goi-mailako ikasketak dituzten gazteei kontratuen %13,5. Kontratuen gainerako %15aren titular, berriz, graduaziorik gabeko gazteak dira; hau da, oinarrizko ikasketak amaitu ez dituztenak edota bigarren hezkuntzako ikasketak egin arren eskola-graduatu titulua lortu ez dutenak.

Sexuen arteko aldeei erreparatuta, batxilergoan graduatutako edota goi-mailako ikasketak egindako emakume gehiago kontratatu dira gizonezko baino (%48,1 eta %30,3, hurrenez hurren). Aitzitik, gehienez ere DBHko ikasketak amaitu dituzten pertsonetatik, gizonezko gehiago kontratatu dira emakumezko baino (%48,1 eta %32,9, hurrenez hurren). Azkenik, gizon eta emakumeen arteko alderik ez da kontratatu dituzten gazteetatik lanbide-heziketa egin dutenen multzoan.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Aztertuko dugu, baita ere, ikasleek **prestakuntza**-jardueratan parte hartu duten¹⁸. *Lifelong learning* edo bizitzan barrenako ikaskuntzaren barruan kokatuko lirateke jarduera horiek. Ikasleen ustez ohiko ikasketen independente diren jarduera horiek baliagarriak dira trebetasun pertsonal nahiz sozialak handitzeko eta pertsonak prestatzeko lan-munduan ahalik eta prestakuntza-mailarik handienarekin txerta eta mantentzeko. Hartara, azpimarratu beharra dago azken urte honetan ikastaroren edo prestakuntza-jardueraren bat egin izana adierazi duela 18 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen %41ek. Gazteen datu hori handiagoa da EAEko herritar guztien batez bestekoa baino (%33).

Enplegua

Jarraian hainbat datu emango ditugu, euskal gazteen lana zer egoeratan den kuantitatiboki neurtzeko. Hori egin aurretik, hala ere, hizpide dugun gaia kualitatiboki zertan den azalduko dugu¹⁹.

Gaur egun, mundu-mailako bihurtzen eta globalizatzen ari da ekonomia. Prozesu horren baitan, aldaketa teknologikoak, produktiboak eta lanekoak gertatzen ari dira ekialdeko ekonomietan. Aldaketa horien ondorioz, azken urteotan **egoera berriak** sortu dira **lan-merkatuan**.

Euskadin ere nabari ditugu aldaketa horiek: industriak galdu egin du ekonomian zuen garrantzia, eta **zerbitzuen sektoreak indar handia hartu du**.

Ekoizpen-ereduko aldaketa horiek hainbat ondorio izan dituzte, adibidez: **lan-merkatuko talderik ahulenak** –gazteak, esaterako– **are ahulago bihurtu dira**.

Gazteek, beraz, lan-baldintza eskasak dituzte, lan egiteko adinean diren gainerako herritarrenak baino are txarragoak: aldi-baterako kontratu asko; lan ezegonkorrak; lan-baldintza latzak; lanerako malgutasun handia; soldatak elkarren gero eta desberdinagoak; soldata gero eta txikiagoak; eta langabezia-tasa gero eta handiagoa.

Lan-merkatuko egoera berrien ezaugarri horiek eragina dute, zuzenean, pertsonen bizitzaren beste alderdi batzuen gain –emantzipazio-prozesuen gain, nagusiki edo nabarmen–.

Bistan da, baita ere, gazteen lan-sozializazioak ez duela zerikusirik haien gurasoenarekin. Haien gurasoen garaian, lan-ibilbideak linealak ziren, metatzekoak, eta lanean gora egitekoak. Egungo gazte askoren lan-ibilbideak eta biografiak, aldiz, etenak eta zatituak dira.

Jarraian azalduko ditugu euskal gazteen lan-munduratzearen hainbat ezaugarri:

- **Era askotan txertatzen dira gazteak lan-merkatuan**, gero eta gehiago. Ez dago lan-merkatura sartzeko eredu orokorrik.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- **Ikaste-garaia luzatu denez**, geroago hasten dira gazteak lanean.
- Gazteen arazorik handienetako bat **langabezia** da. Atzeraldia eta lanik ez den garaian, are larriagoa bihurtzen da langabeziaren arazoa, beste taldeek baino zaitasun handiagoak baitituzte gazteek lana aurkitzeko.
- Lehen, zenbat eta ikasketa-maila handiagoa izan orduan eta aukera gehiago izaten zen lana eta, batez ere, lan ona aurkitzeko. Orain, ordea, ez da horrela. Gaur egun, ikasketa-maila handia izateak ez du bermatzen pertsonak lanpostu iraunkorra, ondo ordainduta eta lan-malgutasunik gabekoa izango duenik. Ez du bermatzen, ezta ere, langabezia-tasak murriztuko direnik.
- Lan-munduan txertatzeko garaian gazteek ezegonkortasun-egoera orokorra bizi behar duten ustea zabaldua dago (ezegonkortasun horren ezaugarriak liriteke, esaterako: gazteek behar baino kualifikazio gehiago izatea, kontratuak egiteko orduan babesik ez izatea, soldata txikiak, lanaldi luzeak, eta abar). Zenbaitetan, hasierako garai ezegonkor hori laburra izaten da; besteetan, aldiz, denborarekin okerrera egiten du.
- **Behin-behineko eta aldi baterako lan-kontratuak**, laneko ezegonkortasuna eta kolokatasuna eragiteaz gain, lan- nahiz bizi-ziurgabetasuna sortzen dute gazteen baitan.
- Aldi baterako kontratuak izatearen ondorioz, **familiakoen laguntzaren beharra** izaten dute gazteek.
- Ordenarik gabeko lan-biografia kaotikoak sortu dira: gazteak etenik gabe sartu eta ateratzen dira lan merkatutik, eta denbora luzez egoten dira lanik gabe. Ibilbide horiek ez dira atzeraezinak eta denborarekin egonkortzeko joera dute.

Laneko egoera berri horrek, bestetik, hainbat **ondorio** izan ditu norbanakoen gain:

- Norbanakoek ezegonkortasuna nabari dute, eta hura negatibotzat hartu. Ezegonkortasuna dela-eta, daukatena galtzearen **beldur** dira; **itxaropena galdua** dute, uste baitute haien egoera ez dela sekula amaituko; eta **zalantzak** dituzte, ez baitakite geroak zer ekarriko dien.
- Egoera horretan, laneko egonkortasuna lehenetsiz, diru gutxiago irabaztea nahiago izaten dute askok, baita ogibidean gora ez egitea, edota gustuko ez duten lan batean aritzea ere.
- Laneko egonkortasunik ezaren ondorioz, bestetik, pertsonak **zailtasunak** dituzte beren **bizi-proiektuak garatzeko** (hau da, gurasoengandik independente izateko, familia sortzeko, seme-alabak izateko, eta abar).

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Jarraian, hainbat datu kuantitatibo emango ditugu, goian aipatutako egoera hori zenbakitan neurtu eta are zehaztasun handiagoz aztertzeko.

2010ean, EAeko 15 eta 29 urte bitarteko herritarren %42 ikasten ari zen; %38k lan ordaindua zuen; %16 langabezian zen; %2 etxeko lanetan; eta gainerako %1a beste multzo baten barruan zen (ezinduak, eta abar)²⁰.

Adina, bestetik, alderdi erabakigarria da lan-egoeran. Hau da, zenbat eta zaharrago orduan eta handiagoa da lanean nahiz langabezian diren gazteen kopurua; eta orduan eta txikiagoa da ikasi besterik egiten ez duten pertsonen kopurua. 2008ko analisiaren arabera²¹, esaterako, 15 eta 19 urte arteko gazteen %87 ikasi besterik ez zuen egiten; kopuru hori, aitzitik, %6koa izan zen 25 eta 29 urte arteko gazteen artean. 15 eta 19 urteko gazteen %5 lanean zen, eta %2 langabezian. Aitzitik, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen %71 lanean zen, eta %12 langabezian.

Orain, hala ere, horiek baino orokorragoak diren beste datu batzuk aztertuko ditugu. Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazle Estatistikoaren Sisteman²² bildutako datuen arabera, esaterako, herritar gazteen **jarduera-tasa** %56,3koa izan zen 2009an. EAeko herritar aktibo guztienaren²³ antzekoa da ehuneko hori (2009an %55,6; eta 2010ean %55,9). Horrela, herritar guztien jarduera-tasa globalean ia aldaketarik egon ez bada ere, gazteen jarduera-tasak 7 puntu egin du behera azken hamarkadan.

Bestetik, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen %47,1 lanean zen 2009an. EAeko herritar guztien urte horretako **enplegu-tasa** (%51) baino txikiagoa da hori. 1999ko tasa bera izan zen, berriz ere, 2009an. Hamar urte horietan, bilakaera gorabeheratsua izan du enplegu-tasak: 2006. urtera arte gora egin zuen urtez urte; hortik aurrera, berriz, jaisten hasi zen. Bestetik, aurreko urteetan baino alde txikiagoa dago gizon eta emakume gazteen artean. Bion datuak berdindu egin dira, gehienbat, lanean dauden gizonen kopuruak behera egin duelako. Behera egin arren, edonola ere, gizon gazteen enplegu-tasak neskena baino zertxobait handiagoa izaten jarraitzen du.

2009. urtean ere, %16,5eko **langabezia-tasa**²⁴ izan zen 16 eta 29 urte arteko gazteen artean. EAeko herritar guztien langabezia-tasaren bikoitza da lanik ez duten gazteena (EAeko langabezia-tasa %8,1ean izan baitzen 2009an²⁵). Hortaz, gazteen lan-egoeraren ezaugarriarik adierazgarrienetako bat langabezia da, batez ere, 25 urtetik beherako gazteena (25 urtetik beherako gazteen %23 langabezian baita). Nabarmendu beharra dago, baita ere, 2002 eta 2004 urteen arteko zifra berberak izan direla 2009an. 2005 eta 2008 urteen artean, edonola ere, oso bestelako datuak izan ziren, oparaldi ekonomikoa izan eta enplegua sortu baitzen urte horietan. Hala eta guztiz ere, langabezia-tasa txikiagoa izan da 2009an 1999an baino.

Espainia osoko datuei so, 2009an, Espainia osoko gazteen langabezia-tasa (%28,8) handiagoa izan zen EAeko gazteena baino (%16,5)²⁶.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Gizon eta emakumeen arteko aldeari dagokionez, 2006. urtera arte, gizonezkoenak baino handiagoak izan ziren emakume gazteen langabezia-tasak. Urte horretatik aurrera, ordea, –2009an, bereziki– langabetu gehienak gizonezko dira.

Enplegu-bulego publikoetan **erregistratutako langabetuei** dagokienez²⁷, 2011ko urtarrilean EAEn erregistratutako pertsonen bostetik bat 16 eta 29 urte bitarte zuen. Langabezian erregistratutako gazteetan, berriz, mutilen kopurua neskena baino zertxobait handiagoa da (langabezian erregistratutako gizonezkoen %21,9k eta emakumezkoen %17,8k 30 urte baino gutxiago ditu). Enplegu-bulego publikoetan erregistratutako pertsona guztietatik gazteen ehuneko zertxobait handiagoa da Espainiako estatu osoan (%23) EAEn baino (%19,8).

Aztertuko ditugu, baita ere, lanean ari diren gazteen **lan-baldintzak**²⁸. Horretarako, hainbat alderdi izango ditugu kontuan.

Lehenik eta behin, **lan ordainduen kopuruari** erreparatuko diogu. Noizbait urtebete baino gehiagoz lanean aritu izana adierazi zuten 2008an gazteen hirutik ia bik. Edonola ere, lanean aritutako gazteek soldatapeko 3,4 lan izan dituzte batez beste. Itxura denez, hala ere, 2004. urtetik 2008. urtera egoerak hobera egin zuen pixka bat.

Nabari dezakegu, baita ere, lanean aritu izan diren gazteen heren bat baino gehiagok ez duela urtebetetik gorako lanik izan. Are gehiago, gazteen hamarretik ia lauk ez du era horretako lanik izan bizitza osoan. Hortaz, **enpleguen iraupenari** begiratuta ondoriozta dezakegu gazteek lan ezegonkorrak dituztela oraindik ere. Horrez gain, behin edo behin baino gehiagotan sei hilabete baino gutxiagoko kontratua izan duela adierazi du lanean aritu izan diren gazteen hamarretik seik.

Bada lan-baldintzen gain eragina duen eta lanaren egonkortasuna irudika dezakeen beste alderdi bat: **azken enpleguaren iraupena**. Horrela, azken enpleguaren iraupenari buruz edota egungo enpleguan zenbat denbora daramaten galdetuta, hauxe erantzun zuten lanean aritu izan ziren gazteek 2008an: lanean aritutako gazteen erdiak adierazi zuen urtebete baino gutxiago zeramala garai hartako lanpostuan, edota haien azken enpleguak urtebete baino gutxiagoko iraupena izan zuela; lanean aritutako gazteen heren batek, berriz, garai hartako lanean urtebete eta hiru urte bitartean zeramatzala esan zuen; eta lanean ziharduten gazteen %16k baino ez zuen esan hiru urte baino gehiago zeramatzala edota hiru urte baino gehiagoz aritu izan zela enplegu berean.

Aipatu beharra dago, baita ere, lantoki berean hiru urte baino gehiago lanean daramatzatzen taldean gizonezko gehiago daudela emakumezko baino. Emakumezkoak, aldiz, gehiengo dira azken enplegua duela urtebete baino gutxiago lortu dutenen edota azken enpleguan urtebete baino gutxiagoz izan direnen taldean.

Kontratuen baldintzei dagokienez, aldi baterako lan-kontratua zuen (edo azken lanean aldi baterako kontratua izan zuen) lanean ari zen gazteen erdiak; horixe dakar, bederen, 2008an egindako inkesta batek. Urte horretan, kontratu mugagabea zuen

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

gazteen heren batek; eta gazteen hamarretik ia bat kontraturik gabe ari zen edo aritua zen lanean.

Auzia are zehaztasun handiagoz aztertuz gero ikusiko dugu handiagoa dela lan-kontratu mugagabea duten gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino. Kontraturik gabe lan egiten duten pertsonen dagokienez, ordea, emakumezkoen ehunekoak gizonezkoenaren bikoitza da. Hauteman dugu, baita ere, 24 urtetik beherako herritar gehienek lan ezegonkorra dutela. Aldi baterako kontratuen ehunekoak, adibidez, handiagoak da gazteen multzoan beste taldeetan baino. Gazteek, halaber, lan-kontratu mugagabe gutxien dute: zenbat eta gazteago orduan eta lan-kontratu mugagabe gutxiago. Nabarmentzekoa da, baita ere, hogeitau urtetik beherako gazteen ia heren bat kontraturik gabe lan egiten duela edota izandako azken lanean lan-kontraturik gabe aritu izan dela.

Jarraian, EAEko gazteen aldi baterako kontratuen tasa ofizialak aztertuko ditugu²⁹. Datu horien arabera, soldatapean lanean ziren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen %41ek aldi baterako kontratua zuten 2009an. Aldi baterako kontratua zuten EAEko gazteen ehunekoak, beraz, handiagoak izan zen EAEko langile guztietatik 2009an aldi baterako kontratua zutenena baino (%18,6); baina aldi baterako kontratua zuten Espainiako gazteena baino zertxobait txikiagoa (%44,7).

Bestetik, EAEn 2010eko hirugarren hiruhilekoan 16 eta 29 urte bitarteko gazteei egindako kontratuen %97 aldi baterako kontratu izan zen³⁰.

Jasotako **diru-sarrerei** dagokienez, 15.400 euro irabazi zituzten, batez beste, lanean ari ziren 25 urtetik beherako EAEko gazteek 2008. urtean. Zenbateko hori, bidenabar, handiagoa da urte horretan bertan Europan eta Espainian izandako batez bestekoak baino (14.800 eta 13.000 euro ingurukoak izan baitziren, hurrenez hurren)³¹.

Laneko ezbeharren tasari dagokionez, 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen taldeak izan du EAEn gertatutako laneko ezbehar guztien herena baino gehiago (%35,6). Halaxe dakarte, bederen, 2010eko datuek³². Hala ere, aurreko urteetan baino ezbehar gutxiago izan dituzte gazteek lanean. Horren ondorioz, laneko istripuen ratioa jaitsi egin da: 2005ean, lanean ari ziren 16 eta 34 urte bitarteko gazteen milatik 72,8 bajaran zen; 2010ean, aldiz, milatik 48,4. Gazteek lanean izandako ezbeharren kopurua handiagoa da EAEko langile guztien ezbehar-tasa baino (azken hori 40,2koa izan baitzen 2010ean³³).

Espainiar Estatu osoan³⁴ EAEn baino pixka bat handiagoa izan zen 2009an laneko istripua izandako pertsonetatik 35 urte baino gutxiagokoen kopurua: %41,4.

Espainian 2009an izandako emaitzen antzerakoak izan ziren EBn³⁵ 2007an: 35 urtetik beherako herritarrek izan zituzten laneko istripuen %41,1.

Sexuen artean ere alde handia dago: emakume gazteek lanean izandako istripuen ia laukoitza izan dute gizon gazteek. Lan istripu gehienak, halaber, 26 urtetik gorako

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

pertsonak izan dituzte. Logikoa da, alabaina, 26 urtetik gorako gazteek izatea laneko istripurik gehien, adin horretarako lanean baitira gazte gehienak.

Jarduera-sektore bakoitzean izandako istripuei dagokionez³⁶, herritar guztien antzeko datuak izan zituzten gazteek 2010ean: laneko ezbeharren %46,5 zerbitzu-sektorean izan zen; %35,8 industrian; eta %16,3 eraikuntzan. Lan-istripu horien ondorioz, 35 urtetik beherako 6 gazte hil ziren 2010ean, eta zauri larriak izan zituzten beste 66k³⁷.

Nabarmentzekoa da, baita ere, gazteen ia erdiak (%48k) lanpostuz aldatuko lukeela aukerarik izanez gero. Aitzitik, bila zebiltzan lana aurkitu dutela adierazi dute gazteen erdiak baino zertxobait gutxiagok (%45ek). **Lanaren gogobetetzeak**, bestetik, lotura handia du lan-baldintzekin. Guztietan gogobetetze-mailarik handiena dute lantoki berean hiru urte baino gehiagoz dihardutenek; beren burua autonomotzat dutenek; lan-kontratu mugagabea dutenek; eta lanaldi osoko lana dutenek³⁸.

Lehenengo lana eskuratzeko biderik erabilienei dagokienez, EAEko gazte gehienek (zehazki, lanean aritutako gazteen hamarretik lau baino gehiagok) zuzenean eta pertsonalki bilatu dute lehendabiziko lana. Gazteen heren bat baino gehiagok, ordea, familiakoen, lagunen edota ezagunen bitartez aurkitu du lehen lanpostua. Kontrako muturrean, hau da, lehenengo enplegua aurkitzeko orduan gazteek gutxien erabili duten baliabidearen postuan, enplegu-zerbitzu publikoak daude.

Azkenik, **nork bere lana sortzeari** edo norberaren kontura lan egiteari buruzko datuak aztertuko ditugu. 2010eko datuen arabera, lanean ziren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen %6,5 autonomo edo enpresaburu ari zen (batzuek langileak zituzten beren ardurapean; beste batzuek, ordea, ez)³⁹. Ehuneko hori askoz txikiagoa da EAEko biztanle okupatu guztiek aldagai berean izan dutena baino (%14,7)⁴⁰.

Espainiako estatuan, berriz, lanean ziren gazteen %7,5 norberaren kontura ari zen 2010eko azken hiruhilekoan. EAEko gazteena baino zertxobait handiagoa da kopuru hori. Hala ere, zehaztu beharra dago Estatuan, EAEn ez bezalaxe, kooperatibistak eta familia laguntzen ari ziren gazteak sartu direla norberaren kontura lanean diren gazteen multzoan⁴¹.

Bestalde, gazteen autoenplegu-tasaren bilakaera aztertzen badugu ikusiko dugu 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %4 autonomo, profesional liberal edo enpresaburu ziharduela 2008an⁴² (2004an baino ehuneko bat gehiago); eta gazteen %10 serioski pentsatzen ari zen hiru aukera horietako baten alde egitea. Gainera, aukera horri buruz sekula pentsatu ez arren, gazteen %9k adierazi zuen balitekeela etorkizunean hiru aukera horietako baten alde egin behar izatea.

Nekazaritza- eta arrantza-sektoreei dagokienez, ustiategien titularren zahartze handia izan da EAEn. Horixe da, hain zuzen ere, euskal nekazaritza-sektoreko egiturazko ahuleziarik handienetako bat. Haren gain eragina dute, baita ere, produkzio-ehunduraren nahiz landa ingurunearen gainerako ahulezia gehienek.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Europako nekazaritza-sistema gehienetan eta, bereziki, gurearen moduko mendi- nekazaritzetan errepikatzen den ezaugarria dugu zahartze hori. Hala ere, **euskal nekazarien zahartzearen** egungo datuak larritzeko modukoak dira. 2010eko azken hiruhilekoko datuen arabera⁴³, gure autonomia erkidegoan nekazaritzaren sektorean diharduten pertsona guztien %1,7k baino ez du 25 urte baino gutxiago. Espainian, aldiz, 25 urte baino gutxiago ditu nekazarien %7,4k.

Soil-soilik ehunekoei erreparatuz gero nabariko dugu egungo egoera askoz okerragoa dela duela zenbait urtekoa baino. Hala ere, ezin uka daiteke nolabaiteko **belaunaldi txandakatzea** dagoela; berandu, sarri askoan, baina egon badago. Aipatu beharra dago, baita ere, sektorean gazte gutxi sartzen direla eta 65 urtetik gorako ustategiak desagertzen ari direla.

Titulartasunaren arazoa bazter, familiakoei laguntzen aritzen dira ustategietan gazte asko. Beraz, estatistiketan jasotako gazte-kopurua baino ehuneko hamar lan gehiago egiten dute berez gazteek. Hortaz, ondoriozta dezakegu etorkizuneko belaunaldi txandakatzea mamitzen ari dela egiazki ustategietan. Noski, belaunaldi txandakatze hori posible izango da baldin eta hainbat faktorek horretarako bide ematen badute.

Nekazaritzan aritzen diren gazteetako askok beste jarduera bat dute ogibide nagusizat. Gazte horien arabera, badira nekazaritza baino erakargarriagoak diren beste sektore batzuk; alegia, nekazaritzak baino lan-baldintza eta diru-errentagarritasun hobeak eskaintzen dituztenak. Hortaz, nekazaritzaren sektorean orain baino gazte gehiago sar daitezela, sartzen diren gazteak bertan gera daitezela, eta sektorean sartze horiek ekonomikoki errentagarriagoak izan daitezela lortu nahi badugu, nekazaritzaren eta beste sektoreen arteko lehiari heldu beharko diogu.

Edonola ere, 18 eta 29 urte bitarteko gazteek aitor dute nekazari-ogibideak ez duela haien gogoia pizten (0tik 10era, 4 puntu) eta ez dute uste hura erakargarria denik gazteentzako (0tik 10era, 2,3 puntu). Lanik gogorrenetik hasi (0) eta lanik erosoenera arteko (10) eskalan, 2,3 puntu eman dizkiote gazteek nekazaritzari. Bestetik, oso gaizki (0) eta oso ondo (10) ordaindutako lanen eskalan, 2,6 puntu eman dizkiote gazteek nekazaritzari⁴⁴.

Balioespen negatibo horren ondorio, akaso, EAEn lanean ari diren 25 urtetik beherako gazteen %0,4 besterik ez aritzea nekazaritzan. Espainiako estatuan, ordea, lanean ari diren 25 urtetik beherako gazteen %5,3 nekazari dabil⁴⁵. Nekazaritzaren sektorean, bidenabar, emakume baino gizon gehiago dabil lanean.

Ondorioak

Enplegurako prestakuntza

- Gazteek iritzi ona dute Lanbide Heziketari buruz, eta azken urteotan hobera egin du Lanbide Heziketari buruz gazteek duten iritzia.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Hiru hauek dira lan-munduan txertatzeko biderik arrakastatsuenak: ikastetxeak, praktikak egindako enpresak, eta lagun- nahiz ezagun-sareak.

Enplegua

- Hainbat aldaketa gertatzen ari dira lan-merkatuan, horietan adierazgarrienak: gazteak ez direla linealki eta homogeneoki txertatzen lan-munduan; langabeziak gora egin duela; aldi baterako lanen edo lan ezegonkorren tasa oso handia dela.
- Lan-merkatuaren aldaketek hainbat ondorio dituzte gazteen gain: gazteek ezin dituzte beren bizitza-proiektuak diseinatu eta garatu; gazteak izu, itxaropenik gabe eta nahasturik aritzen dira lan bila; eta lehen baino luzeago behar izaten dute gurasoen laguntza.
- Azken hamarkadan, behera egin du gazteen jarduera-tasak. 2006. urtera arte okupazio-tasak gora egin arren, urte horretatik aurrera gainbehera egin du etenik gabe.
- Gazteen langabezia-tasak gora egin du nabarmen, eta herritar guztien langabezia-tasa baino handiago izaten jarraitzen du.
- Lanetako asko ezegonkor eta aldi baterakoak dira. Emakume gazteek dituzte era horretako kontratu gehien.
- Laneko ezbeharren tasa oso handia da gazteen artean. Gizonezko gazteek dituzte laneko ezbehar gehien; emakumezko gazteek baino lau aldiz gehiago.
- Gazte gutxik autoenpleguaren alde egin badu ere, buruan dute askok aukera hori.

Beharrak

Enplegurako prestakuntza

1. Lanean jarraitzea gazteek Lanbide Heziketaz duten iritzia hobetzeko eta, ondorioz, era horretako ikasketetan gazte gehiago matrikula daitezen.
2. Gazteak lan-munduan sartzeko bidea hobetzen jarraitzea.
3. Prestakuntza-sistemaren eta lan-merkatuaren arteko koordinazioa sustatzea edota hobetzea.

Enplegua eta ekintzailtza

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

4. Gazteen langabezia-tasa murriztea, batez ere gazteenena.
5. Lan-mundura sartzeko bideen eraginkortasuna hobetzea, batez ere, enplegu-zerbitzu publikoena.
6. Gazteen eta, batez ere, emakume gazteenen enplegu-baldintzen kalitatea hobetzea (soldata, egonkortasuna, bateratzeko aukera, eta abar).
7. Gazteen lan-ezbeharren kopurua murriztea.
8. Ekintzailtza bultzatzea, lana aurkitzeko eta ogibidean aurrera egiteko bide gisa.

2. Enpleguaren alorrean III Gazte Planak izango dituen lehentasunezko eginkizunak

Lan-arloa da ogibidea, kategoria profesionala, diru-sarrerak, denboraren egituraketa, garapen pertsonala eta, oro har, pertsonen gizarte-bizitza egituratzen duten elementu nagusietako bat. Hori horrela izanik, lan-arloko politikaren xede izango dira:

- Gazteek lan-merkatuan sartzeko dituzten aukerak hobetzea eta hasierako gizarte-desberdintasunen eragina murriztea.
- Gazteen lan-baldintzak eta lanaren kalitatea hobetzea.
- Lotzea, batetik, lanerako prestakuntza nahiz lan-merkatuan txertatzea eta, bestetik, lan-merkatuaren baldintzak nahiz ekoizpen-ereduaren egitura.
- Ekintzailtza sustatzea, lana aurkitzeko eta lanean aritzeko gazteek dituzten aukerak hobetzeko asmoz.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa bultzatzea, genero-ikuspegitik eta emakumeen laneratzea sustatzea, horien presentzia urria den sektoreetan.

Horrela, xede horiek betetzeko eta arestian aipatutako beharretatik lehentasunezko direnei erantzuteko asmoz, ondoko jarduera hauek gauzatuko dira enpleguaren arloan:

Enplegurako prestakuntza

1. Etenik gabeko prestakuntza eta bizitza osoan barrenako ikaskuntza sustatzea, gaikuntza eta lanean aritzeko aukerak hobetzeko asmoz.
2. Prestakuntza-eremuaren eta lan-merkatuaren arteko harremana nahiz lotura sustatzea. Horrela, prestakuntza lan-aukerei egokitzearen bidez, gazteen enplegarritasuna hobetuko da.

Enplegua eta ekintzailtza

3. Politika koordinatua sustatzearen bidez, gazteak lan-munduan txertatzeko prozesua hobetzea. Hainbat helburu izango ditu politika horrek: gazteentzako

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

enplegua sortzea eta hura mantentzea; gazteak lan-munduan txertatzeko zerbitzuak hobetzea; ekintza positiboaren neurriak martxan jartzea; eta erakundeetako hainbat maila parte har dezatela lortzea.

4. Politika koordinatu baten bidez ekintzailtza sustatzea. Politika horrek bide emango du, batetik, ekintzaile izateko gaitasuna gazte-gazteekin lantzeko eta, bestetik, gazteen autoenplegu-ekimenak babestea xede duten ekintzak martxan jartzeko.

3. Enpleguaren alorreko III. Gazte Planeko helburu estrategikoak eta esku-hartzeko ildoak

Enplegurako prestakuntza

1. **Etenik gabeko prestakuntza eta bititza osoan barrenako ikaskuntza** sustatzea.

- Lanean ari diren gazteek gaitasun profesionalak izan ditzatela sustatzea.
- Gazteei sentiaraztea bititza osoan barrenako ikaskuntzaren eta prestakuntzaren beharra.

2. **Prestakuntza-eremuaren eta lan-merkatuaren** arteko lotura indartzea, gazteek jasotako prestakuntza enplegu-aukeretara ahalik eta ondoen egokitzen dela bermatzeko asmoz.

- Gazteak lan-merkatuan sartzeko estrategia den aldetik eta gazteen lan-ibilbideak garatzeko tresna denetik, prestakuntza espezifikoko garrantzia azpimarratzea.
- Lanean hasi aurretik, gazteek lanbide-prestakuntza eta lan-esperientzia izan dezatela ahalbidetzea, ikasitako jakintza teorikoak erabiltzen ikas dezaten.
- Lan-merkatuan sartzeko beharrezkoak diren trebetasunez janztea unibertsitateko ikasleak.
- Ikaskuntza arautuan nahiz arautua ez den ikaskuntzan ari diren ikasleei aukerako beste bide bat eskaintzea aisialdiaren eta sormenaren alorrean.
- Lan-merkatuaren egiazko beharretara egokitzea prestakuntza-eskaintza.
- Ikastetxeetan, prestakuntza-ibilbideak aukeratzen edota lanean hasi nahi duten gazteei aholkuak ematea, lan-merkatuari buruzko informazioa eskainiz (enplegarritasuna eta ordainsariak).
- Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko sistemaren eta enpresen arteko komunikazio-, koordinazio- nahiz lan-mekanismoak hobetzea edota horiek sortzea.
- Prestakuntza edo titulazio berriak sortzea, jakintzaren gizarterako bidean nahiz ekoizpen-eredu berrirako bidean aurrera egiteko.
- Hezkuntza-eskaintza hobetzea eta malgutzera, prestakuntza-eremuaren eta gizarte ingurunearen arteko harremana handitzearen bidez –lan-merkatu bideratutako prestakuntzaz ari gara, bereziki–.

Enplegua eta ekintzailtza

3. Enplegua sortzea, mantentzea eta haren **kalitateari** eustea xede duen politika koordinatua sustatzearen bidez, gazteak **lanean txertatzeko** prozesua hobetzea. Arreta berezia emango zaie diskriminazio anitza pairatzeko balizko egoeran daudenei.

- Gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan diren gazteei lan-munduan txertatzen laguntzea.
- Enplegu-politikei buruz informazioa, orientabidea eta laguntza ematea gazteei.
- Gazteentzako enplegua sortzea eta mantentzea xede izango duen politika koordinatu bat sustatzea. Aipatutako xedea lortuko da, batetik, ekintza positibozko neurriak ezartzearen bidez eta, bestetik, kontratazio gaitan enpresaren konpromisoa sustatuko duten zerga-abantailak aplikatzearen bidez.
- Gazteak lehen sektorean txerta eta gera daitezela bultzatzea, belaunaldi txandakatzea sustatzearen bidez.
- Tokian tokiko korporazioek enplegua sortzeko programetan lehen baino gehiago parte har dezatela lortzea.
- Gazteen enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna hobetzeko asmoz elkarhartze soziala sustatzea eta, hori egitean, emakume zein gizonen arteko aldea murriztea.
- Gazteen lan-ezbeharren kopurua murriztea.

4. **Ekintzailetza suspertzea**, ekintzaile izateko gaitasunak gazte-gaztetatik landuko dituen politika koordinatuaren bidez.

- Pertsona gazteengan piztea eta sustatzea berritzaile eta ekintzaile izateko grina.
- Gazteei nork bere lana sortzen eta kooperatibismoaren edo beste formula batzuen bidez gazteek zuzendutako enpresak sortzen laguntzeko politika koordinatua garatzea.
- Nekazaritzaren sektorean sartzeko asmoa duten gazteak prestatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p><u>Enplegurako prestakuntza</u></p> <p>.-Lanean jarraitzea Lanbide Heziketaz gazteek duten iritzia hobetzeko eta, ondorioz, era horretako ikasketetan gazte gehiago matrikula daitezzen.</p> <p>.-Gazteen lan-munduratzeko hobetzen jarraitzea.</p> <p>.-Prestakuntza-sistemaren eta lan-merkatuaren arteko koordinazioa sustatzea edota hobetzea.</p> <p><u>Enplegua eta ekintzailtza</u></p> <p>.-Gazteen langabezia-tasa murriztea, batez ere gazteenena.</p> <p>.-Lan-munduan txertatzeko bideen eraginkortasuna hobetzea, batez ere, enplegu-zerbitzu publikoena.</p> <p>.-Gazteen eta, batez ere, emakume gazteen enplegu-baldintzen kalitatea hobetzea (soldata, egonkortasuna, bateratzeko aukera, eta abar).</p> <p>.-Gazteen lan-ezbeharren kopurua murriztea.</p> <p>.-Ekintzailtza bultzatzea, lana aurkitzeko eta ogibidean aurrera egiteko bide gisa.</p>	<p><u>Enplegurako prestakuntza</u></p> <p>.-Etenik gabeko prestakuntza eta bitzitza osoan barrenako ikaskuntza sustatzea, gaikuntza eta lanean aritzeko aukerak hobetzeko asmoz.</p> <p>.-Prestakuntza-eremuaren eta lan-merkatuaren arteko harremana nahiz lotura sustatzea. Horrela, lan-aukerei prestakuntza egokitzearen bidez, gazteen enplegarritasuna hobetuko da.</p> <p>.-Lanerako prestakuntza eta orientazioa bultzatzea, genero-ikuspegitik eta emakumeen laneratzea sustatzea, horien presentzia urria den sektoreetan.</p> <p><u>Enplegua eta ekintzailtza</u></p> <p>.-Politika koordinatua sustatzearen bidez, gazteak lan-munduan txertatzeko prozesua hobetzea. Hainbat helburu izango ditu politika horrek: gazteentzako enplegua sortzea eta hura mantentzea; gazteak lan-munduan txertatzeko zerbitzuak hobetzea; ekintza positiboaren neurriak martxan jartzea; eta erakundeetako hainbat maila parte har dezatela lortzea. Arreta berezia emango zaie diskriminazio anitza pairatzeko balizko egoeran daudenei.</p> <p>.-Politika koordinatu baten bidez ekintzailtza sustatzea. Politika horrek bide emango du ekintzaile izateko gaitasuna gazte-gazteekin lantzeko eta</p>	<p><u>Enplegurako prestakuntza</u></p> <p>1.- Etenik gabeko prestakuntza eta bitzitza osoan barrenako ikaskuntza sustatzea.</p> <p>2.- Prestakuntza-eremuaren eta lan-merkatuaren arteko lotura indartzea, gazteek jasotako prestakuntza enplegu-aukeretara ahalik eta ondoen egokitzen dela bermatzeko asmoz.</p> <p><u>Enplegua eta ekintzailtza</u></p> <p>3.- Enplegua sortzea, mantentzea eta haren kalitateari eustea xede duen politika koordinatua sustatzearen bidez,</p>	<p><u>Enplegurako prestakuntza</u></p> <p>1.1.- Lanean ari diren gazteek gaitasun profesionalak izan ditzatela sustatzea.</p> <p>1.2.- Gazteei sentiaraztea bitzitza osoan barrenako ikaskuntzaren eta prestakuntzaren beharra.</p> <p>2.1.- Gazteak lan-merkatuan sartzeko estrategia den aldetik eta gazteen lan-ibilbideak garatzeko tresna denetik, prestakuntza espezifikokoaren garrantzia azpimarratzea.</p> <p>2.2.- Lanean hasi aurretik, gazteek lanbide-prestakuntza eta lan-esperientzia izan dezatela ahalbidetzea, ikasitako jakintza teorikoak erabiltzen ikas dezaten.</p> <p>2.3.- Lan-merkatuan sartzeko beharrezkoak diren trebetasunetz janztea unibertsitateko ikasleak.</p> <p>2.4.- Ikaskuntza arautuan nahiz arautua ez den ikaskuntzan ari diren ikasleei aukerako beste bide bat eskaintzea aisialdiaren eta sormenaren alorrean.</p> <p>2.5.- Lan-merkatuaren egiazko beharretara egokitzea prestakuntza-eskaintza.</p> <p>2.6.- Ikastetxeetan, prestakuntza-ibilbideak aukeratzen edota lanean hasi nahi duten gazteei aholkuak ematea, lan-merkatuari buruzko informazioa eskainiz (enplegarritasuna eta ordainsariak).</p> <p>2.7.- Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko sistemaren eta enpresen arteko komunikazio-, koordinazio- nahiz lan-mekanismoak hobetzea edota horiek sortzea.</p> <p>2.8.- Prestakuntza edo titulazio berriak sortzea, jakintzaren gizarterako bidean nahiz ekoizpen-eredu berrirako bidean aurrera egiteko.</p> <p>2.9.- Hezkuntza-eskaintza hobetzea eta malgutzea, prestakuntza-eremuaren eta gizarte ingurunearen arteko harremana handitzearen bidez –lan-merkatu bideratutako prestakuntzaz ari gara, bereziki–.</p> <p><u>Enplegua eta ekintzailtza</u></p> <p>3.1.- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan diren gazteei lan-munduan txertatzen laguntzea.</p>

1. ARDATZA: EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

3. AREA: ETXEBIZITZA

Gazteen bizi-prozesuak aldatzen ari badira ere, lan-munduratzera eta familiako enbaxetetik joatea dira, oraindik ere, gaztarotik heldutasunera igartzeko pausorik garrantzitsuenak.

Horregatik, etxebizitza lortzeak garrantzi handia izan behar du gazteen emantzipazioari buruzko politika publikoetan.

1. Abiapuntua: auziaren egoera.

Nagusiki, "Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoa. 2009ko abendua. Datu nagusien sintesia" izeneko txostenetik hartu ditugu atal hau idazteko datuak. Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen txosten hori 2009an, eta Behatokiaren⁴⁶ web-orrian dago eskuragarri. III. Gazte Planerako oinarri moduan egin zen mintzagai dugun diagnostikoa, eta hartaz baliatu dira III. Gazte Plana diseinatu duten teknikariak. Atal honetan, badira lehen aipatutako diagnostiko horretatik hartu ez ditugun zenbait datu. Horiek erabiltzean, datua nondik hartu dugun adieraziko dugu eranskinean. Gerta daiteke, baita ere, diagnostiko horretan jasotakoak baino berriagoak izatea zenbait datu. Horrelakoetan ere, datu berrien iturria zein den adieraziko dugu eranskinean.

Orain, gatozen harira. 2008. urteko datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %19,1 besterik ez zen bizi bere kabuz; gazteen %78,5, berriz, familiakoekin bizi zen. Hala ere, aipatu beharra dago etxetik kanpo bizi diren gazteen ehunekoak gora egin duela 2004. urtetik. Datuen arabera, alde handia dago sexuen artean: emakumeen emantzipazio-tasa (%22) handiagoa da mutilena baino (%16,3). Sexuak ez ezik, adinak ere badu bere eragina familiakoekin etxea uzteko orduan. Pertsonak zenbat eta zaharrago izan, orduan eta handiagoa da beren kabuz bizi direnen ehunekoa. Horrela, **emantzipatu** egin dira 15 eta 19 urte bitarteko pertsonetatik ia bat ere ez; 20 eta 24 urte bitartekoekin %14,1; eta 25 eta 29 urte bitartekoekin %40,8. Estatuan, ordea, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %28,7 bere kabuz bizi zen 2009an⁴⁷.

OBJOVIren arabera⁴⁸, %44,1ekoa izan zen 18 eta 34 urte bitartekoekin **emantzipazio-tasa** 2010eko bigarren hiruhilekoan. 2002an, Gurasoen etxetik kanpo bizi zen 30 eta 34 urte bitartekoekin %61,6. Adin-tarte horretan, gazteen %71,6 emantzipatuta zegoen 2010eko bigarren hiruhilekoan. Zortzi urte horietan, beraz, ehuneko hamar egin du gora aldagai horrek. Aipatu beharra dago, baita ere, gizonezkoena baino zertxobait handiagoa dela emakumeen emantzipazio-tasa.

Kontuan izan beharko genuke, alabaina, hazkunde ekonomikoaren garaian gertatu dela emantzipazio-tasaren gorakada hori. Gora egin du, batez ere, langabezia-tasa txikia izan zelako urte horietan, eta finantza-erakundeek erraztasunez eman zituztelako hipoteka-maileguak. Aipatutakoez gain, beste bi faktorek eragin dute hizpide dugun tasaren hazkundera: batetik, herritar gazteen "zahartzea" eta, bestetik, emantzipatutako atzerritar gazte asko etorri izana. Egun krisialdi ekonomikoan gaudenez, gazteen emantzipazio-tasak **heldu diren urteetan** behera egingo duela iragar dezakegu.

Azken urteotan, bestalde, **elkarrekin bizitzeko modu berriak** sortu dira. Gazte gehienak bikotekidearekin bizitzen joan ohi dira, eta gero eta gazte gehiagok egiten du lagunekin, pisu-kideekin edo bakarrik bizitzearen alde.

Etxebizitza lortzea arazo handitzat dute gazte askok. Bestalde, EAeko 30 urtetik beherako **gazteen hirutik ia bik emantzipatu nahi du** eta familiakoen etxetik kanpo bizi. Aipatu beharra dago, alabaina, 2004. urtetik hona behera egin duela emantzipatu nahi duten gazteen kopuruak; familiakoen etxean bizitzen jarraitu nahi duten gazteenak, berriz, gora egin du –gazteen hamarretik ia hiruk nahiago du familiakoen etxean bizitzen jarraitu–.

Gazteek etxebizitza lortzeko dituzten zailtasunik handienak, hurrenez hurren, ondoko hauek dira: **etxebizitzaren prezio handia**; jatorrizko familiarekin bizitzearen erosotasuna; eta berezko diru-sarrerarik ez edukitzea.

Emantzipatzeko gazteek izan ditzaketen arazoak bazter, bistan da etxebizitzaren kostua zailtasun objektiboa dela. Espainiako Etxebizitzen Behatoki Gaztearen (OBJOVI) arabera⁴⁹, etxebizitza jabetzan izateko **batez besteko kostua %66koa** izan zen **2010eko bigarren hiruhilekoan**. 35 urtetik beherako pertsonen batez besteko diru-sarreraren %100 baino handiagoa izan zen kostu hori 2008an. Generoen arteko aldeei dagokienez, emakume gazteek diru-sarrera txikiagoak zituzten gizonezko gazteek baino eta, ondorioz, okerragoa zen haien egoera.

Bestetik, 2009ko ekainera arte **Etxebide erregistroan aurkeztutako etxebizitza-eskaerei dagokienez**, 35 urtetik beherako titularra zuen eskaera guzti horien %50,6k (hots, 50.130 eskaerek).

Badira, baita ere, eskaeren titular izan ez arren Etxebiden inskribaturik egon eta etxebizitza eskatzen duten 35 urtetik beherako zenbait gazte. Guztira, 35 urtetik beherako 71.861 gaztek eman dute izena Etxebiden. Hortaz, erakunde horretan erregistratutako pertsona guztien %60,9k 35 urte baino gutxiago ditu. Etxebizitza eskatzen duten pertsona horien hamarretik ia bederatzik 25 urte baino gehiago du.

Bestetik, beren kasa bizi diren gazteek **nahiago dute etxebizitzaren jabe izan hura errentan hartzea baino**. Gurasoen etxetik kanpo bizi diren 30 urtetik beherako pertsonen ia bi herenak etxebizitza erostea erabaki du; %27,5ek, aldiz, etxebizitza

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

alokatzearen alde egin du. Etxebizitza erosi dutenen lautik hiruk ez du oraindik hura ordaindu.

Etxebizitza lortzeko eredu horretan, merkatua da etxebizitza-hornitzaile nagusia. Hortaz, zorpetze-gaitasunaren eta kaudimen ekonomikoaren mende izango dira gazteak etxebizitza lortzeko orduan. Mintzagai dugun ereduan, aukeran, etxebizitza erostea nahiago dute gazteek. Etxebizitza erosi nahi ez dutenek, **alokairuaren alde egiten dute**, finantza-erakundeek menpekotasun gutxiago sortzen baitu erosteak baino.

Gazteek etxebizitza erostea nahiago badute ere, alokairuaren aldeko joerak gora egin du azken urteotan: 829 etxebizitza zeuden alokaturik 2001ean; 2010eko azken hiruhilekoan, berriz. 2.568⁵⁰. Etxeak alokairuan hartzeko prozesua suspertzen saiatu dira herri administrazioak. Horretarako, alokairuagatiko kenkari fiskalari buruzko politikez baliatu dira, baita hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeari buruzkoez eta babes ofizialeko alokairuko etxebizitzari buruzko politikez ere.

Ondorioak

- Euskadiko gazteen emantzipazio-tasak azken urteotan gora egin badu ere, jatorrizko familiarekin bizitzen jarraitzen dute gehienek.
- Gazte gehienek emantzipatu nahi dute, baina etxebizitzaren prezioak galarazten die pauso hori ematea.
- Etxebiden etxebizitza eskatu duten pertsona guztien %61 gazteak dira. Gainera, gehiago dira etxebizitza jabetzan hartu nahi dutenak hura alokairuan hartu nahi dutenak baino.
- Etxebizitzaren erosketa sustatzeko politikek arrakasta handia izan dute herritarren artean.
- Azken urteotan aldatu egin dira gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduak eta, horren eraginez, elkarrekin bizitzeko modu berriak sortu dira.
- Krisialdi ekonomikoan gaudenez, litekeena da gazteek etxebizitza lortzeko zailtasunak izatea datozen urteotan.

Beharrak

Etxebizitzaren auziaren egoera azterturik, ondoko hauek egin behar direla hauteman dugu:

1. Emantzipazio-tasa handitzea eta emantzipatzeko adina aurreratzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

2. Erantzun are handiagoa eta hobea ematea Etxebiden izena eman duten gazteetatik babespeko etxea eskatu dutenei.
3. Alokairua sustatzearen bidez gazteei etxebizitza lortzen laguntzea.
4. Gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduak zaintzea, etxebizitza lortzeko bide are malguagoak jartzearen bidez.

2. III. Gazte Planaren Etxebizitza alorreko lehentasunezko eginkizunak

Etxebizitza ez da kontsumoko gai bat edo inbertsio bat, eskubidea baizik. Horrez gain, gazteen ongizatea eta gazteek beren bizi-proiektuak gauzatzeko bide ematen duten politikak garatu behar dira. Horregatik guztiagatik, alokairuaren aldeko apustua lehenesten dugu, eta eginkizun hauek lehentasuna izango dute:

1. Gazteei etxebizitza lortzen laguntzeko politikak sustatzea. Horretarako, eskuratzeko moduko prezioa duen eskaintza koordinatua sortu beharko du Administrazioak, bidenabar, nahikoa etxebizitza publiko sortuta. Hori egitean, lehentasuna eman behar zaio alokairuari erosketaren aurrean; hutsik dauden etxebizitzak erabili behar dira; eta laguntza sustatu.
2. Gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduen dibertsifikazioa zaintzea. Etxebizitzak erabiltzeko eta horiek jabetzan izateko modu eta eredu are malguago eta berriagoak erabili behar dira, etxebizitzaren merkatua are malguagoa izan dadin eta merkatu hori familia-egituren, lurralde-mugikortasunaren, eta gizartearen beste aldaketa batzuetara egokitzeko.

3. III. Gazte Planaren Etxebizitza alorreko helburu estrategikoak eta esku-hartzeko ildoak

1. Nagusiki zailtasun ekonomikoak dituzten gazteek etxebizitza lortzeko dituzten aukerak hobetzea, **etxebizitzaren eskaintza handitzearen eta alokairua lehenestearen bidez**.
 - Nahikoa etxebizitza publiko edukitzea.
 - Hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeko. Hutsik dauden etxebizitzetako aukera emango zaie babespeko alokairuaren merkatuan sartzeko. Etxebide Zerbitzuan izena eman dutenek –nagusiki zailtasun ekonomikoak dituzten gazteek– erabiliko dituzte etxebizitza horiek.
 - Hutsik dauden etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea. Hutsik dauden etxebizitzetako aukera emango zaie babespeko alokairuaren merkatuan sartzeko. Etxebide Zerbitzuan izena eman dutenek –nagusiki zailtasun ekonomikoak dituzten gazteek, bereziki– erabiliko dituzte etxebizitza horiek.
 - Gazteei informazioa, orientabideak eta laguntza eskaintzea etxebizitza lortzeko neurri publikoen eskaintzari buruz.
 - Bitartekaritza-zerbitzua sustatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

2. Etxebizitza-eredu berrien garapena sustatzea, elkarren desberdinak diren gazteen beharrak asetzeko.
 - Alokairu babestuko etxebizitzaren eraikuntza sustatzea. Horien eraikuntza-ezaugarriak eta araubide ekonomikoa emantzipatu nahi duten gazteen beharretara egokituko dira, bereziki.
 - Etxebizitza Sailak babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko abiarazi duen mekanismoa gazteek ezagutzea eta erabiltzea sustatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p>1.- Emantzipazio-tasa handitzea eta emantzipatzeko adina aurreratzea.</p> <p>2.- Erantzun are handiagoa eta hobe ematea Etxebiden babespeko etxea eskatu duten gazteei.</p> <p>3.- Alokairua sustatzearen bidez gazteei etxebizitza lortzen laguntzea.</p> <p>4.- Gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduak zaintzea, etxebizitza lortzeko bide are malguagoak jartzearen bidez.</p>	<p>1.- Gazteei etxebizitza lortzen laguntzeko politikak sustatzea. Horretarako, eskuratzeko moduko prezioa duen eskaintza koordinatua sortu beharko du Administrazioak, bidenabar, nahikoa etxebizitza publiko sortuta. Hori egitean, lehentasuna eman behar zaio alokairuari erosketaren aurrean; hutsik dauden etxebizitzak erabili behar dira; eta laguntza sustatu.</p> <p>2.- Gaztarotik heldutasunera igarotzeko moduen dibertsifikazioa zaintzea. Etxebizitzak erabiltzeko eta horiek jabetzan izateko modu eta eredu are malguago eta berriagoak erabili behar dira, etxebizitzaren merkatua are malguago izan dadin eta merkatu hori familia-egituren, lurralde-mugikortasunaren, eta gizartearen beste aldaketa batzuetara egokitzeko.</p>	<p>1.- Nagusiki zailtasun ekonomikoak dituzten gazteek etxebizitza lortzeko dituzten aukerak hobetzea, etxebizitzaren eskaintza handitzearen eta alokairua lehenestearen bidez.</p> <p>2.- Etxebizitza-eredu berrien garapena sustatzea, elkarren desberdinak diren gazteen beharrak asetzeko.</p>	<p>1.1.- Nahikoa etxebizitza publiko edukitzea.</p> <p>1.2.- Hutsik dauden etxebizitzak erabiltzearaztea. Hutsik dauden etxebizitzetara aukera emango zaie babespeko alokairuaren merkatuan sartzeko. Etxebide Zerbitzuan izena eman dutenek –nagusiki zailtasun ekonomikoak dituzten gazteek– erabiliko dituzte etxebizitza horiek.</p> <p>1.3.- Hutsik dauden etxebizitzak eta eraikinak birgaitzea. Hutsik dauden etxebizitzetara aukera emango zaie babespeko alokairuaren merkatuan sartzeko. Etxebide Zerbitzuan izena eman dutenek –gazteek bereziki– erabiliko dituzte etxebizitza horiek.</p> <p>1.4.- Gazteei informazioa, orientabideak eta laguntza eskaintzea etxebizitza lortzeko neurri publikoen eskaintzari buruz.</p> <p>1.5.- Bitartekaritza-zerbitzua sustatzea.</p> <p>2.1.- Alokairu babestuko etxebizitzaren eraikuntza sustatzea. Horien eraikuntza-ezaugarriak eta araubide ekonomikoa emantzipatu nahi duten gazteen beharretara egokituko dira, bereziki.</p> <p>2.2.- Etxebizitza Sailak babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko abiarazi duen mekanismoa gazteek ezagutzea eta erabiltzea sustatzea.</p>

2. ARDATZA: BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

4. AREA: OSASUNA

Atal honetan, ikuspegi biomediko hutsetik haragoko beste bat hartuko dugu oinarri: osasunari buruzko OMEren definizioa. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, buru-ongizate, gizarte-ongizate eta ongizate fisiko betearen egoera da osasuna; ez, soilik, gaitzik edota gaixotasunik eza.

Osasuna osotara hartzen badugu, ohiturak eta jokabideak izan beharko dira osasun-politiken zutabe nagusi. Hortaz, osasun-politiken bidez jokabide arriskutsuak prebenitu beharko dira, eta ohitura osasungarriak sustatu.

Osasun fisiko eta psikikoak, bestetik, eragin handia du hezkuntzako, laneko eta ingurunearekin harremanean egoteko gazteek dituzten aukeren gain. Horregatik, gazteen osasun fisikoaren eta psikikoaren egoerak berealdiko garrantzia du.

1. Abiapuntua: auziaren egoera.

Atal hau idazteko datu gehienak "Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoa. 2009ko abendua. Datu nagusien sintesia" izeneko txostenetik hartu ditugu⁵¹. Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen txosten hori 2009an, eta Behatokiaren web-orrian dago eskuragarri. III. Gazte Planerako oinarri moduan egin zen mintzagai dugun diagnostikoa, eta hartaz baliatu dira III. Gazte Plana diseinatu duten teknikariak. Atal honetan, badira lehen aipatutako diagnostiko horretatik hartu ez ditugun zenbait datu. Horiek agertzean, datua nondik hartu dugun adieraziko dugu eranskinean. Gerta daiteke, baita ere, diagnostiko horretan jasotakoak baino berriagoak izatea zenbait datu. Hala bada, datu berrien iturria ere eranskinean zehaztuko dugu.

Gatozen harira. Oro har, EAEko gazteak osasuntsu direla esan dezakegu. Hala ere, hainbat ohar egin behar ditugu osasunaz gazteek duten nozioari buruz eta bakoitzak osasunaz duen irudiari buruz.

Osasunaren arloan, **alde handia dago gizon eta emakumeen artean**. Horrela, *Osasuna eta gazteak*⁵² izeneko azterlan kualitatiboaren analisiaren arabera, **osasunari buruz** neskek duten **ideia** eta mutilek dutena elkarren oso desberdinak dira. Emakumezkoek, esaterako, "ondo sentitzearekin" lotzen dute osasuntsu egotea. Irudi horren barruan sartzen dira, besteak beste, alderdi fisikoak, psikologikoak eta emozionalak. Emakumezkoentzat, hortaz, harremanen dimentsioak garrantzi handia duela esan

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

genezake. Gizonezkoek, aldiz, "ondo egotearekin", hau da, ongizate fisikoarekin lotzen dute osasuna.

Gizon eta emakumeek, hortaz, pertzepzio desberdina dute osasunari buruz. Neskek, hortaz, osasunez okerrago dauden ustea dute mutilek baino. Horrela, mutil baino neska gehiagok adierazi du depresioa, antsietatea edota elikadura-jokabidearen nahastea duela. Mutilek, ordea, "mugatzat" dute gaixotasuna. Hortaz, eguneroko beren jardunean mugarik ez duten bitartean, osasuntsu diren ustea dute, nahiz eta "ohitura txarrak" izan.

Azterlan horren arabera, halaber, **osasuntsu direla uste** dute gazteek. Gazteen %86,9k osasunez ondo edota bikain dabilela uste du; %55ek, aldiz, sasoi onean edo oso onean dela deritzo. Aldagai honetan, ez da alde handirik sexuen artean; bai, ordea, klase sozioekonomiko desberdinetako gazteen artean. Helduekin gertatu bezalaxe, klase aberatsetako gazteek osasun hobea izatearen ustea dute klase txiroetako gazteek baino.

Nabarmendu beharra dago, baita ere, gazteek **garrantzi handia ematen diotela osasunari**, hainbesteko garrantzia eman ere non haien lehentasun pertsonal nagusia baita. Haren ondotik leudeke, besteak beste, familia, adiskidetasuna, maitasuna eta aisialdia.

EAEko gazteek, bestetik, herritar guztiek baino gutxiago erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak.

Medikuntza orokorreko kontsultara, dentistaren kontsultara eta traumatologoaren kontsultara doaz, gehienbat, mutiko gazteak. Neskatikoak ere medikuntza orokorreko kontsultara eta dentistarenera joaten dira gehien baina, mutikoak ez bezala, gehien bisitatzen dituzten kontsultetatik hirugarrena ginekologoarena da.

BURU-OSASUNA

Datu kuantitatiboak ematen hasi aurretik, ohartarazi behar dugu gazteen **buru-osasunaren**⁵³ egoerari buruz hitz egitea zaila dela; adin horretan zailak baitira bereizten psikopatologiak eta bizi-zikloari lotutako ondoeza xumeak. Azken urteotan, gora egin du antsietatea edota depresioa duten gazteen kopuruak; eta dibertsifikatu egin dira buru-osasun txarra eragin dezaketen zioak.

Mintzagai dugun aldagaian, bestetik, alde handia dago sexuen eta gizarte-klaseen artean. Datuen arabera, 16 eta 24 urte bitarteko herritarren %11,6k depresio edota antsietatearen sintomak ditu. Adin-tarte horretan, emakumezkoek dute sintomarik gehien –gizonezkoen bikoitza–. Hizpide ditugun sintomen kopurua, edonola ere, zertxobait txikiagoa da gizon gazteen, emakume gazteen, eta herritar gazte guztien taldean herritar guztien multzoan baino.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Herritar guztietatik gizarte-talde sozioekonomikorik txiroenetan izaten dira antsietate edota depresio-sintomarik gehien. Gazteen multzoan, berriz, gizartearen goi-sektoreetan eta erdiko sektoreetatik goikoetan hauteman dira depresio edota antsietatearen sintoma gehien.

Badira, bestetik, gazteen oraingo nahiz etorkizuneko osasun-baldintzen gain eragina duten zenbait jokabide-ohitura:

JARDUERA FISIKOA

Aktibili – Jarduera Fisikoaren Euskal Planean^a hainbat gomendio jasota dago jarduera fisikoa egiteko eta egoneko jokaerak murrizteko: jarduera fisiko aerobiko neurritzko edo bizia egitea egunean 60 minutuz, 6 eta 18 urte bitarteko biztanleek; 150 minutu astean, 18 urtetik gorakoek. Bestetik, aisialdian, pantailen aurrean (telebista, Internet, egoneko bideojokoak...) egunean 2 orduz baino luzaragoan ez egotea gomendatzen da, bai eta egoneko jokaerei (eserita egotea) eskaintzen zaien denbora murriztea ere.

2007ko EAEko Osasun Inkestaren datuek^b adierazten dutenez, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen %48,7 inaktiboak dira aisialdian. Alde nabariak daude gizonen eta emakumeen artean (%39 eta %58, hurrenez hurren).

Kirolari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2008an egindako Kirol Ohiturei buruzko Inkestan^c, alde nabaria zegoen genero-aldagaia aintzat harturik: ez dute batere kirolik egiten mutilen %33,7k eta nesken %57,4k.

Gipuzkoako 18 eta 39 urte bitarteko 178 gazteren ohiturei buruzko ikerketa baten arabera^d, egunean 2 ordu eta erdi ematen dituzte telebistaren aurrean aste barruan, batez beste, eta 4 ordu asteburuetan.

Gazteen jarduera fisikoaren mailan eragina duten beste faktore batzuk ere antzeman dira^e: zenbat eta gizarte- eta ekonomia-maila garaiagoa izan pertsona batek, hainbat eta aukera gehiago izango du jarduera fisikoan aritzeko. Familia osatzeak, seme-alabak izateak edo gurasoengandik emantzipatzeak ere badu, antza denez, inaktibitatea eragiteko nolabaiteko gaitasuna. Hezkuntza-zikloaren arabera ere badago alderik: unibertsitateko ikasketetan dabiltzanek jarduera fisiko gutxiago egiten dute Batxilergoko ikasleek baino.

JATEKO OHITURAK

Bada beste alderdi bat osasunarekin lotura duena: **elikadura**. Horrela, jatearekin lotura duten eta osasuna hobetzen edota zaintzen laguntzen duten ohituren edota jokabideen multzoa elikadura osasungarritzat hartuko dugu.

Badira, bidenabar, jateko jokabide osasungarrien gain eragina duten egiturazko zenbait alderdi, hala familia-ingurunea nola inguruan ditugun elikagaien ezaugarriak. Azpimarratu beharra dago, baita ere, hedabideek eragin handia dutela gazteen jateko

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

ohituren eta jokabideen gain. Are gehiago, beste eragile edo faktoreen eragina ere baldintza dezakete hedabideek.

Jateko ohituren arazorik larrienetako bat elikatze-jokabidearen nahasteak dira – anorexia eta bulimia, bereziki–. Emakumezkoek dituzte era horretako gaixotasunik gehien, elikatze-jokabidearen nahasteak dituzten pertsonen %90 emakumezko baita.

Arazo horren arrazoietakoa bat izan daiteke, esaterako, garai batetik hona gertatzen ari diren aldaketa sozioekonomiko nahiz kultural sakon eta azkarrak. Sortutako eredu "idealaren" mesedean, genero-ereduak, kanon estetikoak, irudia nahiz gorputza zaintzeko moduak aldatu egin dira baita, horiekin batera, elikatze-jokabideak ere. Nerabeen gain eragin handia dute aldaketa horiek, adin horretan fisikoki, psikologikoki eta sozialki aldatzen baitira pertsonak.

Elikadurari eta jarduera fisikoari atzera helduz, gorputz-masaren indizearen arabera, gizenegi dago EAEko gazteen %3,9. Halaxe ekarri du, bederen, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailak osasunari buruz 2007an egindako inkestak. Gizenegi dauden gazteen kopuruak, bidenabar, gora egin du 2002. urtetik (%2,2) 2007. urtera (%3,9).

ALKOHOLAREN, TABAKOAREN ETA LEGEZ KANPOKO DROGEN KONTSUMOA⁵⁴

Alkoholaren, tabakoaren, eta legez kanpoko hainbat drogaren –kanabisa, bereziki– kontsumoa aztertuko dugu orain. Aztergai izango ditugu, baita ere, droga-mendekotasuna gainditzeko tratamendua hasi duten gazteak.

Alkoholaren kontsumo-mailari dagokionez, ez da alde handirik EAEko herritar guztien eta gazteen kontsumoaren artean. Hala eta guztiz ere, gazteek alkohola edatea osasun publikoko arazo nagusietako bat da, jarduera horrek lotura handia baitu ausarkeriaz gidatzearekin, indarkeriarekin, sexu-harreman ez seguruekin, eta arriskutsuak diren beste jokabide batzuekin.

Hizpide dugun gaiari buruzko datuen arabera, "arriskurik gabe" edota "arrisku txikiaz" kontsumitzen du astean alkohola gazteen bostetik lau baino gehiagok. Astean barrena, gazteek ez dute ia alkoholik hartzen. Hortik aldagai horren emaitza positiboa. Are gehiago, lanegunetan "gehiegi" edo "era arriskutsuan" alkohola edaten dutenen kopurua askoz txikiagoa da gazteen taldean herritar guztien multzoan baino. Jaiegunetan, berriz, alderantzikatu egiten da aipatu berri dugun joera. Hau da, asteburuetan edaten duten gazteen kopurua (%28,7) bi aldiz handiagoa da herritar guztietatik asteburuetan alkohola hartzen dutenena baino.

Esan beharra dago, edonola ere, asteburuetako alkohol kontsumoak behera egin duela nabarmen 2004. urtetik 2008. urtera; %39,0tik %28,7ra jaitsi baita "gehiagizko" kontsumoaren edota kontsumo "arriskutsuaren" tasa. Litekeena da prebentzio-mezuei, osasun-hezkuntzako askotariko gomendioei eta errealitatea ezagutzeari esker, gazteek

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

alkohola neurri handiagoz kontsumitzearen aldeko giroa zabalduz joatea, azken hamarkadetan helduen artean gertatu den bezala.

Badira, bestetik, alkohola kontsumitzeko besteek baino arrisku handiagoa duten zenbait talde. Alkohola kontsumitzeko arriskuan diren mutilen ehunekoa, esaterako, neskenaren bikoitza da. Era berean, 20 eta 24 urte bitarteko gazteek besteek baino arrisku handiagoa dute alkohola kontsumitzeko.

Azken hamarkadan, bestetik, ia ez da aldatu alkohola edaten hasteko batez besteko adina (15,6 urteetan zen 2008an).

Bestalde, **tabakoaren kontsumoari** dagokionez, 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen %36,7k du erretzeko ohitura. Urteetan gora egin ahala, ordea, gero eta handiagoa da erretzeko ohitura duten gazteen ehunekoa. Horrela, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen %45,6k erretzeko ohitura du. Erretzeko ohitura duten gizonezkoen kopurua, bestetik, emakumezkoena baino %8,3 handiagoa da adin-tarte guztietan.

Nabarmentzekoa da, baita ere, tabakoa erretzeko ohitura duten 25 eta 29 urte bitarteko pertsonen kopuruak –mutilenak, bereziki– gora egin duela nabarmen azken lau urteotan.

2008ko datuen arabera, gazteak, batez beste, 15,9 urterekin hasten dira tabakoa erretzen.

Erretzeko ohitura duten pertsona gehienek gaztaroan ekin diote ohitura horri. Horretxegatik aztertu beharra dago tabakoa erretzeko gazteek duten ohitura. Gazte hasten direnek, gainera, are aukera gehiago dituzte egunean zigarreta asko erretzeko, gaixotasunak eta nahasteak izateko, eta tabakoarekin lotutako gaixotasunen batek jota hiltzeko.

Legez kanpoko drogen kontsumoari dagokionez, nabarmendu beharra dago kanabis-kontsumoarenak izan ezik, gainerako beste adierazle guztiek behera egin dutela 2004. urteaz geroztik. Aztertutako droga guztietan, gainera, mutilen kontsumo-tasak askoz handiagoak izan dira neskenak baino.

2008ko datuen arabera, azken urtebetean kanabisa behin gutxienez hartu izana adierazi zuen gazteen %31k. Gorakada handia izan da, bereziki, egunero kanabisa hartzen duten pertsonen ehunekoan: gazteen % 4,6k erretzen zuen kanabisa egunero 2000. urtean; 2008an, aldiz, %11k. Hizpide dugun substantzia egunero hartzen duten gizonezkoen kopurua (2008. urtean %16,9) askoz handiagoa da neskena baino.

Kanabisaren ondotik –alde handiaz– kokaina eta anfetaminak edo speed-a dira gehien kontsumitzen diren substantziak. Gazteen %6,2k kokaina hartu du azken urtean; eta %2,7k azken hilabetean. Anfetaminen edo speed-aren kasuan, aldiz, gazteen %5,4k hartu du horrelakorik azken urtean; eta %2,5k azken hilabetean.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Gazteak, batez beste, 16,7 urterekin hasten dira kanabisa hartzen. Gainerako substantziak kontsumitzen, berriz, 17,9 eta 19,5 urteren bueltan hasten dira.

Drogen kontsumoaz gain, bada hizpide dugun fenomeno irudikatzen lagun diezagukeena beste datu bat: **droga-menpekotasuna gainditzeko tratamenduari**⁵⁵ ekiten dion gazteen kopurua. Era horretako tratamendua hasten duten gazteen kopuruak behera egin du; 2004. urtean 814 gaztek ekin baitzioten droga-menpekotasuna gainditzeko tratamenduari eta 2008an, aldiz, 743k. Esan beharra dago, baita ere, droga-menpekotasuna gainditzeko tratamenduari 2008an ekin zioten gazteetatik 640 gizonezko zirela eta 103 emakumezko.

Kokainarekiko menpekotasuna gainditzeko asmoz hasi dute tratamendua gazte gehienek (tratamendua hasi duten gazteen hamarretik ia lauk, hots, %39,7k kokaina utzi nahi zuen). Kokainaren ondotik, kanabisa (%27,1), alkohola (%12,5) eta heroina (%10,2) leudeke.

EGOERA AFEKTIBO, SEXUAL ETA UGALTZAILE ONA

Egoera afektibo, sexual eta ugaltzaile onari buruz aritzean, kontuan izan behar dugu sexualitatearekin eta afektibitatearekin lotutako garrantzi handiko aldaketak gertatzen direla gaztaroan: aldaketa biologikoak; ugaltzeko aukera; eta sexu-, afektibitate- nahiz genero-identitatea zehaztea.

EAEko gazte gehienek garrantzi handia ematen diote sexualitateari: sexualitatea oso garrantzitsua dela uste du EAEko gazteen %30ek; %56k, aldiz, nahiko garrantzitsua dela⁵⁶.

Neskek baino garrantzi handiagoa ematen diote sexuari mutilek. Gazteen artean, gainera, (ezkonduta egon ala ez) bikotekidearekin bizi direnek garrantzi handiagoa ematen diote sexualitateari bikotekidearekin bizi ez direnek baino. Zenbat eta zaharrago, bestetik, orduan eta garrantzi handiagoa ematen diote gazteek sexualitateari.

Bestetik, EAEn sexualitateari buruzko ikerketa zehatzik egin ez denez, "Informe de Juventud en España 2008"⁵⁷ txosteneko "La salud de la juventud" azterlanetik hartu ditugu jarraian emango ditugun datuak.

Azterlan horren arabera, sexu-harreman osoak izan ditu Espainiako 18 urteko gazteen hamarretik zortzik; eta 15 eta 17 urte bitartekoen %42k.

15 eta 29 urte bitarteko gizon gazteak 16,5 urterekin hasi ziren sexu-harremanak izaten; neskak, aldiz, 17,2 urterekin. Azken lau urteotan, gainera, behera egin du sexu-harremanak izaten hasteko batez besteko adinak.

Gazteriaren Euskal Behatokiak, bestetik osasunari eta gazteei buruzko azterlana⁵⁸ egin zuen 2006an. Ikerketa-teknika kualitatiboen bidez, gazteen sexu-bizipenak bildu zituen

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

erakunde horrek. Azterlan horren arabera, gazteek gehien ezagutzen eta erabiltzen dituzten antisorgailuak pilula antikonzeptiboa eta preserbatiboak dira.

Gazteek, bidenabar, normaltasun handiz hartzen dute antisorgailu horien erabilera, eta erraz eskura ditzakete. Pilula antikonzeptiboa erabiltzen dutenek, esaterako, harremana iraunkorra denean egiten dute metodo horren alde.

Koitoaren ondoko pilularen erabilera, berriz, normalizatu egin dela dirudi. Datuen arabera, koitoaren ondoko 18.228 pilula-kit banatu ziren 2008ko ekainetik 2009ko ekainera Osakidetzaren egoitzetan. Pilula hori erabili zuten 14 eta 30 urte bitarteko neskek; erabiltzailearen batez besteko adina 23 urte izan zelarik.

Haurduntzaren borondatezko etendurei dagokienez (HBE)⁵⁹, 2000. urtetik 2007. urtera gutxika-gutxika gora egin du haurduntza borondatez eten duten 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen kopuruak. Hala ere, 2007tik 2009. urtera %8 murriztu da kopuru hori: 2007an, 1812 izan ziren haurdunaldia eten zuten emakumeak; 2009an, aldiz, 1680. Beherakada horren eragileetako bat 15 eta 19 urte bitarteko nesken taldea izan da, adin-tarte horretan nabarmen murriztu baita borondatez etendako haurduntzen kopurua (347 kasu izan ziren 2007. urtean; 2009an, aldiz, 290).

Adin-tarteei erreparatuta, 15 eta 19 urte bitarteko neskei egin zitzaizen HBE-en %17 (290); 20 eta 24 urte bitarteko neskei, berriz, interbentzioen %39 (656); eta 25 eta 29 urte bitarteko neskei, azkenik, interbentzioen %44 (734). Lurralde Historikoetan, aldiz, Bizkaian izan ziren era horretako ebakuntzen %61 (1016); Gipuzkoan, berriz, %34 (578); eta Araban %5 (86).

Nabarmenezkoa da, baita ere, haurdunaldia borondatez eten duten emakumeetatik oso gutxi joan izan direla familia-plangintzako zentroetara antisorgailuak erabiltzeko. Hartara, 15 eta 19 urte bitarteko nesken %13,8 joan da era horretako zentro batera; eta 20 eta 24 urte bitarteko nesken %21,0.

GIB eta HIES

GIB birusak infektatutako gaixo berrien tasa nabarmen hazi da azken urteotan. 42 gaixo berri egon ziren 2008an. Urte hartan, 1.000 biztanleko 0,12tan izan zen infekzio-tasa –2000. urtekoaren bikoitza–. Hautemandako GIB birusak infektatutako gaixoen tasak gora egin izanak ez du adierazten, alabaina, GIB duten gazteen kopurua hazi denik. Aitzitik, baliteke lehen baino hautemate-proba gehiago egin eta hizpide dugun ehunekoa horregatik hazi izana.

Edonola ere, beste arrisku-jokabide eta osasun-arazoekin gertatu bezala, emakumeek baino GIB infekzio-tasa handiagoa dute gizonek: 4 emakume infektatu direnerako 6 gizon kutsatu dira. Heterosexualek arteko sexu harremanak izan dira, gazteen artean, birusa elkarri transmititzeko biderik arruntenetako bat. Are, emakumezkoak bide horretatik bakarrik kutsatu dira.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

GIB-infekzioekin gertatu ez bezala, EAEko gazteen aitortutako HIES kasuen kopuruak behera egin du etenik gabe hainbat urtez. 2000. urtean, esaterako, gazteen 100.000tik 5,6k zuen HIESa; 2008an, aldiz, 1,1ek.

BIDE-SEGURTASUNA

Bide-segurtasuneko neurriak⁶⁰ hartzen dituzte gazte gehienek: gazteen %99k segurtasun-uhala lotzen du gidatzean edota kopilotu doanean; gazteen %95,9k kaskoa janzten du motozikletan doanean; eta gazteen %89,9k segurtasun-uhala jartzen du autoaren atzeko eserlekuan doanean.

Gida-baimena izan eta autoa egunero hartzen du gazteen %43,8k. Gazte horien hamarretik hiruk, hain zuzen, alkohola hartuta gidatu izan duela adierazi du. Mutilen artean, %40koa da alkohola edanda gidatu dutenen ehunekoa; nesken taldean, berriz, %16koa.

Gainera, gazteen hamarretik lauk adierazi du autoan bidaiari joan izan dela gidariak alkohola edanda zegoela.

Trafiko-istripuei dagokienez ere alde handia dago gizon eta emakumeen artean: istripuren bat izan duen auto-gidarien lautik hiru gizonezko dira; eta %25 emakumezko.

Gazteek istripu gehien asteburuetan izaten dituztela uste da, orduantxe egiten baitituzte aisialdiarekin lotutako joan-etorri gehien. Datuen arabera, alabaina, istripuen kopurua antzekoa da asteburu nahiz astegunetan.

Nabarmendu beharra dago, baita ere, herritar guztiek baino trafiko-istripu askoz gehiago dituztela gazteek. Hala ere, gazteen trafiko-istripuen kopuruak behera egin du etenik gabe azken urteotan. Horrela bada, trafiko-istripuen ondorioz 15 eta 29 urte bitarteko 59 gazte zendu ziren 2000. urtean; 2008an, berriz, 22. Urte hartatik aitzin, gainbehera egin du trafiko-istripuan hildako gazteen kopuruak.

TOXIKOAK EZ DIREN MENPEKOTASUNAK

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eraginez, aldatu egin dira besteekin harremanean egoteko, kontsumitzeko nahiz komunikatzeko moduak. Alderdi positiboak bazter, patologikoak eta toxikoak ez diren menpekotasun berriak sortu dira teknologia berri horiek garatzearekin batera.

Badira gizarteak onartu dituen eta, are, eguneroko bizitzan beharrezko bihurtu diren zenbait erabilera, ohitura eta jardura. Horiek guztiek menpekotasun-nahasteak sor ditzakete, haien gaineko kontrola gal dezakegunetik eta osasun fisikoa nahiz harremanen egoera ona arriskuan jartzen dutenetik.

LANEKO OSASUNA

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Amaitzeko, **laneko osasunari** buruz hitz egingo dugu. Egiturazko faktoreetatik laneko osasunak du eraginik zuzenena osasunaren gain.

Lanak osasunaren gain duen eragina lan-baldintzekin lotzen dute gazteek. Haien ustez, laneko kontratuak gero eta ezegonkorragoak dira, eta azpikontratazioak gero eta ugariagoak. Egoera horrek zaildu egiten du laneko arriskuen kontrola eta, horrez gain, laneko segurtasunari kalte egiten dio.

Laneko ezbeharrei dagokienez, EAEn gertatzen diren laneko istripu guztien %45 baino gehiago 16 eta 34 urte bitarteko gazteek izan dituzte. Halaxe dakarte, bederen, 2010eko datuek⁶¹.

Gizonek dituzte laneko ezbeharrik gehien; haiek izan baitzuten EAEn 2010ean gertatutako lan-istripuen %76. Adin-tarteei erreparatuz gero, ikusiko dugu 26 eta 34 urte bitarteko herritarrek dituztela laneko ezbeharrik gehien (ezbehar guztien %75).

Jarduera-sektore bakoitzean izandako istripuei erreparatuta, herritar guztien antzeko datuak izan zituzten gazteek 2010ean: laneko ezbeharren %46,5 zerbitzu-sektorean gertatu zen; %35,8 industrian; eta %16,3 eraikuntzan.

Laneko istripu horien ondorioz, bidenabar, 6 gazte hil ziren 2010ean, eta 66 larri zauritu.

HERIOTZA-TASA

Gazteen **heriotza-tasa** 100.000 gaztetik 32,5ekoa izan zen 2008an. Gizonezko gazteetan %41,7koa da tasa hori; emakumezko gazteetan, aldiz, %22,8koa⁶².

Motordun ibilgailuekin izandako trafiko-istripuak dira, alde handiaz, **gazteen heriotza-arrazoi nagusia**. Arrazoi horregatik hiltzen dira gazteen hamarretik ia hiru. Trafiko-istripuen ondoren, arrazoi hauengatik hiltzen dira gazte gehien: tumorengatik; nork bere buruaz beste egiteagatik; nork bere buruari min egiteagatik; eta zirkulazio-sistemaren gaixotasunengatik.

Gizonezkoen heriotza-tasa emakumezkoena baino handiagoa da, heriotzaren zioa bat ala beste izan. Gizonezkoak gehiago dira, batez ere, trafiko-istripuengatik, nork bere buruaz beste egin izateagatik, eta nork bere buruari min egiteagatik hildako gazteen multzoetan. Horren arrazoia izan daiteke mutilek hartu izana gizonezkoen tradiziozko egitekoarekin lotura duten zenbait bizimodu eta jokabide-eredu. Hariari tenk, esan genezake osasunerako eta bizi-iraupenerako arriskutsuak diren egoerak bizi ohi dituztela gizonezkoek.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Ondorioak

- Osasunak esanahi desberdina du mutil eta nesken artean.
- Osasuntsu eta sasoiaren arteko diferentzia handia da Euskadiko gazteek.
- Garrantzi handia ematen diote osasunari Euskadiko gazteek, hainbesteko garrantzia eman ere non gehien balioesten duten alderdia baita.
- Erdira murriztu da gazteen heriotza-tasa. Bizitzeko hainbat estiloren eta jokabide-ereduen eraginez, alabaina, mutilen heriotza-tasa neskena baino lau aldiz handiagoa da.
- Gazteen hamarretik batek depresioaren edota antsietatearen sintomak ditu. Mutilenaren bikoitza da nesken depresio-tasa.
- Gazteen ia erdia inaktiboa da, eta gazteen ia %20 gizenegi dago.
- Alkohola neurri handian hartzen duten gazteen tasak behera egin du.
- Hazi egin da tabakoa erretzen duten 25 eta 29 urte bitarteko gazteen kopurua.
- Kanabisa izan ezik, legez kanpoko beste substantzia guztien kontsumoa murriztu da. Behera egin du, baita ere, droga-menpekotasuna gaitzatzeko tratamenduak hasi dituzten gazteen kopurua.
- Sexualitatea nahiko edo oso garrantzitsua da gazteen hamarretik ia bederatzirentzat.
- Azken bi urteotan murriztu egin da EAEn haurdunaldia borondatez eten duten pertsonen kopurua.
- Hazi egin da, berriz ere, GIB birusak infektatutakoetatik hautemandako kasu berrien kopurua; baina murriztu egin dira HIES kasuak.
- Bide segurtasuneko neurriak hartzen dituzte gazte gehienek. Hala ere, nabarmentzekoa da gazte askok alkohola edanda gidatu izan duela autoa eta, oraindik ere, gazte gehienak trafiko-istripuan hiltzen direla.
- Gazteen trafiko-istripuen kopurua behera egin du etenik gabe azken urteotan. Hala eta guztiz ere, trafiko-istripuan hiltzen diren gazteen tasa handiagoa da arrazoi horregatik hiltzen diren herritar guztiena baino. Aipatu beharra dago, baita ere, neskek baino hiru aldiz trafiko-istripu gehiago dituztela mutilek.

Beharrak

Diagnostiko hau egitean hautemandako beharrak aipatuko ditugu orain:

- Osasunaren ideia integrala transmititzea gazteei.
- Elikatze osasungarria sustatzea.
- Mutilen heriotza-tasetatik "gizonezkoen" jokabide-ereduei eta bizimoduei lotutako horiek murriztea.
- Gazteen buru-osasuna hobetzea, batez ere, depresio edota antsietatea duten pertsonen sexuari.
- Jarduera fisiko osasungarriei buruzko gomendioak gazte gehiagok ezagutu ditzatela lortzea.
- Gazteek are jarduera fisiko gehiago egin dezatela lortzea eta gazteek egoneko jokaerei eskainitako denbora murriztea, arreta berezia jarrita emakume gazteengan eta gizarte- eta ekonomia-mailei dagokienez, ahulenak diren biztanle-taldeengan.
- Inaktibitate fisikoa eragiten duten egoeretan (hezkuntza-zikloa aldatzea, gurasoengandik emantzipatzea, seme-alabak ekartzea...) dauden gazteei laguntza ematea.
- Apurtzea aisialdiaren eta alkohola, tabakoa nahiz legez kanpoko drogak hartzearen arteko lotura.
- Talderik arriskutsuenak prebenitzea eta kontzientziatzea alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogak hartzeari buruz.
- Alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogak hartzen hasteko adina atzeratzea.
- Gazteak irizpidez janztea, sexuan erabakiak har ditzaten, gero eta gazteago baitira haien sexualitatearen jakitun.
- Sexu seguruaren alde hezten jarraitzea, nahi gabeko haurduntzen kopurua murrizteko eta sexu bidez transmititutako gaixotasunak prebenitzeko.
- Astegunetan ikastetxera eta lantokira egindako joan-etorriei buruz hitz egitea gazteei zuzendutako bide-hezkuntzako kanpainetan.
- Bide-hezkuntzako kanpainak indartzea eta horiei eustea. Bidean izandako ezbeharren eta trafiko-istripuan hildako gazteen kopurua murrizteko asmoz,

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

arriskurik gehien duten taldeei zuzenduko zaizkie prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpainak.

- Bide-hezkuntzako kanpainetan garraibide aktiboak sustatzeko edukiak eta jarraibideak sartzea.
- Ardurazko erabilerak eta kontsumoak ikasteko lan-ildoak martxan jartzea gizartemenpekotasunekin edo toxikoak ez diren menpekotasunekin lotura duten eremuetan.
- Anorexia, bulimia, obesitatea eta elikadurarekin lotura duten beste gaixotasun batzuk prebenitzea.
- Gazteek izaten dituzten laneko gaixotasunak eta istripuak prebenitzea eta horien kopurua murriztea.

2. III Gazte Planak osasunaren alorrean izango dituen lehentasunezko eginkizunak

Osasun-politiken jarduera-eremuak era askotakoak izan behar dira. Horrez gain, gazteen egungo nahiz etorkizuneko bizi-kalitatearen gain modu batean ala bestean eragina duten alderdi guztiak jorratu beharko dituzte, hala nola: ohitura eta jokabide osasuntsuak; jarduera fisikoa eta kirola; elikadura eta elikatze-jokabidearen nahasteak; kontsumo arriskutsuak; afektibitatea; sexualitatea; sexu bidez transmititutako gaixotasunak; bide-segurtasuna; adimen-osasuna; toxikoak ez diren menpekotasunak; laneko segurtasuna; eta abar.

Aurreko ataleko diagnostikoa egitean hautemandako beharrak asetzeko, lehentasunezko eginkizun hauek gauzatu beharko dira, betiere, osasunari buruzko kontzeptu dimentsioaniztuna oinarri harturik:

- Gazteek lehen baino hobeto ezagutzea osasun-baliabideen erabilgarritasuna eta erabilera.
- Gazteek ohitura nahiz jokabide osasungarriak izan ditzatela sustatzea, osasunaren ikusmolde integral nahiz dimentsioaniztuna oinarri harturik.
- Jokabide arriskutsuak prebenitzea eta murriztea, osasunaren ikusmolde integrala oinarri harturik.
- Norbanakoen gain eta taldearen gain mugikortasunak dituen ondorio negatiboak murriztea (bide-ezbeharrak).

3. III. Gazte Planeko osasunaren alorreko helburu estrategikoak eta esku-hartzeko ildoak

1. Gazteek osasun programak nahiz zerbitzuak ezagutu, balioetsi nahiz egoki erabil ditzatela sustatzea.

- Gazteei zuzendutako osasun-programak ezagutzera ematea. Are jende gehiagok programa horien berri izan eta horiek erabil ditzan, gazteen hizkerak, esparruak eta kanalak erabiltzea, egon daitezkeen oztopo objektibo nahiz subjektiboak gainditu ahal izateko.

2. Gazteek ezagutza, ohitura nahiz jokabide osasungarri are gehiago izan ditzatela lortzea.

- Hizkera, bide edota eragile egokien bidez, ohitura nahiz jokabide osasungarrien berri ematea gazteei, eta horiekiko sentikor bihurtzea.
- Osasun-hezkuntza sustatzea hezkuntza-maila guztietan.
- Osasunaren inguruan gazteek izango duten prestakuntza koordinatzea.
- Arrisku-jokabideak prebenitzeko asmoz, prestakuntza nahiz hainbat baliabide eskaintzea aisialdiarekin, hezkuntzako denbora librearekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin lotura duten eragileei.

3. Osasunarekin lotura duten arrisku-jokabideak murriztea gazteekin zerikusia duten eremu guztietan.

- Hizkera, bide edota eragile egokien bidez, arrisku-jokabideen berri ematea gazteei, eta jokabide horien inguruan gazteak sentikor bihurtzea.
- Osasun-arazo nagusiak prebenitzeko kanpaina egitea: trafiko-istripuak; menpekotasunak; HIESa; gaixotasun benereokak; nahi gabeko haurduntzak; elikatze-nahasteak; inaktibitate fisikoa eta jokaera sedentarioaren maila altua; buru-nahasteak; eta laneko segurtasuna.
- Pertsonen osasunari kalte egiten dioten arrisku-jokabide nagusiak hezkuntzaren arlotik prebenitzea.
- Pobrezia, eskola porrota edota familia-arazoak direla-eta, arrisku- eta ahulezia-maila handienak dituzten talde edo kolektiboek zuzendutako prebentzio esku-hartzeak sustatzea edota horiekin elkarlanean aritzea, IV. Mendekotasun Planarekin bat eginik.
- Alkoholaren eta substantzia berrien kontsumoa murrizteko neurriak indartzea.
- Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak kontrolatzeko eta prebenitzeko ohiturak sortzea.
- Honakoak erraztuko dituzten neurriak sustatzea: bizimodu aktiboa, garraiobide aktiboak erabiltzea eta, ariketa eta kirola egitea gazteak gizarteratzeko bide gisa antzemate aldera, inklusio-aukerak eskueran jartzea.
- Gazteen osasunarentzat arriskutsuak diren fenomeno, patologia edota jokabide sortu berriak hautematea, zerbitzuak egokitzen saiatzeko eta dagokion ekintzak garatzeko asmoz.
- Jokabide osasuntsuak sustatzeko asmoz, aisialdiarekin, hezkuntzako denbora librearekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin lotura duten eragileei prestakuntza nahiz hainbat baliabide eskaintzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

4. Gazteek bideko joan-etorrietan izandako ezbeharren kopurua murriztea.

- Bide-hezkuntzaren bitartez, gazteen trafiko-ezbeharra prebenitzeko jarduerak gauzatzea.
- Arduraz gidatzeko beharrez kontzientziaztea gazteak, bideko ezbeharren kopurua eta ingurumenari eragindako kalteak murrizteko asmoz.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p>- Osasunaren ideia integrala transmititzea gazteei.</p> <p>- Elikatze osasungarria sustatzea.</p> <p>- Mutilen heriotza-tasetatik "gizonezkoen" jokabide-ereduei eta bizimoduari lotutako horiek murriztea.</p> <p>- Gazteen buru-osasuna hobetzea, batez ere, depresio edota antsietatea duten pertsonen sexuari.</p> <p>- Jarduera fisiko osasungarriei buruzko gomendioak gazte gehiagok ezagutu ditzatela lortzea.</p> <p>- Gazteek are jarduera fisiko gehiago egin dezatela lortzea eta gazteek egoneko jokaerei eskainitako denbora murriztea, arreta berezia jarrita emakume gazteengan eta gizarte- eta ekonomia-mailei dagokienez, ahulenak diren biztanle-taldeengan.</p> <p>- Inaktibitate fisikoa eragiten duten egoeretan (hezkuntza-zikloa aldatzea, gurasoengandik emantzipatzea, seme-alabak ekartzea...) dauden gazteei laguntza ematea.</p> <p>- Apurtzea aisialdiaren eta alkohola, tabakoa nahiz legez kanpoko drogak hartzearen arteko lotura.</p> <p>- Talderik arriskutsuenak prebenitzea eta kontzientziatzea alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogak hartzeari buruz.</p> <p>- Alkohola, tabakoa eta legez kanpoko drogak hartzen hasteko adina atzeratzea.</p> <p>- Gazteak irizpidez janztea, sexuan erabakiak har ditzaten, gero eta gazteago baitira haien sexualitatearen jakitun.</p>	<p>- Gazteek lehen baino hobeto ezagutzea osasun-baliabideen erabilgarritasuna eta erabilera.</p> <p>- Gazteek ohitura nahiz jokabide osasungarriak izan ditzatela sustatzea, osasunaren ikusmolde integral nahiz dimentsioaniztuna oinarri harturik.</p> <p>- Jokabide arriskutsuak prebenitzea eta murriztea, osasunaren ikusmolde integrala oinarri harturik.</p> <p>- Norbanakoen gain eta taldearen gain mugikortasunak dituen ondorio negatiboak murriztea (bide- ezbeharrak).</p>	<p>1. Gazteek osasun programak nahiz zerbitzuak ezagutu, balioetsi nahiz egoki erabil ditzatela sustatzea.</p> <p>2. Gazteek ezagutza, ohitura nahiz jokabide osasungarri are gehiago izan ditzatela lortzea.</p> <p>3. Osasunarekin lotura duten arrisku-jokabideak murriztea gazteekin zerikusia duten eremu guztietan.</p>	<p>1.1.- Gazteei zuzendutako osasun-programak ezagutzera ematea. Are jende gehiagok programa horien berri izan eta horiek erabil ditzan, gazteen hizkerak, esparruak eta kanalak erabiltzea, egon daitezkeen oztopo objektibo nahiz subjektiboak gainditu ahal izateko.</p> <p>2.1.- Hizkera, bide edota eragile egokien bidez, ohitura nahiz jokabide osasungarrien berri ematea gazteei, eta horiekiko sentikor bihurtzea.</p> <p>2.2.- Osasun-hezkuntza sustatzea hezkuntza-maila guztietan.</p> <p>2.3.- Osasunaren inguruan gazteek izango duten prestakuntza koordinatzea.</p> <p>2.4.- Arrisku-jokabideak prebenitzeko asmoz, prestakuntza nahiz hainbat baliabide eskaintzea aisialdiarekin, hezkuntzako denbora librearekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin lotura duten eragileei.</p> <p>3.1.- Hizkera, bide edota eragile egokien bidez, arrisku-jokabideen berri ematea gazteei, eta jokabide horien inguruan gazteak sentikor bihurtzea.</p> <p>3.2.- Osasun-arazo nagusiak prebenitzeko kanpaina egitea: trafiko-istripuak; menpekotasunak; HIESa; gaixotasun benereokak; nahi gabeko haurduntzak; elikatzehasteak; inaktibitate fisikoa eta jokaera sedentarioaren maila altua; buru-nahasteak; eta laneko segurtasuna.</p> <p>3.3.- Pertsonen osasunari kalte egiten dioten arrisku-jokabide nagusiak hezkuntzaren arlotik prebenitzea.</p> <p>3.4.- Alkoholarekin eta substantzia berrien kontsumoa murrizteko neurriak indartzea.</p> <p>3.5.- Sexu bidez transmititzen diren gaixotasunak kontrolatzeko eta prebenitzeko ohiturak sortzea.</p> <p>3.6.- Honakoak erraztuko dituzten neurriak sustatzea: bizimodu aktiboa, garraibide aktiboak erabiltzea eta, ariketa eta kirola egitea gazteak gizarteratzeko bide gisa antzemate aldera, inklusio-aukerak eskueran jartzea.</p> <p>3.7.- Gazteen osasunarentzat arriskutsuak diren fenomeno, patologia edota jokabide sortu berriak hautematea, zerbitzuak egokitzen saiatzeko eta dagokion ekintzak garatzeko asmoz.</p> <p>3.8.- Jokabide osasuntsuak sustatzeko asmoz, aisialdiarekin, hezkuntzako denbora librearekin, kulturarekin eta jarduera fisikoarekin lotura duten eragileei prestakuntza nahiz hainbat baliabide eskaintzea.</p> <p>3.9.- Pobrezia, eskola porrota edota familia arazoak direla eta, arrisku eta ahulezia maila handienak dituzten talde edo kolektiboari zuzendutako prebentzio esku-hartzeak sustatzea edota horiekien elkarlanean aritzea, VI. Mendekotasun Planarekin bat eginik.</p>

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

<p>- Sexu seguruaren alde hezten jarraitzea, nahi gabeko haurduntzen kopurua murrizteko eta sexu bidez transmititutako gaixotasunak prebenitzeko.</p> <p>- Astegunetan ikastetxera eta lantokira egindako joan-etorriei buruz hitz egitea gazteei zuzendutako bide-hezkuntzako kanpainetan.</p> <p>- Bide-hezkuntzako kanpainak indartzea eta horiei eustea. Bidean izandako ezbeharren eta trafiko-istripuan hildako gazteen kopurua murrizteko asmoz, arriskurik gehien duten taldeei zuzenduko zaizkie prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpainak bereziki.</p> <p>- Bide-hezkuntzako kanpainetan garraibide aktiboak sustatzeko edukiak eta jarraibideak sartzea.</p> <p>- Jarduera fisikoa areagotzearen eta egoneko bizimoduaren hedadura murriztearen alde lan egitea, emakumeengan arreta berezia jarrita.</p> <p>- Ardurazko erabilerak eta kontsumoak ikasteko lan-ildoak martxan jartzea gizarte-menpekotasunekin edo toxikoak ez diren menpekotasunekin lotura duten eremuetan.</p> <p>- Anorexia, bulimia, obesitatea eta elikadurarekin lotura duten beste gaixotasun batzuk prebenitzea.</p> <p>- Gazteek izaten dituzten laneko gaixotasunak eta istripuak prebenitzea eta horien kopurua murriztea.</p>		<p>4. Gazteen mugikortasunetik eratorritako ezbeharren kopurua murriztea.</p>	<p>4.1.- Bide-hezkuntzaren bitartez, gazteen trafiko-ezbeharrek prebenitzeko jarduerak gauzatzea.</p> <p>4.2.- Arduraz gidatzeko beharraz kontzientziatzea gazteak, bideko ezbeharren kopurua eta ingurumenari eragindako kalteak murrizteko asmoz.</p>
---	--	--	---

2. ARDATZA: BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

5. AREA: GIZARTE-EKINTZA

Gazteen egoera ekonomikoa eta gizon nahiz emakumeen arteko berdintasuna aurkitzen dira area honen barruan. Bi gai horiek elkarren oso desberdinak badirudite ere, desberdintasun-egoerekin eta hainbat baliabide lortzeko aukera-desberdintasunarekin dute zerikusia.

1. Abiapuntua: auziaren egoera.

Atal hau idazteko datu gehienak "Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoa. 2009ko abendua. Datu nagusien sintesia" izeneko txostenetik hartu ditugu. Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen txosten hori 2009an, eta Behatokiaren web-orrian dago eskuragarri⁶³. III. Gazte Planerako oinarri moduan egin zen mintzagai dugun diagnostikoa, eta hartaz baliatu dira III. Gazte Plana diseinatu duten teknikariak. Atal honetan, badira lehen aipatutako diagnostiko horretatik hartu ez ditugun zenbait datu. Horiek erabiltzean, datua nondik hartu dugun azalduko dugu eranskinean. Gerta daiteke, baita ere, diagnostiko horretan jasotakoak baino berriagoak izatea zenbait datu. Horrelakoetan ere, datu berrien iturria zein den adieraziko dugu eranskinean.

Gazteen egoera ekonomikoa eta erosteko ahalmena

Gazteen **egoera ekonomikoa** aztertu aurretik, haien **diru-sarrerak nondik datozen** jakin behar dugu. Kasu honetan, gazteen %44ren diru-iturri nagusia jatorrizko familia da; berezko beren diru-sarrerei eta familiak emandako diruari esker bizi da gazteen ia laurden bat; eta soilik gazteen bostetik bat bizi da berezko bere diru-sarreretatik. Soilik berezko beren diru-sarreretatik bizi diren gazteei gehitzen badiegu norberaren eta bikotekidearen diru-sarrerei esker bizi direnen ehunekoa, gazteen hamarretik ia hiru jatorrizko familiaren independente litzateke ekonomikoki. Gazteen %2, bestalde, ez da ekonomikoki bere bikotekidearen mende.

Espainiako gazteen datuak alderatuta⁶⁴, soilik berezko beren diru-sarreretatik bizi diren gazteak dira EAEn (%22) Espainia osoan (%28) baino.

Zenbat eta zaharrago, orduan eta independenteagoak dira EAeko gazteak ekonomikoki. Horrela, 25 eta 29 urte bitarteko gazte gehienak soilik beren diru-sarreretatik bizi dira edo, bestela ere, bikotekidearekin gastuak erdibanatzen dituzte. Adin-tarte horretako gazteen heren bat baino gehiago, hala ere, gurasoek emandako diruari esker bizi da, soilik edo neurri handi batean.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Haien okupazio nagusiaren arabera aztertzen baditugu gazteen diru-sarrerak⁶⁵, konturatuko gara ikasten ari diren gazte gehienek familia dutela bizitzeko diru-iturri nagusi. Ikasten eta aldi berean lanean ari diren gazteek, halaber, familiakoen laguntza behar izaten dute bizi ahal izateko. Lanean ari diren gazte gehienak ekonomikoki independenteak dira jatorrizko familiarekiko. Hala ere, ekonomikoki jatorrizko familiaren mende erabat edo hein batean dago gazteen %42.

Bada, bestalde, gazteen egoera ekonomikoa aztertzean kontuan izan behar dugun funtsezko beste alderdi bat: gazteek **poltsikoan** duten **dirua**. Datuen arabera, Euskadiko gazteen ia erdiak 300 euro baino gutxiago ditu hileko; eta EAEko gazteen herenak, aldiz, 600 euro baino gehiago.

Gazteek hilean izango duten batez besteko diru-kopuruak lotura handia du haien okupazioarekin, adinarekin, baita, nolabait, sexuarekin ere⁶⁶. Esan dezakegu, oro har, emakumezkoek gizonezkoek baino diru gutxiago dutela eskura hilean. Adinak, bestetik, lotura handia du gazteek hilean duten diruarekin. Izan ere, zahartu ahala, lan-merkatuan txertatzen baitira gutxika-gutxika gazteak. Aldagai guztietatik, hala ere, okupazioa da eraginik handiena duena gazteek poltsikoan izango duten diru-kopuruaren gain. Alde horretatik, hilean 300 euro baino gutxiago ditu ikasten ari diren gazteen hamarretik bederatzik. Ikasten eta, aldi berean, lanean ari diren gazteen hamarretik seik, berriz, 600 euro baino gutxiago ditu hilean. Azkenik, lanean ari diren gazte gehienek, batez beste, 600 euro baino gehiago dituzte hilean. Lanean diren gazteen laurden batek, hala ere, hileko 600 euro ere ez du eskura.

Are gehiago⁶⁷, EAEn lanean ziren 18 eta 34 urte bitarteko gazteek, batez beste, urtean 16.716 euroko soldata zuten 2008an; eta 2009an, aldiz, 17.495 eurokoa.

Bestalde, diru-sarreraren eta etxebizitzaren prezioa aztertzen baditugu (batez beste, 278.225 eurotan ziren etxebizitza askeak 2009an, eta 120.725 eurotan babespekoak), argi ikusiko dugu zergatik ezin duten gazteek jatorrizko familiatik emantzipatu. Kontuan izanik gazteek diru-sarreraren %30 erabili beharko luketela etxearen hipoteka ordaintzeko, 2009an, esaterako, gutxienez 3.750 euroko diru-sarrera garbia izan behar zuen gazte batek, hilean, etxebizitza libre baten jabe izateko. 2008an, adibidez, diru-sarreraren %107 behar zuten gazteek etxebizitza erosteko⁶⁸; 2009an, aldiz, %77,2. Alokairuari dagokionez, hileko 921 eurotan alokatzen ziren, batez beste, merkatu askeko etxebizitzak 2010ean⁶⁹.

Gazteen egoera ekonomikoa irudikatzeko, azkenik, gazte **pobreen tasa** aztertuko dugu.

Pobrezia-arriskuan diren gazteen egoera aztertu aurretik, alabaina, zenbait kontzeptu argituko ditugu⁷⁰. Lau urtean behin, Pobrezia- eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta egiten du Eusko Jaurlaritzak. Inkesta horretan, ondoko bi ideia hauek bereizten dira:

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Mantentze-pobrezia: janaria, etxebizitza, arropak, zapatak eta oinarrizko beste behar batzuk asetzeko gastuei epe laburrean aurre egiteko behar beste diru ez izateari deritzo. Mantentze-pobrezia berruz, bestetik, pobrezia-arriskua eta ongizate-gabezia bereiz daitezke. Pobrezia-arrisku larrian izango dira, esaterako, denbora jakin batez oinarrizko behar horiek asetzeko beharrezkoak diren diru-sarrerara minimoak ez dituzten familiak. Gizarte bakoitzak, bestetik, ongizatearen gutxieneko maila du zehazturik. Hortaz, ongizatearen gutxieneko maila hori izateko gutxieneko diru-sarrerak ez dituzten familiak ongizate-gabeziaren arriskuan izango dira.
- Metatze-pobrezia esaten zaio, bestetik, familiek ezin lor ditzaketenean gutxieneko bizitza-maila egokia epe luzez izateko beharrezkoak diren kontsumoko ondasun iraunkorrak. Ez gara familien unean uneko egoera zehatz bati buruz ari, familien egoera orokor bati buruz baizik. Horrela, kontsumoko ondasun iraunkorrik eta ondare-baliabiderik ez badute, familiak ezin izango dira duintasunez bizi.

Labur esanda, familien errentari egiten dio erreferentzia mantentze-pobrezia; eta metatze-pobrezia, aldiz, ondareari nahiz bizi-baldintzei. Horrela, mantentze-pobrezian izateko arriskua nahiz metatze-pobrezian izateko arriskua, biak bilduko dira pobrezia-arriskua terminoaren barruan. Halaxe zehaztu zen, bederen, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkestan.

Gaiari helduz, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko azken inkesta 2008. urtean egin zen⁷¹. Inkesta horretako datuen arabera, EAEn bizi diren pertsonen %4,7 (hots, 100.250 pertsona) mantentze- edota metatze-pobrezia bizitzeko arriskuan da.

Pobrezia-tasak EAEn estatu osoan baino txikiagoak badira ere, beste taldeen gain baino eragin handiagoa du pobrezia gazteen gain, baita Euskadin ere. Hartara, pobrezia-arriskuan diren familia gehienek 35 urtetik beherako pertsona bat dute buru (%10,9).

Mantentze-pobrezia egoeran diren familia gehienek –pobrezia-arriskuan daudenek nahiz ongizate-gabezia egoeran daudenek– 25 urtetik beherako pertsona dute buru. Horrela, mantentze-pobrezian diren familien %50,7 ongizate-mugaren azpitik dago; eta %47,9, berriz, pobrezia-arriskuan.

Nabarmenezkoa da, beraz, ongizate-gabezia diren eta pertsona gazteren bat buru duten familietako asko pobrezian bizi direla. Aipatu beharra dago, baita ere, ongizate-gabezia bizi diren familia guztien %30 baino gutxiago bizi dela pobrezian. Aitzitik, ongizate-gabezia diren eta 25 urtetik beherako pertsona bat buru duten familien %95 pobrezia-egoeran da.

Urritasun ekonomikoak, hala ere, behera egin du nabarmen 25 eta 34 urte bitarteko gazte bat buru duten familien multzoan. Murriztu egin badira ere, gazteen zifrak EAEn batez besteko orokorraren gainetik daude, %16,1 eta %9an baitira, hurrenez hurren, gazteen ongizate-gabezia eta pobrezia tasak.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Familiaburu diren eta ez diren gazte guztien egoera aztertzen badugu ikusiko dugu gazteen pobrezia-tasa handiagoa dela beste adin-tartekoena baino. Pobrezia-egoeran dira, zehazki, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen %5,6, eta 25 eta 34 urte bitarteko herritarren %4,2. Hala eta guztiz ere, badira gazteek baino are pobrezia-tasa handiagoak dituzten zenbait talde; haurrak, esaterako.

Jarraian, familia bazter utzi eta banaka aztertuko dugu mantentze-pobrezian dauden gazteen tasa. Horrela, gazte bakoitzaren diru-sarrerak banaka aztertzen baditugu – familiako gainerako kideena bazter utzita– independenteki edo bakarrik biziz gero, pobrezian izango litzateke 25 urtetik beherako herritarren erdia (ikasleak kanpo); eta 25 eta 34 urte bitarteko gazteen hamarretik hiru.

Ondorioz, **isilpeko pobrezian** dira gazte asko, baina familiek gazteei egindako ekarpenek leundu egin dituzte gazteen pobrezia buruzko datuak. Izan ere, independenteki bizi ahal izateko nahikoa diru-sarrera izan ez eta pobrezia-arriskuan daudela ikusita, familiakoek laguntza eskaintzen diete gazteei.

Aurrekoetan gertatu bezala, metatze-pobrezia-tasa oso handia da gazteen artean. Zehazki, 25 urtetik beherako pertsona baten mende daudenek dute, pertsona guztietatik, metatze-pobrezia-tasa handiena (%3). Horrez gain, 25 eta 34 urte bitarteko pertsona bat buru duten familien metatze-pobrezia-tasa (%1,2) handiagoa da metatze-pobrezia-tatez bestekoa baino (%0,7). Tasa horiek, alabaina, behera egin dute 2004. urteaz geroztik.

Eusko Jaurlaritza hainbat tresnaren bidez saiatzeko bideak ditugun pobrezia-egoerak murrizten: Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Diru Sarreren Bermeko Errenta eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria. Gizarte Larrialdiko Laguntzei buruzko 2010eko datuen arabera, EAEn emandako Gizarte Larrialdietarako Laguntza guztien %2,5 (hots, 634 laguntza) baino ez zitzaizkien eman 30 urtetik beherako gazteei⁷². Hau da, EAeko gazte guztien milatik bik jaso zuen era horretako diru-laguntzarik. Gazteen pobrezia-arriskua familiarren laguntzaren bidez kontrolatzen ari dela adierazten du datua horren txikia izateak.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna neurtzeko orduan, berdintasunaren isla izan daitezkeen hiru alderdi aztertu ditugu: etxeko lanak eta beste pertsona baten zaintza erdibanatzeko modua; lana lortzeko orduan gizon eta emakumeen artean izaten den desberdintasuna; eta genero-indarkeriaren zifrak.

Etxeko lanak erdibanatzeari dagokionez⁷³, etxeko lanak bien artean egiten dituztela adierazi du bikotekidearekin bizi diren gazteen erdiak baino gehiagok. Hala ere, gazteen hamarretik ia lauk dio emakumeak egiten dituela etxeko lan guztiak edo gehienak bai behizat. Aitzitik, gazteen %5ek baino ez du adierazi etxeko lan gehienak gizonetarako egiten dituztela.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Neska eta mutilek, ordea, iritzi desberdina dute etxeko lanak banatzeko erari buruz. Mutilen ia bi herenek dio etxeko lanak erdi bana egiten dituztela; nesketan, aldiz, erdiak baino gutxiagok uste du hori. Neska zein mutil, biek ala biek uste dute neskek gauza gehiago egiten dituztela mutilek baino.

Datuen arabera, seme-alabarik ez dagoen bitartean etxeko lanak egoki partekatzen dira. Baina, seme-alabak etortzean, handitu egiten da banatu beharreko eginkizunen kopurua (etxeko lanak gehi adingabekoen zaintza) eta, hori gertatzen denean, neskek are ardura gehiago hartzen dute beren gain.

Aztertuko dugu, baita ere, **sexu-arrazoiengatik lanean gertatzen den bereizkeriari** buruz gazteek duten iritzia. Zenbait datuk erakusten dute gizon eta emakumeen lanpostuen artean desberdintasun objektiboak daudela, eta gizon eta emakumeek soldata desberdinak dituztela. Hala eta guztiz ere, gazteen 10etik 6k uste du lanpostu bat lortzearen gain eraginik ez duela gizonezko ala emakumezko izateak.

Gazteen lautik ia batek uste du egindako ikasketekin bat datorren lanpostua eskuratzeko orduan mutilek aukera gehiago dituztela adin, prestakuntza nahiz eskarmentu bera duten neskek baino.

Emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, azken urteotan asko hazi da eraso mota horregatik jarritako salaketen kopurua⁷⁴.

Emakume berak, hala ere, hainbat salaketa jar ditzake. Horregatik, salaketen kopuruari erreparatu beharrean, salaketa jarri duten emakumeen kopurua aztertuko dugu. 2010ean⁷⁵, esaterako, 15 eta 29 urte bitarteko 1057 emakumek jarri zuten genero-indarkeriagatik salaketarik. Genero indarkeriatzat hartuko ditugu, bidenabar: bikotekidearen edota bikotekide ohiak gauzatutako indarkeriazko egintza; familia-barruko indarkeria –multzo horren barruan ez dira sartzen bikotekideak edota bikotekide ohiak gauzatutako indarkeriazko egintzak–; eta sexu-askatasunaren kontrako indarkeria. 1057 emakume horietatik 216k (hau da, %20k) 15 eta 19 urte bitartean zituzten.

2010ean, 3507 emakume izan ziren genero indarkeriaren biktima EAEn. Emakume horietatik 1057 gazteak izan ziren. Beraz, emakume gazte askok pairatzen du era horretako indarkeria, genero-indarkeria salatu duten emakumeen %30ek 31 urte baino gutxiago baitu.

Aipatu beharra dago, baita ere, EAeko nesken milatik 6,6 genero-indarkeriaren biktima izan zirela 2010ean. Horrela, 2010ean genero-indarkeriaren biktima izandako EAeko tasa handiagoa izan da genero-indarkeriaren biktima izandako emakume guztien tasa baino (milatik 3,1), eta txikiagoa 2009ko tasa baino (milatik 7,4).

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Ondorioak

- EAEko gazteen hamarretik ia hiru jatorrizko familiarengandik ekonomikoki independenteak dira (soilik beren diru-sarrerei esker edota bikotekidearekin erdibana bizi dira). Hala eta guztiz ere, gazte gehienen diru-iturri nagusia familia da oraindik edo, funtsezko diru-iturri ez bada, behar-beharrezko laguntza bai behintzat.
- Gazteek diru gutxi dute eskura; soilik gazteen heren bat baino zertxobait gehiagok du 600 euro baino gehiago hilean.
- Pobrezia egoeran dira 15 eta 24 urte bitarteko gazteen %5,6 eta 25 eta 34 urte bitartekoen %4,2. Pobrezia-arriskuan da, baita ere, 25 urtetik beherako pertsona bat buru duten familien ia erdia.
- Familiakoek ordaindutakoa zenbatu gabe, hau da, soilik berezko beren diru-sarrerak kontuan baditugu, pobrezia-egoeran litzateke 25 urtetik beherako gazteen ia erdia eta 25 eta 34 urte bitartekoen hamarretik hiru. Hortaz, pobreziaren zati bat isilean dela esan dezakegu.
- Etxeko lanak erdibana egiten dituztela adierazi du bikotekidearekin bizi diren gazteen erdia baino gehiagok. Askotan, hala ere, emakumezkoek egiten dituzte etxeko lan guztiak edo gehienak.
- Genero-indarkeriak eragin handia du emakume gazteengan. 2010ean genero-indarkeriaren biktima izandako emakumeen %30ek 15 eta 29 urte bitartean zuen. Horrez gain, hizpide dugun indarkeria-motaren biktima diren emakume gazteen tasa emakume guztienaren bikoitza da.

Beharrak

- Gazteentzako enplegua sustatzea xede duten neurriak babestea, gazteek berezko baliabide are gehiago izan ditzaten eta jatorrizko beren familien menpekotasun ekonomiko txikiagoa izan dezaten.
- Pobrezia-arrisku handian diren gazte-taldeei zuzendutako laguntza ekonomikoei eustea.
- Ardurakidetzat sustatzea mutilen artean. Horren bidez lortu nahi da elkarren artean berdintsuago bana dezatela gizon eta emakumeek etxeko lanak eta mendeko adinekoak nahiz adingabeak zaintzeko ardura.
- Genero-indarkeriaren aurkako borrokan aurrera egitea.

2. III Gazte Planak gizarte-ekintzaren alorrean izango dituen lehentasunezko eginkizunak

5. Arrisku-egoeran dauden edota bereizkeria jasan dezaketen gazteei eskainitako laguntza hobetzea, gizarte-, hezkuntza- eta enplegu-zerbitzuek koordinatutako prebentzio eta esku-hartze neurriak garatuta.
6. Gizon eta emakumeen artean etxeko lanak egiteko eta menpeko adingabeak nahiz adinekoak zaintzeko denbora berdintsu bana dadila lortzea.
7. Gazteen arteko genero-indarkeriari aurre egitea, prebentziorako ekintzak eta indarkeria horren biktimei eskainitako laguntza uztartzearen bidez.
8. Gazteen artean, emakumeen aurkako jarrerak eta indarkeriazko jokaerak ezabatzea.

3. III. Gazte Planaren Gizarte-ekintza alorreko helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak

1. Bereizkeria jasateko arriskuan diren gazteei eskainitako **gizarte-laguntza** hobetzea.
 - Gazteen artean bazterkeria prebenitzea eta gizartearen esku-hartzea sustatzea gai horretan eta, hori egitean, dibertsitatea nahiz gizon-emakumeen arteko desberdintasunak kontuan hartzea.
 - Hainbat neurri artikulatzea, diru-sarrerak bermatzeko politika gazteen beharretara egokitzeko.
2. Berdintasun eraginkorra lortzea emakume eta gizon gazteen arteko harremanetan, arlo pertsonalean nahiz profesionalean.
 - Gizon gazteen ardurakidetzak sustatzea.
3. **Genero-indarkeriaren** biktimei diren emakume gazteei osoko arreta eskaintzea.
 - Genero-indarkeriaren biktimei diren emakume gazteentzako arreta eta informazioa hobetzea.
 - Genero-indarkeriaren edonolako adierazpenak pairatzen dituzten emakume gazteen arretan antzemandako gabeziak asetzeko formulak bilatzea.
 - Emakume gazteen aurkako genero-indarkeria kasu gehiago goiz antzematea.
4. Gazteak genero-indarkeria lehen mailako gizarte-arazoa dela jabeaztea.
 - Genero-indarkeriaren aurrean, zero tolerantzia sustatzea gazteen artean.
 - Emakumeen aurkako indarkeriaren jarraipena ahalbidetzen duten irudiak eta edukiak komunikabideetatik ezabatzea.
 - Genero-indarkeriaren askotariko adierazpenei buruz —bereziki, sotilenei, hau da, mikroindarkeriei buruz— gazteenek duten pertzepzioa areagotzea.
5. Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Gazteen arteko genero-indarkeriaren arazoari buruzko ikerketak burutzea.
- Gazteen artean indarkeriazko jokaerak prebenitu ahal izateko komunikazio-bide eraginkorrak sortzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p>- Gazteentzako enplegua sustatzea xede duten neurriak babestea, gazteek berezko baliabide ekonomiko are gehiago izan ditzaten eta jatorrizko beren familien menpekotasun ekonomiko txikiagoa izan dezaten.</p> <p>- Laguntza ekonomiko are gehiago ematea pobrezia-arrisku handian diren gazte-taldeei.</p> <p>- Ardurakidetzatza sustatzea mutilen artean. Horren bidez lortu nahi da elkarren artean berdintsuago bana ditzatela gizon eta emakumeek etxeko lanak eta mendeko adinekoak nahiz adingabeak zaintzeko ardura.</p> <p>- Genero-indarkeriaren aurkako borrokan aurrera egitea.</p>	<p>- Arrisku-egoeran dauden edota bereizkeria jasan dezaketen gazteei eskainitako laguntza hobetzea, gizarte-, hezkuntza- eta enplegu-zerbitzuek koordinatutako prebentzio eta esku-hartze neurriak garatuta.</p> <p>- Gizon eta emakumeen artean lana eta denbora berdintsu bana dadila lortzea.</p> <p>- Gazteen arteko genero-indarkeriari aurre egitea, prebentziozko ekintzak eta indarkeria horren biktimei eskainitako laguntza uztartzearen bidez.</p> <p>- Gazteen artean, emakumeen aurkako jarrerak eta indarkeriazko jokaerak ezabatzea.</p>	<p>1.- Bereizkeria jasateko arriskuan diren gazteei eskainitako gizarte-laguntza hobetzea.</p> <p>2.- Berdintasun eraginkorra lortzea emakume eta gizon gazteen arteko harremanetan, arlo pertsonalean nahiz profesionalean.</p> <p>3.- Genero-indarkeriaren biktimea diren emakume gazteei osoko arreta eskaintzea.</p> <p>4.- Gazteak genero-indarkeria lehen mailako gizarte-arazoa dela jabearaztea gazteak.</p> <p>5.- Indarkeriazko jokaeren prebentzioa hobetzea.</p>	<p>1.1.- Gazteen arteko bazterkeria prebenitzea eta gizartearen esku-hartzea sustatzea gai horretan; eta, hori egitean, dibertsitatea nahiz gizon-emakumeen arteko desberdintasunak kontuan hartzea.</p> <p>1.2.- Hainbat neurri artikulatzea, diru-sarrerak bermatzeko politika egokitu ahal izateko gazteen beharretara.</p> <p>2.1- Gizon gazteen ardurakidetzatza sustatzea.</p> <p>3.1.- Genero-indarkeriaren biktimea diren emakume gazteentzako arreta eta informazioa hobetzea.</p> <p>3.2.- Genero-indarkeriaren edonolako adierazpenak pairatzen dituzten emakume gazteen arretan antzemandako gabeziak asetzeko formulak bilatzea.</p> <p>3.3.- Emakume gazteen aurkako genero-indarkeria kasu gehiago goiz antzematea.</p> <p>4.1.- Genero-indarkeriaren aurrean, zero tolerantzia sustatzea gazteen artean.</p> <p>4.2.- Emakumeen aurkako indarkeriaren jarraipena ahalbidetzen duten irudiak eta edukiak komunikabideetatik ezabatzea.</p> <p>4.3.- Genero-indarkeriaren askotariko adierazpenei buruz —bereziki, sotilenei, hau da, mikroindarkeriei buruz— gazteek duten pertzepzioa areagotzea.</p> <p>5.1.- Gazteen arteko genero-indarkeriaren arazoari buruzko ikerketak burutzea.</p> <p>5.2.- Gazteen artean indarkeriazko jokaerak prebenitu ahal izateko komunikazio-bide eraginkorrak sortzea.</p>

2. ARDATZA: BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

6. AREA: KULTURA

Bata besteari lotutako hainbat fasetan banatzen dira gazteen kultura-jarduerak: prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena, hedatzea, sustatzea, banaketa eta kontsumoa. Kulturaren sektore guztiak jarduera-etapa horietan banatzen badira ere, elkarren oso bestelako esku-hartzeen beharra eta hainbat gabezia izan ditzakete sektoreek etapa bakoitzean.

Kultura-jarduerak berealdiko garrantzia dute gazteen nortasun subjektiboak egituratzeko prozesuan. Hori dela eta, herritar gazte guztiak kulturaren murgilaraztea izango da gazte-politiken egiteko nagusia. Gazte-politiken edukiek, bestalde, hezkuntzako helburuekin eta gizartea bateratzeko helburuekin bat etorri beharko dute. Zehazki, gazteentzako kultura-politikek ondoko hauek izan beharko dituzte xede: gazteei kultura ezagutzeko bide ematea; kulturaren zentzuzko kontsumoa sustatzea gazteengan; eta artearen nahiz sormenaren bidez beren burua adierazteko aukera ematea gazteei.

Kulturari buruz aritzean, badira ahantzi behar ez ditugun bi gai. Batetik, IKTek eragin handia dute gazteek kultura kontsumitzeko moduaren gain, kulturaren bidez beren burua adierazteko moduaren gain, baita gazteen adierazpen artistikoen gain ere. Kontuan izan behar dugu, bestetik, gure erkidegoan bi hizkuntza ofizial daudela, eta kultura-eremuan eragina duela horrek.

1. Abiapuntua: auziaren egoera.

Kultura kontsumitzeko eta kulturaren aritzeko modu berriak sortu dira EAEko gazteen artean. Horiek ezagutu aurretik, hala ere, gazteen egoera irudikatuko dugu, haiei buruzko zenbait datu **sozial eta demografiko**⁷⁶ ematearen bidez.

Herritar guztien kopurua hazi arren, gazteen kopurua murriztu egin da nabarmen azken urteotan. Gazteen taldea zahartzen ari da eta, atzerritik etorritako lehen baino pertsona gehiago daudenez, haren osaera errotik aldatu da.

Prestakuntza-mailari dagokionez, gazteen hamarretik zortzik bigarren hezkuntza amaitu du gutxienez. **Euskararen ezagutza eta erabilerari** dagokionez, berriz, gazte elebidunen kopuruak gora egin du etenik gabe.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Gazteen lan-jarduerari eta erosteko ahalmenari dagokionez, lan-merkatua azkar hondatu da eta, ondorioz, langabezia dauden gazteen tasa askoz handiagoa da herritar guztiena baino. Horregatik, familiaren diru-sarrerei esker bizi dira gazte gehienak.

Kultura-ohiturak⁷⁷

Helduek baino neurri handiagoan gauzatzen dituzte gazteek hainbat kultura-jarduera, hala nola: musika entzutea, zinemara joatea, kontzertuetara joatea, eta liburutegietara edo mediateketara joatea.

Zehazki, egunero edo ia egunero entzuten du musika 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %82,6k eta EAEko herritar guztien %54,9k; azken hiruhilekoan zinera joan da gazteen %71,5 eta herritar guztien %40; azken hiruhilekoan kontzerturen batean izan da gazteen %30,3 eta herritar guztien %16,6; azken hilabeteetan liburutegiren edota mediatekaren batera joan izan da gazteen %33,2 eta herritar guztien %17,5.

Gainerako kultura-jardueretan, aldiz, adin-tarte guztietako pertsonak berdintsu hartzen dute parte.

Euskal gazteek **museoetara, arte-galerietara, erakusketetara**, eta beste kultura-ekipamendu batzuetara egiten dituzten bisitak aztertuko ditugu orain. Euskal gazteen %20 baino gutxiagok du museoetara joateko ohitura (ohituratzat hartuko dugu, hain zuzen, azken hiru hilabeteetan behin gutxienez joan izana). Bestetik, gazteen %10 baino gutxiagok du galerietara edo erakusketetara joateko ohitura.

Herritar guztien taldean gertatu bezalaxe, gazteetan ere askoz txikiagoa da **arte eszenikoko** emanaldiren batera joandakoen kopurua kulturaren beste modalitateetan parte hartzen dutenena baino. Horrela, azken hiruhilekoan gutxienez behin antzerkira joan da gazteen %8,7; dantza-emanaldietara, berriz, gazteen %3,8; eta lirika-saioetara gazteen %1,3.

Arestian aipatutakoez gain, hamar gaztetik lauk arte-jardueretan hartzen dute parte, adibidez: musika-tresna bat jotzea, argazkilaritza, margotzea, eta idaztea. Herritar guztien batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da era horretako jarduerak gauzatzen dituzten gazteen kopurua.

Nabarmenezkoa da, baita ere, nolabaiteko lotura dagoela gazteek gehien erabiltzen dituzten ekipamendu teknologikoen eta kultura-jarduerarik ohikoen artean: zenbat gaztek MP3 eta MP4 irakurgailuak ukan, hainbatek dute musika entzuteko eta kontzertuetara joateko ohitura. Musikarekiko zaletasunak, hain zuzen, bereizi egiten ditu gazteen belaunaldia eta helduena. Gazteen ekipamenduak eta ohiturak, esaterako, horren erakusle dira.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Bertsozaletasunak, bestetik, susperraldia izan du 25 urtetik beherako gazteen artean. Bertsolari-saioetako ikus-entzule gehienak, esaterako, gazte elebidun dira. Ez dirudi gertakari hori kasualitate hutsa izan denik. Aitzitik. Azken hamarkadetan, bertso-eskola pila bat sortu dira haurren nahiz gazteengandik gertu. Horrez gain, eskola arteko bertso-txapelketak antolatu dira; eta gero eta gazte gehiagok hartzen du parte bertsolari-txapelketetan. Horiek eta beste faktore batzuek eragin dute, beraz, bertso-saioetara gazte andana joatea. Bertsozaletasunaren berpizkundeaz gain, baliteke beste faktore batzuk ere zerikusirik izatea bertso-saioetako ikus-entzuleen gorakadarekin; adibidez: bertsolaritza, euskal tradizioan aski erroturik dagoen kultura-adierazpidea, eguneratu izana. Demolinguistikaren aldetik, halaber, gogoan izan behar dugu gazteen taldean besteetan baino handiagoa dela elebidunen kopurua.

Elebitasunaren hariari tenk, ezaugarri linguistikoek izan dezaketen eraginari buruzko gogoeta egingo dugu orain. Datuen arabera, gazte elebakar baino gazte elebidun gehiago doa kontzertuetara, antzerkia ikustera, eta bertso-saioetara.

Gazte elebidunek, hala ere, ez dute euskararen aldeko hautua egin **euskarazko zenbait kultura-jardueretan**. Adibidez, gazte elebidunen %43,5ek besterik ez du irakurtzen euskarazko libururik; eta gazte elebidunen %41,9 besterik ez da joan euskarazko antzezlanen bat ikustera. Hedabideei dagokienez, gazteen heren batek baino gutxiagok ikusten du lanegunetan telebista euskaraz. Irratia euskaraz entzuten dutenen kopurua hori baino zertxobait handiagoa bada ere, gazte gehienek ez dute irratia euskaraz entzuten.

Mutil eta nesken artean, bestetik, bada nolabaiteko aldea; ez da sekulako aldea, baina nolabaiteko joera suma dezakegu. Horrela, mutilek baino joera handiagoa dute neskek ondoko hauek egiteko: Aisialdi-liburuak irakurtzeko; liburutegi eta mediateketara joateko; antzerkia ikusten joateko; eta dantza-emanaldietara joateko. Kontzertuetara, berriz, neska baino mutil gehiago joaten da.

Adierazpen artistiko eta sormenezkoa⁷⁸

Elkarren segidako eta bata bestearekin lotutako hainbat fasetan banatzen da gazteen **adierazpen artistikoaren eta sorkuntzazkoaren** prozesua. Fase horiek, hala ere, ez dira ontzi hermetikoak.

Sorkuntzari dagokionez, hauteman behar dira profesionalek nahiz amateurrek sortzeko fasean izan ditzaketen beharrak. Hartara, sorkuntza sustatu beharko luke Administrazioak, esaterako, ekimenentzako azpiegiturak, laguntza ekonomikoak, programak, zerbitzu berriak eta jarduerak garatzearen bidez. Halaxe eman du aditzera, bederen, lehen aipatutako diagnostikoak.

Alde handia dago sektore bat eta besteko azpiegituren artean. Hala eta guztiz ere, gutxieneko egiturak egon badaude EAEn eta, zerbait egitekotan, horiek bikaindu beharko liriateke.

Sorkuntza-fabrikak, esaterako, hirietako sormen-laboretegi nagusietako bat bihurtu dira. Era horretako egiturak martxan jarri dira gazte sortzaileentzako politiken bidez. Profesional izateko bidearen abiaburu dira laboretegi horiek dira gazte askorentzat.

Sorkuntza-fabriketan, esaterako, ikus-entzunezkoak, musika, antzerkia, arte eszenikoak, dantza eta beste diziplina batzuetako saiakerak nahiz sormen-lanak egiteko parada dute gazteek. Era horretako guneak sortu ziren, gehienbat, beren proiektuak garatzeko lehen bultzadaxoaren beharra duten taldeentzat eta artistentzat.

Sormena pil-pilean da mintzagai ditugun fabrika horietan. Ez da harrizkoa, beraz, hizkuntza berriak edo diziplinen arteko elkar trukeak gertatzea gune horien baitan. Baliabide digitalen, teknologia berrien, eta sormen artistikoari buruzko ikerketa bultzatzen duten makina bihurtu dira sorkuntza-fabrika horietako asko; gune horiek bide ematen baitute hiru diziplina horien artean saiakerak egiteko. Azken batean, kulturaren I+G esparru bilakatzeaz gain, kultura gerturatzeko estrategien tresnarik garrantzitsuenak dira sorkuntza-fabrikak. Beren sormen-proposamenak garatzeko aukera ematen diete esparru horietako askok sortzaile gazteei. Are gehiago, beste era batera ezin jendartera zitezkeen proiektuak gauzatzeko baliabideak eskaintzen dituzte mintzagai ditugun laboretegiek. Baina sortzeko eta ekoizteko aukera emateaz gain, artelanak ezagutzera emateko orduan ere berealdiko garrantzia dute sormen-fabrikek. Hizkuntza berrietara adi dauden eta kultura-proposamen berritzaileak hartzeko prest dauden ikus-entzuleak sortzearen alde egiten dute lan era horretako egiturek.

Hala ere, gazte izan ohi dira egile berriak, eta hizpide ditugun azpiegiturez baliatzeko deialdietatik kanpo geratzen dira maiz. Horixe hauteman daiteke, bederen, ibilbiderik luzeenak dituzten ekimenetan. Prozedurak ezagutzen ez dituztelako, edo proiektu handinahiak aurkezteko nahikoa baliabiderik ez dutelako geratzen dira gazteak lehiaketa horietatik kanpo, nahiz eta, berez, haientzako izan esparru eta zerbitzu horiek.

Hortaz, gazte-sortzaileak babesteko estrategiak jarri behar dira martxan, gazteek beren lekua izan behar baitute sorkuntza-fabriketan. Martxan jarri behar dira, baita ere, ibilbide profesionalak garatzeko laguntza-zerbitzuak, hasierako nahiz etengabeko prestakuntza-zerbitzuak, bekak, eta abar. Era horretako estrategiarik aplikatzen ez bada, sorkuntza-fabriketatik kanpo izango dira sormen-mota guztietan finkatze-mailarik txikiena duten horiek.

Sorkuntzak berealdiko garrantzia badu ere, ezin ahantz ditzakegu artelanak **sustatzeko eta ezagutzera emateko** faseak. Fase horietan, beraz, kultura-jarduera eta -sorkuntza jakin batzuk jendarteratu eta sustatuko dira. Jarraian, alabaina, fase baten eta bestearen arteko aldea zein den azalduko dugu. Ezagutzera ematen dira, adibidez, sortzaile ezagun eta itzal handikoen lanak. Ezagunak ez diren egileen artelanak, berriz, sustatu egiten dira. Egile ezezagunek, hortaz, besteek baino bultzada handiagoa behar

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

dute, batez ere, arte eszenikoetan, ikus-arteetan, musika klasikoaren alorrean, eta ekimenen behar handia duten beste sektore batzuetan.

Alde horretatik, sormen-zentro guztiek gauza bera ondorioztatu dute: sormen-lanaren berezko partetzat hartu beharra dagoela ekoiztitakoa ezagutzera ematea. Artesortzeko eta ekoizpenak egiteko zentroak badira ere, bertan aritzen diren egileen lanak ezagutzera eman behar dituzte sorkuntza-fabrikek. Sormen-prozesuaren eta artelanak ezagutzera ematearen artean lotura handia izan behar da; norbaitek noizbait ikus, goza eta kontsumi ditzan sortzen baitira artelanak.

Kultura-kontsumoaren gain teknologiak duen eragina

Azterlanen arabera, gure gizarteko **gazteek harreman ia naturala dute aurrerakuntza teknologikoekin**. Egia da, hala ere, zenbait gaztek –dena delakoagatik– ez dutela teknologia berriak erabiltzeko aukerarik.

Jarraian, ordea, mintzagai dugun eremuko ezaugarriarik adierazgarrienei buruz arituko gara. Hasteko, **alde handia dago** gazteetan gazteenen (hots, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen) eta gainerako adin-tarteetako pertsonen **ekipamendu teknologikoen artean**⁷⁹. Esaterako, 25 eta 34 urte bitarteko gazteek eta herritar helduek baino are ikus-entzunezko, soinu- eta IKT-ekipamendu gehiago dituzte 15 eta 24 urte bitarteko gazteek. Zehazki, era honetako ekipamendu teknologikoez ari gara: MP3 -eta MP4- irakurgailuak, mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, Interneterako konexioa, kotsolak, bideo-kamerak, eta musika-irakurgailudun sakelakoak.

Ondoriozta dezakegu, beraz, adin-tarte bat eta besteko kideek desberdin hartu dituztela ekipamendu teknologikoak. Horrela, herritar gehienek telebista, irratia, musika-ekipoa, argazki-kamera, eta beste tresna tradizional batzuk erabiltzen badituzte ere, azken hamarkadan merkaturatutako gailu berriak ez dira adin-tarte guztietan berdintsu erabili. Aztergai dugun eremu honetan, beraz, herritar helduen egoeratik gertuago daude 25 eta 34 urte bitarteko gazteak 15 eta 24 urte bitarteko gazteengandik baino.

Jakiten zaila da, hala ere, zergatik izan duten ekipamendu teknologikoek arrakasta handiagoa adin-tarte jakin batzuetan besteetan baino. Izan daiteke, esaterako, gauza berriak hartzeko ohitura izatea gazteek, eta helduek, berriz, betikoaren alde egitea. Izan daiteke, bestela ere, belaunaldi edota adin-tarte bakoitzak berezko bere balioak, joerak eta kultura-jokabideak izatea.

Gazteek –gaztetxoenek, bereziki– **xede kulturaletarako erabiltzen dute internet**⁸⁰, helduek baino askoz gehiago (kulturarekin lotura duen zerbaitetarako erabiltzen du Internet 15 eta 29 urte-bitarteko gazteen %66,3k; herritar guztien multzoan, aldiz, %39,1ek). Sekulako aldea dago, baita ere, Interneten bidez musika entzun edo filmak ikusten dituzten gazteen eta, bereziki, 55 urtetik gorako helduen artean. Hala ere,

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

sarearen bidez egin daitezkeen gainerako kultura-jardueretan ez dago halako alde handia bi talde horien artean. Badirudi **ohiko kultura-jarduerak** gauzatzen dituztela gazte askok, adibidez: musika entzutea eta filmak ikustea. Internetek hainbat jarduera berritzaile eta iraultzaile gauzatzeko aukera ematen badu ere, gutxi batzuk baino ez dira haietaz baliatzen, ez gazteen artean, bakarrik. Gazteek, oro har, betikoa kontsumitzen dute, baina bide nahiz baliabide teknologiko berriak erabiliz⁸¹.

Argi dago, behintzat, gazte gehienek ezin irudika dezakete hizpide ditugun teknologiarik gabeko bizitza. Are gehiago, zenbait gailurekiko menpekotasuna izatea adierazi dute hainbatek; sakelakoarekiko, bereziki.

Teknologia horien abantaila edo balio nagusiak dira mundu-mailako irismena dutela, mugarik gabe eta doan erabil daitezkeela, erosoak direla, erabiltzen errazak, azkarrak eta berehalakoak.

Azkenik, **gizarte-sareen** agora berriari buruzko zenbait azalpen emango ditugu. Interes handiko fenomeno bihurtu dira gizarte-sareak, gazteak eta, Facebook-en datuen arabera, hain gazteak ez direnak ere komunikatzen baitira haien bidez. Erabiltzaile gehienak neska gazteak dira.

Gizarte-sareen dinamikak eta mekanismoak ulertu behar dituzte ezinbestean gaur egungo gazteei zuzendutako politikak. Azken hamarkadetan, aldaketa handiak izan dira gizartean, teknologiaren alorrean, eta kontsumoan. Gazteen gain eragin handia izan dutenetik, aldaketa horietara egokitu behar dira gazteen nahiz kulturaren alorreko politika berriak.

2010ean, zehazki, egunero edo ia egunero sartzen zen gizarte-sareetara 15 eta 29 urte bitarteko gazteen erdia baino gehiago; eta 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %72,2.⁸²

Gizarte-sareen erabilerari dagokionez, beste herrialde batzuetako gazteekin harremanean egoteko erabiltzen ditu gizarte-sareak EAEko gazteen %41,8k. Gazte horiei, beraz, kultura-arteko harremanak sortzeko aukera ematen diete gizarte-sareek.⁸³

Ondorioak

- Gazteek biziki atsegin dute musika entzutea, eta horretan aritzen dira maiz. Horixe da, hain zuzen, gazteen eta gainerako adin-tarteetako pertsonen arteko desberdintasunik handienetako bat. Gauza bera gertatzen da musika entzuteko gazteek erabiltzen dituzten baliabideekin: MP3- eta MP4-irakurgailuak, Internet, kontzertuetara joatea, eta abar.
- Askoz txikiagoa da museoetara, arte-galerietara, erakusketetara edota arte eszenikoen emanaldietara (hots, antzerki-, dantza- eta lirika-saioetara) joaten diren gazteen kopurua beste era bateko kultura-jardueretan parte hartzen dutenena

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

baino. Hala ere, era horretako emanaldietara joaten diren gazteen tasa herritar guztienaren antzekoa da.

- Bertsozaletasuna puri-purian dago gazteetan gazteenen artean (15 eta 24 urte bitartekoen artean); gazteetan helduenen (25 eta 34 urte bitartekoen) artean eta herritar helduen artean baino are gehiago.
- Desberdintasunak daude kontzertuetara, antzerkira nahiz bertso-saioetara joaten diren ikus-entzule elebidun eta elebakarren artean.
- Sortzaile berriek –gazteek, bereziki– ez dute laguntzarik izaten beren obrak sortzeko eta ezagutzera emateko.
- Gazteek naturaltasun osoz hartzen dituzte aurrerakuntza teknologikoak. Dena delakoagatik, hala ere, teknologia berriak erabiltzeko aukerarik ez dute zenbait gaztek.
- Interneten ere, ohiko jarduerak gauzatzen dituzte gazteek: musika entzutea eta filmak ikustea, nagusiki. Gazteek, oro har, betikoa kontsumitzen dute, baina bide nahiz baliabide teknologiko berriak erabiliz.
- Interes handiko fenomeno bihurtu dira gizarte-sareak, herritar askok erabiltzen baititu; zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago. Beste herrialdeetako gazteekin harremanean egoteko asmoz erabiltzen ditu era horretako sareak gazteen lautik batek.

Beharrak

- 1.- Filmez eta musikaz gain, gazteek artearen eta kulturaren beste adierazpide batzuez balia daitezela lortzea.
- 2.- Kultura-jardueretan gazteek euskarazko eskaintzaren alde egin dezatela lortzea.
- 3.- Sortzaile gazteak babestea eta haiek sortutako artelanak jendarteratzen laguntzea, artearen eta kulturaren diziplina guztietan.
- 4.- Gazteei ezagutaraztea sortzeko, berritzeko nahiz kritiko izateko IKTek ematen dituzten aukerak.

2. III Gazte Planak kulturaren alorrean izango dituen lehenetsuzko eginkizunak

Hautemandako beharrei erantzuteko asmoz, ondoko eginkizun hauek lehenetsiko dira kulturaren alorrean:

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

1. Are gazte gehiago kulturan murgilaraztea eta gizon nahiz emakume gazteek kultura berdintasunez eskura dezaketela bermatzea.
2. Kulturaren alorreko sortzaile gazteak sustatzea eta haien lanak ezagutzera ematea. Era berean, arreta berezia jarriko da emakume gazteengan, hain zuzen presentzia urria edo ikusgarritasun nahikoa ez duten arloetan.
3. Kulturaren alorreko materialak sortzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko orduan, hizkuntza- nahiz kultura-aniztasuna kontuan izatea eta, hori egitean, euskara sustatzea.

3. III. Gazte Planaren Kulturaren alorreko helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak

1. Are gazte gehiago kulturan murgilaraztea eta gizon nahiz emakume gazteek kultura berdintasunez eskura dezaketela bermatzea.
 - Kultura kontsumitzeko ohiturak sortzea eta, hori egitean, artearen nahiz kulturaren hainbat diziplina gazteei ezagutaraztea.
 - Gazteentzako kultura-eskaintza eskuragarriago egitea.
 - Kulturaren alorreko politikak diseinatzeko orduan gazteei parte hartzeko aukera ematea. Era berean, arreta berezia jarriko da emakume gazteengan, hain zuzen presentzia urria edo ikusgarritasun nahikoa ez duten arloetan.
2. Kulturaren alorrean, gazteek obrak sor eta ekoitzi ditzatela sustatzea. Era berean, arreta berezia jarriko da emakume gazteengan, hain zuzen presentzia urria edo ikusgarritasun nahikoa ez duten arloetan.
 - Euskadiko eta Euskaditik kanpoko gazteek atsegin izango dituzten kultura-sorkuntzako esparruak sustatzea.
 - Beren sormena garatzeko eta beren obrak jendarteratzeko beharrezkoak diren prestakuntza eta baliabideak jartzea sortzaile gazteen esku.
 - Kultura-adierazpenaren errealitate, modu eta tresna berriak zaintzea.
 - Beren obrak sortzeko eta ekoizteko orduan, gazteek IKTak erabil ditzatela sustatzea.
3. Kultura-adierazpenak sortzean eta kontsumitzean, hizkuntza- nahiz kultura-aniztasuna zaintzea.
 - Gazteentzako kultura-eskaintzan euskararen erabilera sustatzea.
 - Gazteek sortutako edo ekoiztutako kultura-obrak euskaraz izan daitezela sustatzea.
 - Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.
 - Euskal gizartearen kultura-aniztasuna erakustea, eta kulturen arteko harremanak sustatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINBEHARRAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p>- Filmez eta musikaz gain, gazteek artearen eta kulturaren beste adierazpide batzuez balia daitezela lortzea.</p> <p>- Kultura-jardueretan gazteek euskarazko eskaintzaren alde egin dezatela lortzea.</p> <p>- Sortzaile gazteak babestea eta haiek sortutako artelanak jendarteratzen laguntzea, artearen eta kulturaren diziplina guztietan.</p> <p>- Gazteei ezagutaraztea sortzeko, berritzeko nahiz kritikotzeko izateko IKTek ematen dituzten aukerak.</p>	<p>- Are gazte gehiago kulturaren murgilaraztea eta gizon nahiz emakume gazteek kultura berdintasunez eskura dezatela bermatzea.</p> <p>- Kulturaren alorreko sortzaile gazteak sustatzea eta haien lanak ezagutzera ematea. Era berean, arreta berezia jarriko da emakume gazteengan, hain zuzen presentzia urria edo ikusgarritasun nahikoa ez duten arloetan.</p> <p>- Kulturaren alorreko materialak sortzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko orduan, hizkuntza- nahiz kultura-aniztasuna kontuan izatea eta, hori egitean, euskara sustatzea.</p>	<p>1.- Are gazte gehiago kulturaren murgilaraztea eta gizon nahiz emakume gazteek kultura berdintasunez eskura dezatela bermatzea.</p> <p>2.- Kulturaren alorrean, gazteek obrak sor eta ekoitzi ditzatela sustatzea. Era berean, arreta berezia jarriko da emakume gazteengan, hain zuzen presentzia urria edo ikusgarritasun nahikoa ez duten arloetan.</p> <p>3.- Kultura-adierazpenak sortzean eta kontsumitzean, hizkuntza- nahiz kultura-aniztasuna zaintzea.</p>	<p>1.1.- Kultura kontsumitzeko ohiturak sortzea eta, hori egitean, gazteek artearen nahiz kulturaren hainbat diziplina ezagut ditzatela lortzea.</p> <p>1.2.- Gazteentzako kultura-eskaintza eskuragarriago egitea.</p> <p>1.3.- Kulturaren alorreko politikak diseinatzeko orduan gazteei parte hartzeko aukera ematea.</p> <p>2.1.- Euskadiko eta Euskaditik kanpoko gazteek atsegini izango dituzten kultura-sorkuntzako esparruak sustatzea.</p> <p>2.2.- Beren sormena garatzeko eta beren obrak jendarteratzeko beharrezkoak diren prestakuntza eta baliabideak jartzea sortzaile gazteen esku.</p> <p>2.3.- Kultura-adierazpenaren errealitate, modu eta tresna berriak zaintzea.</p> <p>2.4.- Beren obrak sortzeko eta ekoizteko orduan, gazteek IKTak erabil ditzatela sustatzea.</p> <p>3.1.- Gazteentzako kultura-eskaintzan euskararen erabilera sustatzea.</p> <p>3.2.- Gazteek sortutako edo ekoiztutako kultura-obrak euskaraz izan daitezela sustatzea.</p> <p>3.3.- Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.</p> <p>3.4.- Euskal gizartearen kultura-aniztasuna erakustea, eta kulturen arteko harremanak sustatzea.</p>

2. ARDATZA: BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

7. AREA: AISIALDIA

Kultura-jarduerekin gertatu bezalaxe, gazteek aisialdian gauzatzen dituzten jarduerak eragin handia izango dute haien identitatea taxutzeko orduan. Pertsonen nortasuna eratzeko prozesuan lan-arloak eragin handi-handia zuela uste zen aurreko hamarkadetan. Azken urteotan, ordea, aisialdiak eta beste erabateko faktoreek pertsonen nortasunaren eta bizimoduaren gain eragin handia dutela uste da.

Nabarmendu beharra dago, bidenabar, azken urteotan garrantzi handiko bilakaera izan duela aisialdiaz gozatzeko moduak. Gaur, adibidez, lehen baino denbora libre gehiago dugu; lehen baino pertsona gehiagok gozaten du aisialdiaz; eta aisialdiko jardueren eskaintza handiagoa dugu lehen baino.

Aisialdiaz gozatzeko moduetako asko, bestetik, kontsumoan oinarritzen dira. Beste alderdi askotan gertatu bezalaxe, gainera, teknologiak erabiltzen dira baita aisialdian ere. Beste adin-tarteetako pertsonen gain baino are eragin handiagoa dute gazteen gain bi faktore horiek.

Kulturaren alorrean egin dugun moduan, IKTen eragina eta aisialdiko jardueretan bi hizkuntza koofizialak nola erabiltzen diren aztertuko dugu aisialdian ere.

1. Abiapuntua: auziaren egoera.

Nagusiki, "Euskadiko Gazteen Egoeraren Diagnostikoa. 2009ko abendua. Datu nagusien sintesia" izeneko txostenetik hartu ditugu atal hau idazteko datuak. Gazteen Euskal Behatokiak egin zuen txosten hori 2009an, eta Behatokiaren web-orrian dago eskuragarri⁸⁴. III. Gazte Planerako oinarri moduan egin zen mintzagai dugun diagnostikoa, eta hartaz baliatu dira III. Gazte Plana diseinatu duten teknikariak. Atal honetan, badira lehen aipatutako diagnostiko horretatik hartu ez ditugun zenbait datu. Horiek erabiltzean, datua nondik hartu dugun azalduko dugu eranskinean. Gerta daiteke, baita ere, diagnostiko horretan jasotakoak baino berriagoak izatea zenbait datu. Horrelakoetan ere, datu berrien iturria zein den adieraziko dugu eranskinean.

Denbora librearen erabilera

Gazteen aisialdia aztertzeke orduan, kontuan izan behar dugu **eguneko hiru ordu edo gehiago libre dituela lanegunetan** gazteen lautik hiruk. Langabezian diren gazteak eta gizonak dira guztietatik denbora libreerik gehien duten taldeak.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Seme-alabak etxean izateak eragin handia du pertsona bakoitzak duen denbora librearen gain. Seme-alabak dituzten emakumezkoek denbora libre gutxiago dute seme-alabarik ez duten emakumeek baino. Gizonezkoetan, ordea, guztiz kontrakoa gertatzen da: aita diren gizonek denbora libre gehiago dute seme-alabarik ez dutenek baino.

Aisialdiko jardueri dagokienez, telebista ikusi, lagunekin egon, neska- ala mutil-lagunarekin egon, eta musika entzuten dute gehienbat gazteek **astean barrena**. Kirola egiten eta etxeko ordenagailuan denbora pasa aritzen dira gazteak maiz. **Asteburuan**, ordea, beste era bateko jarduerak egin ohi dituzte gazteek; lagunekin eta bikotekidearekin egoteaz gain. Alde handiz, izan ere, lagunekin eta neska -edo mutil-lagunarekin egoten ematen baitute denbora gehien gazteek asteburuan. Aipatutako horiez gain, ondoko jarduera hauek gauzatu ohi dituzte gazteek astebukaeretan: tabernetara, kafetegietara eta dantzalekuetara joatea; kirola egitea; eta atsedean hartzea.

Aipatu berri ditugun datuak babesten dituzte beste iturri batzuek ere⁸⁵. Azken horietan adierazten da, esaterako, **sozializazio-jarduerak** gauzaten dituztela gazteek aisialdian, hau da, irtetea, tragoak hartzea, kafetxo bat hartzera joan, eta abar. Are gehiago, berez kulturaren arloko jarduerak gauzatzean ere –hala zinemara nola kontzertuetara joatean, adibidez– alderdi sozializatzaileak lehenesten dituzte gazteek. Aipatu txosten horietan adierazten da, baita ere, gazteek gero eta gutxiago ikusten dutela telebista. Hainbat hamarkadetan telebistaren ikusle nagusi izandako horiek, alabaina, Interneten sartuta ibiltzen dira orain.

Kirola egitea

Gutxienez kirol batean aritzen da Euskadiko gazteen erdia baino gehiago (%54,5). Zehatz esateko, gazteen %35,6 kirol batean aritzen da; eta %18,9, aldiz, kirol bat baino gehiagotan⁸⁶.

Mutil eta nesken artean, halaber, desberdintasunak daude kirola egiteari dagokionez. Kirola egiten du gizonen %66,1ek eta emakumeen %42,6k.

Gazteen %33,5ek dibertitzeko eta denbora pasatzeko egiten du kirola; gazteen %20,6k, berriz, “atsegin duelako”; eta gazteen %18 ariketa fisikoa egiteagatik.

Gazteen %22, bestetik, kirol-elkarte bateko kide da. Mutilek, beren aldetik, era horretako elkarteetan parte hartzen dute haien adin bereko neskek baino askoz gehiago.

Nabarmendu beharra dago, baita ere, **eskola-kirolaren bidez** hasten direla gazte gehienak **kiroletan**.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Ondoren, urteek aurrera egin ahala, kirolen eskakizun-maila gero eta handiagoa da. Orduan, kirol batean federatzeko garaia iristen denean, kirola egiteari uzten diote gazte askok. Gazteek kirola egiteari uzten diote, baita ere, kirolaren berezko lehiakortasunagatik. Hau da, “balio” duten pertsonak aurrera egiten dute; balio ez dutenak, aldiz, bazter geratzen dira.

Kirola egitearen berezko alderdiak bazter utzita, gazteek kirola egiteari uzten diote, baita ere, aisialdian beste jarduera batzuk egin ditzatela eskatzen dietelako gurasoek; kirola eta ikasketak ezin batera ditzaketelako; edota beste era bateko jarduerak nahiago dituztelako.

Teknologia berrien erabilera

Jarraian, zehaztasun handiz aztertuko dugu nola **erabiltzen dituzten** gazteek **teknologia berriak aisialdian**. Horretarako, 2010ean egindako “*Uso de nuevas tecnologías entre la juventud de Euskadi*”⁸⁷ azterlanaren aurrapen-datuak hartuko ditugu oinarri.

Kulturari buruzko atalean aipatu bezala, 15 eta 29 urte bitarteko pertsona ia guztiek **sakelako telefonoa** dute, eta adin horretako gazteen %95 **Internetera** konektatzen da. Nabarmendu beharra dago, baita ere, gazteen lautik hiru interneten aritzen dela astean gutxienez 7 orduz; hau da, egunean gutxienez ordubete, batez beste. Gainera, astean 20 ordu baino gehiagoz aritzen da interneten gazteen heren bat; eta, are gehiago, 20 eta 24 urte bitartekoek gaingitu egiten dute batez besteko hori. Harrigarria da, baita ere, zelako azkar hazi den Interneten erabilera. 2008. urtetik, esaterako, hirukoiztu egin da Internet astean 20 ordu baino gehiagoz erabiltzen duten gazteen ehunekoa.

Bestetik, gazteek Internet zenbat erabiltzen duten neurtzeko orduan, bada gogoan izan behar dugun beste adierazle bat: sakelakoaren bidez Internetera konektatzen diren gazteen ehunekoa. Horrela, gazteen %11 baino zertxobait gehiago egunero edo ia egunero konektatzen da Internetera sakelakoaren bidez. Ehuneko hori, alabaina, ia bikoiztu egiten da, kontuan hartzen badugu astean behin sakelakoaren bidez Internetera konektatzen diren gazteen kopurua.

Gazteek, bidenabar, **e-postak bidaltzeko, jasotako e-postak irakurtzeko, eta gizarte-sareetara konektatzeko erabiltzen dute** gehienbat Internet. Adinaren arabera, bestetik, xede desberdinetarako erabiltzen dute gazteek sarea. Gazteetan zaharrenek, esaterako, e-posta kontsultatzen dute gehienbat. Gazteetan gazteenak, berriz, gizarte-sareak nahiago dituzte; era horretako sareren batera egunero edo ia egunero konektatzen baita 15 eta 19 urte bitarteko gazteen lautik ia hiru. Beste pertsona batzuekin harremanean egoteko asmoz, Messengerrean edo txatetan ere aritzen da gazteen hamarretik ia lau. Arestian aztertutako beste gai batzuetan gertatu bezala, gazteetan gazteenak dira era horretako plataformak gehien erabiltzen dituztenak.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Ikasteko, ikasgaiekin lotutako informazioa bilatzeko, eta internet bidezko ikastaroak egiteko erabiltzen du Internet egunero edo ia egunero gazteen heren batek baino gehiagok. Xede horretarako erabiltzen dute Internet, gehienbat, neskek eta 20 eta 24 urte bitarteko pertsonak. Bestetik, **egunkariak irakurtzeko** erabiltzen du Internet egunero edo ia egunero gazteen heren batek. Internet horretarako erabiltzen duten gehienak gizona dira, eta gazteetan zaharrenak. Azkenik, **lanerako** edo lanarekin lotura duen informazioa bilatzeko erabiltzen du Internet gazteen hamarretik hiru. Internet lanerako erabiltzen dute, gehienbat, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak.

Era berean, musika entzuteko, bideoak edo pelikulak ikusteko, hainbat gairi buruzko web-orriak kontsultatzeko, eta egunkariak irakurtzeko erabiltzen dute Internet 15 eta 24 urte bitarteko gazteak; 25 eta 34 urte bitartekoei baino are gehiago⁸⁸.

Aisialdirako ekipamendu teknologikoei dagokienez, alde handia dago gazteetan gazteenen (15-24) eta gainerako adin-tarteetako pertsonen artean. Esaterako, gazteetan zaharrenak (hots, 25-34 urte bitarteko gazteak) eta herritar helduek baino are ikus-entzunezko, soinu- eta IKT-ekipamendu gehiago dituzte gazteetan gazteenek. Zehazki, era honetako ekipamendu teknologikoez ari gara: MP3- eta MP4-irakurgailuak, mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, Interneterako konexioa, eta kontsolak.

Aurreko belaunaldietan gertatu ez bezala, egungo gazteak asko erabiltzen dituzte **gizarte-sareak**. Fenomeno horren baitan, bidenabar, konexio- eta elkarte-dinamikak batu dira. Gazte gehienek profilen bat dute gizarte-sareren batean. Gizarte-sarerek erabilienak Tuenti eta Facebook dira. Egunero konektatzen dira gazteak era horretako sareetara, lagunen azken oharren berri izateko edo lagunek utzitako azken mezuak irakurtzeko. Gazteak gizarte-sareak erabiltzen dituzte, nagusiki, lagunekin argazkiak eta bideoak elkar trukatzeko, beren iritziak eta interesak adierazteko, urrun duden lagunekin harremanean egoteko, "ligatzeko", edota eurek antolatutako ekintzen berri besteei emateko. Gizarte-sareen bidez, gainera, sms-tik edo telefonotik esan beharrekoak esaten dizkiote gazteak elkarri⁸⁹.

Goian erabilitako iturriari helduz, teknologia berriak erabiltzearen eta horien arteko interakzioaren ondorioz, **funtzio nahiz egitura mental berriak** garatu dituzte teknologia digitalaren garaian sortutako pertsonak. Hau da, aldi berean eta bat-batean hainbat gauza egiteko aukera ematen dute IKTk eta, horren eraginez, beste era bateko mentalitatea sortu da: gazteak ez dakite zain egoten; ez diote eusten informazioaren hurrenkera linealari; edukiak sortzeko orduan jarrera aktiboa dute; sortzaileak dira; eta abar.

IKT-en erabilerari dagokionez, gauza praktikoetarako erabiltzen dute teknologia gazteetan zaharrenak, batez ere, alde aurretik pentsatuta duten zerbaitetarako: Bidaia bat programatzeko, informazioa bilatzeko, telesail bat ikusteko, eta abar. Gazteetan zaharrenak, beraz, gauza askotarako erabiltzen dituzte teknologia berriak, eta helburu zehatz baterako konektatzen dira sarera.

Elkarte-mugimendua

Gazteen aisialdiarekin lotura duten eragilerik garrantzitsuenetako bat dira **elkarteak**.

Elkarteek, beraz, **aisialdi** eta **denbora librerako** jarduera ugari **eskaintzen** dizkiete gazteei. Elkardeen bidez, halaber, berezko beren **ekimenak** gara ditzakete gazteek eta, aldi berean, beren ingurua eraikitzeko nahiz hura aldatzeko prozesuko **eragile aktibo nahiz protagonista** izan daitezke.

Antzina gertatu bezala, egunotan ere balio-hezkuntzaren eta herri-lanaren alde lan handia egin dute **denbora librean hezteko elkardeen**.

Goazen, bada, goian adierazitakoari buruzko datu zehatzak ematera. Elkardeen bateko kide dira EAeko gazteen hamarretik lau⁹⁰. Aldagai horretan, bidenabar, nolabaiteko aldea dago sexu, adin eta gizarte-klase desberdinetako gazteen artean. Hau da, elkardeen bateko kide diren mutilen tasa pixka bat handiagoa da neskena baino. Horrez gain, eskala sozioekonomikoan behera egin ahala, gero eta txikiagoa da elkardeen bateko kide diren pertsonen kopurua. Beste horrenbeste gertatzen da urteekin; hau da, zenbat eta zaharrago orduan eta txikiagoa da elkardeen bateko kide diren gazteen tasa.

Bestetik, elkardeen bateko kide diren EAeko gazteen tasa askoz handiagoa da Europar Batasuneko 27 herrialdeetako gazteena baino. Alegia, elkardeen bateko kide dira Europar Batasuneko 27 herrialdeetako gazteen %22. Datu hori hartu dugu, hain zuzen, Europako Batzordearen aginduz 2007an egindako *Young Europeans. A Survey Among Young People Aged Between 15-30 in the European Union, Flash Eurobarometer 202*⁹¹ izeneko azterlanetik. Aipatutako azterlan hori egiteko, ondoko galdera hau egin zieten Europar Batasun osoko 15 eta 30 urte bitarteko 19.625 gazteri: «Are you a member of an organisation?»

Elkardeen bateko kide diren gazteen kopuruari dagokionez, bestetik, ez da ia aldaketarik egon azken bi hamarkadetan. Alde handiz, kirol-elkardeen bateko kide dira gazte gehienak. Kirol elkardeen ondotik, gazte asko elkartzen dira, baita ere, txokoetan, peñatan, konpartsetan, blusetan, kultura- edo arte-elkardeen, musika-elkardeen, mendi-taldeetan, ikasle-elkardeen, sindikatuetan, denbora librean hezteko elkardeen, kooperaziozkoetan, eta euskararen aldeko elkardeen.

Elkarteko kide izatearen ildo beretik, GKE edo antzerako erakunderen batean **boluntario** aritzen da Euskadiko gazteen %6. Gazteen hamarretik ia lauk dio egun boluntario izan ez arren, egunen batean boluntario izatea gustatuko litzaiokeela. Oro har, boluntario aritu izan direnen eta boluntario izateko prest daudenen artean, emakumezkoak dira nagusi.

Bestalde, euskaraz jakiteari eta euskaraz mintzatzeari buruzko datuak ez datoz bat. Hau da, euskaraz dakiten gazteen hamarretik sei gaztelaniaz edo, euskaraz baino

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

gehiago, gaztelaniaz aritzen da etxean; eta gazte horien %50 baino zertxobait gehiago gaztelaniaz aritzen da lagunekin.

Ondorioak

Kirola

- Kirolen bat egiten du gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok.
- Kirolen bat egiten duten edota kirol-elkarteren bateko kide diren mutilen ehunekoak zertxobait handiagoa da neskena baino.
- Eskola-kirolaren bidez hasten dira gazte asko kirola egiten.

Aisialdia

- Egunean hiru ordu baino gehiago ditu libre gazteen lautik hiru. Ordu horietan, lagunekin egoten dira, gehienbat.
- Gazte gehienak IKTak –Internet, bereziki– erabiltzen dituzte nagusiki aisialdian.
- Lagunekin harremanean egoteko, dibertitzeko, eta gertatutakoen berri izateko erabiltzen dute Internet gazteek; ikaskuntzarekin edo prestakuntzarekin lotutako kontuetarako baino are gehiago.
- Gazteak gizarte-sareetan aritzen dira eta musika gustuko dute beste adin-tarte batzuetako pertsonak baino gehiago.
- Elkarrekin garrantzi handia dute, gazteen aisialdiaren eta denbora librearen zati handi bat betetzen baitute, eta gazteei aukera ematen baitiete hainbat ekintzatan parte hartzeko eta beren ekimenak garatzeko.
- EAEko gazteen hamarretik lau elkarteren bateko kide da; kirol-elkarteetakoak, gehien bat.
- GKEren edo antzerako erakunderen batean boluntario dabil Euskadiko gazteen %6; eta gazteen ia %40k adierazi du boluntario izatea gustatuko litzaiokeela.
- Denbora librean ere, euskaraz dakiten guztiak ez dira euskaraz aritzen.

Beharrak

Kirola

1. Gazteek –emakume gazteek, batez ere– kirola unibertsaltasunez eta inklusioz egin dezatela sustatzea. Horretarako, norbanakoaren faktoreak, gizarte-faktoreak eta inguruneko faktoreak hartu beharko dira kontuan.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

2. Nerabezaroan kirola egiteari utzi diotenen kopurua murriztea, bereziki, neskena.
3. Kirolaren bidez balio positiboak helaraztea, planifikatutako hezkuntza-ekintzen bitartez.

Aisialdia

4. Hezigarriak diren eta kontsumismoan oinarriturik ez dauden aisialdiko jarduera gehiago eskaintzea gazteei.
5. Gazteek ezagut ditzatela aisialdirako IKTek eskaintzen dituzten aukera guztietatik hezkuntzarako, sortzeko, berritzeko eta kritiko izateko baliagarriak diren horiek.
6. Gazteen ekimenak babestea hainbat arlotan.
7. Gazteen parte-hartzea babesten jarraitzea.
8. Gazteekin edo gazteentzat lan egiten duten elkarten lana babestea.
9. Gazteen artean boluntarioritza sustatzea.
10. Aisialdiko jardueretan, euskararen ezagutza eta erabilera parekatzea.

2. III Gazte Planaren lehentasunezko eginkizunak aisialdiaren alorrean

Hautemandako beharrak asetzeko asmoz, ondoko eginkizun hauek lehenetsi beharko dira:

1. Gazteen artean kirola sustatzea, kirolaren maila guztietan; batez ere, oinarritzko kirolean, sozializatzeko bide ematen baitu kirolak, eta aisialdiko jarduera osasungarria baita. Arreta berezia jarriko da emakume gazteengan eta, gizarte- eta ekonomia-mailei dagokienez, ahulenak diren biztanle-taldeengan.
2. Gazteek aisialdiaz gozatzeko dituzten jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza handitzea eta hobetzea, genero-aldeak aintzat hartuta.
3. Gazteak are ekintzaileago izan daitezela sustatzea eta gazteen ekimenak babestea; banakakoak nahiz taldekoak.
4. Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

3. III. Gazte Planeko aisialdiaren alorreko helburu estrategikoak eta esku-hartzeko ildoak

1.- Gazteen artean kirola sustatzea, maila guztietan. Batez ere, oinarrizko kirolak egin ditzatela lortzea, kirolak sozializatzeko bide ematen baitu eta aisialdiko jarduera osasungarria baita.

- Gazte-gaztetatik kirol bat baino gehiago egin dezatela sustatzea. Horretarako, diziplina askotako kirolak eskaini beharko dira.
- Gazteek aisialdian nahiz denbora librean kirola egin dezatela eta, aldi berean, hain osasungarriak ez diren beste ohitura batzuk bazter utz ditzatela lortzea.
- Kirolaren bidez, hainbat balio errotzea gizartean, eta kirol-erakundeek, kirol-taldeek, kirolari profesionalek nahiz kazetariak hezkuntza-prozesu kontziente eta nahitakoak bideratuta.
- Diagnostiko bat egitea gazteek jarduera fisikoa egiteari eta gazteen egoneko jokaerei buruz, Aktibili – Jarduera Fisikoaren Euskal Planean ezarritako parametroei jarraiki.

2.- **Aisialdiaz** gozatzeko gazteek dituzten jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza handitzea eta hobetzea.

- Tokian tokiko erakundeek laguntzak ematea, aukerako beste aisialdi-jarduera batzuk antolatzeke, eta gazteek erabiltzen dituzten ekipamenduak hobetzeko.
- Animazio soziokulturalaren alorreko bitartekariak trebatzea.
- Ikus-entzunezko jardueren, jarduera informatikoei eta teknologia berriei buruzko aisialdi-programa publikoak garatzea.
- Aldez aurretik dauden ekipamenduen erabilera bikaintzea, eta kultura- nahiz kirol-ekipamenduen behar berriak hautematea.
- Euskal Udalerrietako aisialdiaren egoera aztertzea eta aisialdiari buruzko ikuspegi berriak definitzea.

3.- **Banaka** nahiz **taldeka**, gazteak are ekintzaileago izan daitezela sustatzea eta gazteen **ekimenak** babestea.

- Elkartegintza sustatzea.
- Gazteek, gazte-taldeek eta Administrazioak hitz egiteko eta kudeatzeko esparruak hautematea, indartzea eta ezartzea.
- Partaidetzazko aisialdia sustatzea.
- Parte hartzeko modu berriak hautematea eta horiek sustatzea.
- Tokian toki, gazteen parte-hartzea bultzatzea.
- Gazteentzako boluntarioritza-programak garatzea hainbat alorretan: larrialdiak, immigrazioa, gizartea, hezkuntza, ingurumena, eta abar.

4.- Aisialdiko jardueretan **euskararen erabilera** sustatzea.

- Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.

5.- Emakumeen aurkako indarkeriazko jarreretatik segurean eta aske egongo diren aisiarako guneak eta tokiak sustatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p><u>Kirola</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gazteek –emakume gazteek, batez ere– kirola unibertsaltasunez eta inklusioz egin dezatela sustatzea. Horretarako, norbanakoaren faktoreak, gizarte-faktoreak eta ingurune faktoreak hartu beharko dira kontuan. - Nerabezaroan kirola egiteari utzi diotenen kopurua murriztea, bereziki, neskena. - Kirolaren bidez balio positiboak helaraztea, planifikatutako hezkuntza-ekintzen bitartez. <p><u>Aisialdia</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Hezigarriak diren eta kontsumismoan oinarriturik ez dauden aisialdiko jardueren gehiago eskaintzea gazteei. - Gazteek ezagut ditzatela aisialdirako IKTek eskaintzen dituzten aukera guztietatik hezkuntzarako, sortzeko, berritzeko eta kritikotzeko baliagarriak diren horiek. - Gazteen ekimenak babestea hainbat arlotan. - Gazteen parte-hartzea babesten jarraitzea. - Gazteekin edo gazteentzat lan egiten duten elkarteen lana babestea. - Gazteen artean boluntarioratza sustatzea. - Aisialdiko jardueretan, euskararen ezagutza eta erabilera parekatzea. 	<p><u>Kirola</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gazteen artean kirola sustatzea, kirolaren maila guztietan; batez ere, oinarri- kirolean, sozializatzeko bide ematen baitu kirolak, eta aisialdiko jardueren osasungarria baita. Arreta berezia jarriko da emakume gazteengan eta, gizarte- eta ekonomia- maileri dagokienez, ahulena diren biztanle- taldeengan. <p><u>Aisialdia</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gazteek aisialdiaz gozatzeko dituzten jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza handitzea eta hobetzea, genero- aldeak aintzat hartuta. - Gazteek are ekintzaileago izan daitezela sustatzea eta gazteen ekimenak babestea; banakakoak nahiz taldekoak. - Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea. 	<p><u>Kirola</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Gazteen artean kirola sustatzea, maila guztietan. Batez ere, oinarri-kirolean jardun dezatela lortzea, kirolak sozializatzeko bide ematen baitu eta aisialdiko jardueren osasungarria baita. <p><u>Aisialdia</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 2.- Aisialdiaz gozatzeko gazteek dituzten jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza handitzea eta hobetzea. 3.- Banaka nahiz taldeka, gazteak are ekintzaileago izan daitezela sustatzea eta gazteen ekimenak babestea. 	<p><u>Kirola</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1.- Gazte-gaztetatik kirol bat baino gehiago egin dezatela sustatzea. Horretarako, diziplina askotako kirolak eskaini beharko dira. 1.2.- Gazteek aisialdian nahiz denbora librean kirola egin dezatela eta, aldi berean, hain osasungarriak ez diren beste ohitura batzuk bazter utz ditzatela lortzea. 1.3.- Kirolaren bidez, hainbat balio errotzea gizartearen, eta kirol-erakundeek, kirol-taldeek, kirolari profesionalak nahiz kazetariek hezkuntza-prozesu kontziente eta nahitakoak bideratuta. 1.4.- Diagnostiko bat egitea gazteek jardueren fisikoaren egiteari eta gazteen egoneko jokaerei buruz, Aktibili – Jarduera Fisikoaren Euskal Planean ezarritako parametroei jarraiki. <p><u>Aisialdia</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 2.1.- Tokian tokiko erakundeei laguntzak ematea, aukerako beste aisialdi-jardueren batzuk antolatzea, eta gazteek erabiltzen dituzten ekipamenduak hobetzeko. 2.2.- Animazio soziokulturalaren alorreko bitartekariak trebatzea. 2.3.- Ikus-entzunezko jardueren, jardueren informatikoei eta teknologia berriei buruzko aisialdi-programa publikoak garatzea. 2.4.- Aldez aurretik dauden ekipamenduen erabilera bikaintzea, eta kultura- nahiz kirol-ekipamenduen behar berriak hautematea. <ol style="list-style-type: none"> 3.1.- Euskal Udalerrietako aisialdiaren egoera aztertzea eta aisialdiari buruzko ikuspegi berriak definitzea. 3.2.- Elkartegintza sustatzea. 3.3.- Gazteek, gazte-taldeek eta Administrazioak hitz egiteko eta kudeatzeko esparruak hautematea, indartzea eta ezartzea. 3.4.- Partaidetzako aisialdia sustatzea.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

		<p>4.- Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.</p> <p>5.- Emakumeen aurkako indarkeriazko jarreretatik segurean eta aske egongo diren aisiarako guneak eta tokiak sustatzea.</p>	<p>3.5.- Parte hartzeko modu berriak hautematea eta horiek sustatzea.</p> <p>3.6.- Tokian toki, gazteen parte-hartzea bultzatzea.</p> <p>3.7.- Gazteentzako boluntarioritza-programak garatzea hainbat alorretan: larrialdiak, immigrazioa, gizartea, hezkuntza, ingurumena, eta abar.</p> <p>4.1.- Euskararen Aholku Batzordeak proposatutako estrategia-ildoak garatzea.</p>
--	--	--	--

2. ARDATZA: BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

8. AREA: KONTSUMOA

Ekialdeko gizartean ekonomiak eboluzionatu egin du azken hamarkadetan. Ekonomiaren eta soziologiaren terminologia erabiliz, *masa-kontsumoaren gizartean* geundeke egun; hots, garapen industrial kapitalistaren fase oso aurreratuan. Gaur egun, masiboki kontsumitzen dira, hain zuzen ere, masiboki ekoizten diren ondasun eta zerbitzuak.

Kontsumoaren eredu horrek hainbat ondorio ditu ekoizpen-eredu masiboaren gain:

- Funtsezkoak ez diren nahiak asetzeko erabiltzen dira baliabide asko.
- Hizpide dugun eredua jasangaitza da; produktu asko ekoitzi ahal izateko, natur baliabideak etenik gabe atera behar baitira eta hondakin asko sortu.
- Hizpide dugun ereduaren eraginez herrialde asko pobretu dira; oinarrizko beren beharrak ase beharrean, gizarterik industrializatuen kontsumo-nahi handiak asetzera bideratzen baitute herrialde horiek beren ekonomia.
- Baliabiderik ezagatik, ezin daiteke herrialderik industrializatuetakoko herritarren kontsumo-maila orokortu eta hainbat arazo sortu dira horren ondorioz.

Egiturazko eragin orokor horiez gain, kontsumo-gizarteak mehatxu egiten die haren barruko kide guztiei, ondoko arrisku hauek sortzen baititu:

- Kontsumitzaile hutsak dira pertsonak.
- Lehen, ondasun edo zerbitzu baten truke dirua ematea zen kontsumoa, besterik gabe. Orain, ordea, helburu eta plazer-ekintza bihurtu da.
- Kontsumitzailearen baitan ondasun edo zerbitzu bat edukitzeko desira pizteko eta haren baitan hainbat behar sortzeko asmoz, publizitate gehiegi erabiltzen da eta informazioa manipulatzeko. Taktika horren helburua, hain zuzen ere, ez da gure ongizatea lortzea, merkatuan esku-hartzen duten hainbat eragilek dirua irabaz dezatela baizik.

Arrisku horien aurrean, ardurazko kontsumoa egiten irakatsi behar diete administrazio publikoek gazteei. Hau da, gazteek jakin behar dute beharrak asetzetik harago doala kontsumoa. Horren arabera, benetako beren beharretara egokituko dute gazteek kontsumitzeko ohitura eta, horrez gain, gizarte-berdintasuna nahiz ingurumena zainduko duten aukeren alde egingo dute merkatuan.

1. Abiapuntua: auziaren egoera

Hasteko, nabarmendu beharra dago EAEko gazteen erosteko ahalmenak eta, ondorioz, kontsumitzeko gaitasunak behera egin duela azken urteotan. Halaxe adierazi da, bederen, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2009. urtean eginiko 39. *Euskal Soziometroa*⁹² izeneko txostenean. Azterlan horretan adierazitakoaren arabera, erosteko ahalmena lehen baino urriago du 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %38k (batez ere, prezioek gora egin dutelako eta gazte askok enplegua galdu edo enplegu-erregulazioan daudelako). Aitzitik, erosteko ahalmen lehen baino handiagoa du 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %17k.

Aldaketak aldaketa, gazte horien %35k zailtasunak ditu hilabete-amaierara iristeko, eta aisialdiko gastuak murriztu behar izan ditu beste hainbestek. Horrez gain, premia bizikoak ez diren produktuak lehen baino gutxiago kontsumitzen ditu gazteen heren batek.

Lehen baino askoz gehiago kontsumitzen dira, aitzitik, eskaintzan diren kontsumoko produktuak (gazteen %48k dio lehen baino gehiago kontsumitzen dituela era horretako produktuak), eta marka generikoen produktuak (%44).

Kontsumitzeko gaitasuna bazter utzi eta **kontsumoko arauak** aztertuko ditugu orain. Hau da, ondasun nahiz zerbitzuak erosteko edo kontsumitzeko orduan gazteek izan ohi duten jokabidea aztertuko dugu.

Gazteriaren Euskal Behatokiak egindako “*Hábitos de consumo responsable y sostenible de la juventud de la CAPV*”⁹³ azterlanetik hartu ditugu atal hau idazteko datu gehienak; zehazki, azterlan horri buruz 2010eko abenduan aurreratutako informaziotik. Datuak beste nonbaitetik hartu ditugunean, oin-oharra jarri eta iturria zehaztu dugu.

Datuen aurrerakin horren arabera, betiere, **produktuaren kalitateari** eta **prezoiari** erreparatzen dio **erosteko orduan** 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen %90k. Horrez gain, markari garrantzi handia ematen dio erosterakoan gazteen hamarretik ia hiruk.

Emaitzak taldeka aztertzen baditugu ikusiko dugu zenbat eta zaharrago orduan eta garrantzi handiagoa ematen diotela gazteek kalitateari nahiz salneurriari. Gainerakoek baino garrantzi handiagoa ematen diote markari gizonezkoek eta gazteetan gazteenek (hots, 15 eta 19 urte bitartekoek).

25 urtetik beherako gazteen erantzunak alderatzen baditugu adin bereko Europako gazteen erantzunekin⁹⁴, atzeko jokabidea dutela ikusiko dugu. Hala ere, zenbait desberdintasun daude Euskadiko gazteen eta Europako gazteen batz bestekoaren artean. Adibidez, produktuaren prezioari garrantzi handiagoa ematen diote EAEko gazteek (%90) Europako gazteek baino (%85,5). EBko gazteek, batez beste, EAEkoek baino garrantzi handiagoa ematen diote produktuaren kalitateari (EAEko gazteen

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

%93,1ek eta EB-27ko gazteen %96,2k ematen dio garrantzia kalitateari) eta produktuaren markari (EAEko gazteen %28,7k ematen dio garrantzia markari, eta EBko 27 herrialdeetako gazteen %38,8k).

Erosteko orduan, **kontzienteki** eta **burutsu** aritzen dira Euskadiko gazteak. Erostean, beraz, produktua egoera onean dagoen egiaztatu ohi du gazteen 10etik 8k baino gehiagok; hori egitea nahiago dute, erostea eta, arazoren bat egonez gero, erreklamatzea baino.

Gazteen %70 inguruk ondoko hauek egiteko ohitura du: eskaintzak eta merkealdiak daudenean erostea; erosketaren ticketa aztertzea; eta erosten joan aurretik zer erosi nahi duten ezartzea.

Era berean, dendariak bueltan emandako dirua zuzen den begiratzen du gazteen hamarretik seik. Horrez gain, gazteen ia erdiak bermea aztertzen du, hainbat saltokitako prezioak alderatzen ditu, eta zenbat diru gastatu nahi duen erabakitzen du erostera joan aurretik.

Gazteen heren batek, azkenik, etiketak begiratzen ditu, marka ezagunen produktuak erosten ditu, eta erabilera-argibideak irakurtzen.

Ohitura horiek hartu dituzte, gehien bat, gazteetan zaharrenek. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunik handienei dagokienez, emakumeek eskaintzak eta merkealdiak aprobetxatzen dituzte erosteko eta, horrez gain, aldeztu aurretik erabakitzen dute zenbat diru gastatu nahi duten. Gizonek, aldiz, dendariak bueltan emandako dirua zuzen den egiaztatu ohi dute eta marka ezagunen produktuak erosi ohi dituzte.

Bestetik, alderatzen baditugu EAEko gazteen eta Espainiako estatuko gazte guztien datuak⁹⁵, ikusiko dugu gure erkidegoko gazteen jokabidea ez dela Espainiako batez bestekoarena bezain arautua. Hau da, Espainian baino gutxiago alderatzen dira EAEn saltokitako prezioak; are gutxiago aztertzen dira etiketak; are gutxiago erabilera-argibideak irakurri; bermea egiaztatu; eta produktua erositakoan dendariak bueltan emandako dirua egiaztatu. EAEko gazteek, halaber, marka ezagunen produktu gutxiago erosten dituzte Espainiako gazteek baino.

Bestetik, erosketak arrazionalki egiten dituzten gazteen kopurua handiagoa da **gizartearen eta ingurumenaren mesederako erosketak iraunkorrak eta ardurazkoak** egiten dituzten gazteena baino.

Produktua erosi aurretik, hura benetan behar duten galdetzen diote gazte gehienek beren buruari; are gehiago, gazteen hamarretik seik du hori egiteko ohitura.

Produktua egiteko erabili diren lehengaiak eta produktuak sortzen duen zaborra edo hondakinak gogoan ditu produktua erosteko orduan gazteen 10etik 2k. Gainera, produktua egitean gizarte-bidegabekeriarik gauzatzen den, produktua egitean edo

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

hura garraiatzean ingurumenari kalterik eragiten zaion, eta era horretako hainbat irizpide izaten ditu gogoan gazteen %15ek.

Gazteak zenbat eta zaharrago, orduan eta gehiago kezkatzen dira gizarteari eta ingurumenari buruzko auziez produktuak erosterakoan. Izan ere, lehen aipatutako ohitura horiek zabalduen daude 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean. Emakumeen eta gizonen arteko aldeei begiratuta, produktua erosi aurretik hura benetan behar duten aztertzen duten gehienak gizonezkoak dira.

Ingurumenarekin lotutako kontsumo-ohitura iraunkorrei dagokienez, berogailua, aire girotua eta ura ahalik eta gutxien kontsumitzen saiatzen dira gazteen hamarretik zazpi. Gainera, etxetresna elektrikoren bat erosterakoan energia gutxi kontsumitzen dutenen alde egiten du gazteen hamarretik zazpik.

Horrela, gazteen bi herenak kontsumo txikiko bonbillak erabiltzen ditu; etxetik eramaten du erosketa egiteko orgatxoa edo poltsa; taldeko garraio bideak erabiltzen ditu edo beste norbaitekin doa autoan; eta, hiri edo herri barruan, oinez edo txirrinduaz joan ohi da leku batetik bestera.

Autoa erostean, hark poluzio gutxi sortzen duen begiratzen du gazteen erdiak baino gehiagok; eta tokian tokiko nahiz sasoiko frutak eta barazkiak erosten dituzte beste hainbestek.

Bilgarri gutxi dituzten produktuak eta birziklatutakoak erosten saiatzen da gazteen heren bat (adibidez: papera, tonerrak, eta abar).

Bestetik, etiketa ekologikoa duten produktuak erosten ditu eta, ingurumenarekin lotura duten zioengatik, zenbait produktu erostea saihesten du gazteen %20 baino gutxiagok.

Edonola ere, etorkizunean ur, argindar, berogailu nahiz aire girotu gutxiago kontsumitzeko eta orain baino hondakin gutxiago sortzeko asmoa duela adierazi du gazteen hamarretik bederatzik. Era berean, taldeko garraio bideak ere gehiago erabiltzeko edo herri-barruan oinez nahiz txirrinduaz joateko prest dagoela adierazi du gazteen %80k. Horrez gain, erabili eta botatzeko produktu gutxiago erosiko lituzke gazteen lautik hiruk; eta, garestiagoak izan arren, are produktu ekologiko gehiago erosiko lituzke gazteen ia erdiak.

Arestian azaldutakoez gain, badira gazteek gizartearekiko eta ingurumenarekiko duten konpromisoa islatzen duten beste bi adierazle: **bidezko merkataritzako** produktuak erostea eta **erabilitako** produktuak erostea.

Bidezko merkataritzako produktuak erosi izan ditu, behin gutxienez, gazteen hamarretik lauk baino gehiagok. Horrela bada, bidezko produkturik noizbait kontsumitu duten emakumezkoen ehunekoa pixka bat handiagoa da gizonezkoena baino.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Bestetik, erabilitako produkturen bat erosi izan du gazteen hirutik bik baino gehiagok. Erabilitako produkturen bat erosi duten mutilen kopurua askoz handiagoa da neskena baino. Hariari tenk, erabilitako produkturen bat saldu izan du gazteen heren batek baino gehiagok.

Salerosketa bazter, familiakoen edo lagunaren arropak erabili izan ditu gazteen lautik hiruk. Horrez gain, familiakoekin edo lagunekin liburuak, musika, filmak, tresnak, jostailuak, eta abar elkartrukatzeko dituzte gazteen hamarretik bederatzik. Era berean, truke-azoketan parte hartu izan du gazteen hamarretik batek.

Bestetik, denek erabiltzeko produkturen bat hainbat lagunaren artean erosi izan du gazteen hamarretik zazpik.

Aurreko batean aipatu bezala, teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen ari dira. Alde horretatik, gazteen %43,8k **Internet-en bidez erosi** izan du produkturen bat⁹⁶; are gehiago, gazteen %20k gutxienez hilean behin egiten du erosketarik Interneten bidez. 20 urtetik gorakoek, gizonezkoek, eta lanean diren gazteek erosten duten gehien Internetetik.

Ondorioak

- Produktu bat erosteko orduan, kalitateari eta prezioari begiratzen diote gehien euskal gazteek.
- Azken urteotan, gora egin du eskaintzako nahiz marka generikoetako produktuen kontsumoak.
- Burutsu eta arduraz egiten dituzte gazteek erosketak. Hala eta guztiz ere, EAEko gazte gehienek ez dituzte betetzen sozialki ardurazkoak eta ingurumenaren aldetik iraunkorrek diren kontsumo-arauak.
- Behin edo behin baino gehiagotan bidezko merkataritzako produkturik erosi izan dute gazteen hamarretik lauk (gazte askok ezagutzen dituzte era horretako produktuak, baina ez guztiek).
- Erabilitako produkturik erosi izan dute noizbait gazte gehienek.
- Gazteek, halaber, ohitura dute beste era batzuetara produktuak berrerabiltzeko; adibidez: familiakoekin edo lagunekin produktuak elkar trukatzeko, elkarri uztea, edo ematea.
- Gazte gehienek, halaber, produkturen bat erosi izan du hainbat pertsonen artean, gerora guztiek erabiltzeko.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Ingurumenaren aldetik kontsumo iraunkorra egiteari dagokionez, gazteek ondoko hauek egiten dituzte: birziklatu, energia aurreztu, eta poluziorik gutxien sortzen duten garraiobideak erabili (taldeko garraiobideak, txirrindua, edo oinez ibiltzea).

Beharrak

1. Gizartearen eta ingurumenaren aldetik iraunkorra den kontsumoari buruz gazteak **sentikortzea**.
2. Kontsumoaren gain publizitateak duen eragina **ikusaraztea** gazteei, eta beharrezkoak diren tresnak ematea gazteek publizitatea kritikoki ikus dezaten.
3. Elikadura, aisialdia, teknologia berriak, ura, energiak, eta hainbat alorretako produktuak **arduraz kontsumitzeko eta erabiltzeko** jarraibideak ematea gazteei.

2. III Gazte Planaren lehentasunezko eginkizunak kontsumoaren alorrean

Kontsumitzaile diren aldetik gazteek dituzten eskubideak babestuko dituzte herri administrazioek. Horrez gain, kontsumo segurua eta ardurazkoa sustatu behar dute administrazioek gazteen artean. Horiek horrela, ondoko egintza hauek gauzatu beharko dira goian aipatutako beharrak asetzeko:

1. **Gazteak prestatzea eta hezte**a kontsumoarekin lotura duten alor guztietan. Hori egitean, haien kontsumitzaile-eskubideen berri emango zaie gazteei; publizitatearen eragina ezagutaraziko zaie; publizitatea kritikoki ikusten irakatsiko zaie; eta, hainbat alorretako produktuak arduraz nahiz modu seguruan kontsumitzeko eta erabiltzeko jarraibideak emango zaizkie.
2. **Arduraz eta ingurumenaren aldetik modu iraunkorrean kontsumitzeko ohitura sustatzea**.

3. III. Gazte Planeko kontsumoaren alorreko helburu estrategikoak eta esku-hartzeko ildoak

1. Arrazionalki, arduraz, modu iraunkorrean eta genero-ikuspegia aintzat harturik kontsumitzeko ohiturak eta jarrerak sustatzea.
 - Gazteak sentikortzeko jarduerak gauzatzea, gazteek arduraz eta, ingurumenaren aldetik, modu iraunkorrean kontsumitzeko ohitura eta jarrera izan dezaten.
 - Kontsumoaren gain publizitateak duen eragina lantzea, gazteek kritikotasunez ikus dezaten publizitatea.
 - Gazteak heztea eta prestatzea; elikagaiak, aisialdia, teknologia berriak eta beste alor batzuetako produktuak arduraz nahiz modu seguruan kontsumitu eta erabili ditzaten.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearen eta ingurumenaren aldetik iraunkorra den kontsumoari buruz gazteak sentikortzea. • Kontsumoaren gain publizitateak duen eragina ikusaraztea gazteei, eta beharrezkoak diren tresnak ematea gazteek publizitatea kritikoki ikus dezaten. • Elikadura, aisialdia, telefonia, teknologia berriak, ura, energiak, eta hainbat alorretako produktuak arduraz kontsumitzeko eta erabiltzeko jarraibideak ematea gazteei. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteak prestatzea eta hezteak kontsumoarekin lotura duten alor guztietan. Hori egitean, haien kontsumitzaile-eskubideen berri emango zaie gazteei; publizitatearen eragina ezagutaraziko zaie; publizitatea kritikoki ikusten irakatsiko zaie; eta, hainbat alorretako produktuak arduraz nahiz modu seguruan kontsumitzeko eta erabiltzeko jarraibideak emango zaizkie. • Arduraz eta ingurumenaren aldetik modu iraunkorren kontsumitzeko ohitura sustatzea. 	<p>1.- Arrazionalki, arduraz, modu iraunkorren eta genero-ikuspegia aintzat harturik kontsumitzeko ohiturak eta jarrerak sustatzea.</p>	<p>1.1.- Gazteak sentikortzeko jarduerak gauzatzea, gazteek arduraz eta, ingurumenaren aldetik, modu iraunkorren kontsumitzeko ohitura eta jarrera izan dezaten.</p> <p>1.2.- Kontsumoaren gain publizitateak duen eragina lantzea, gazteek kritikotasunez ikus dezaten publizitatea.</p> <p>1.3.- Gazteak hezteak eta prestatzea; elikagaiak, aisialdia, teknologia berriak eta beste alor batzuetako produktuak arduraz nahiz modu seguruan kontsumitu eta erabil ditzaten.</p> <p>.</p>

2. ARDATZA: BIZI-KALITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

9. AREA: MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Mugikortasuna aztergai izango dugu atal honetan. Mugikortasun kontzeptuaren barruan sartzen dira, esaterako, ikastera edo lanera joateko edota aisialdian gazteek egiten dituzten leku-aldatzeak edo joan-etorriak.

Hortaz, gazteen joan-etorriak aztertuko ditugu eta haien beharrak hauteman. Ondoren, behar horiek asetzeko asmoz, garraio-bideen eta azpiegituren inguruan hainbat neurri proposatuko ditugu.

1. Abiapuntua: auziaren egoera

"Euskadiko gazteriaren mugikortasun espazialaren ereduak" izeneko azterlanetik hartu ditugu atal hau idazteko datu gehienak. Gazteriaren Euskal Behatokiak egin zuen aipatutako azterlan hori, eta Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak 2008an argitaratu⁹⁷. Datuak beste nonbaitetik hartu baditugu, oin-oharra jarri eta iturria zehaztu dugu.

Hel diezaiogun, beraz, gaiari. Ondoko hauek dira, oro har, EAEko **garraioen** ezaugarriarik adierazgarrienak:

- Lehen baino salgai eta pertsona gehiago dabil errepidean.
- Ibilgailuen kopurua etenik gabe hazi da.
- Lehen baino lur-eremu handiagoa erabiltzen da ibilgailuekin lotura duten azpiegituretarako: errepideak, aparkalekuak, eta abar.
- Zirkulazioaren beharrak ezin dira ase.
- Errepidean ibilgailu gehiegi ibiltzen dira eta, ondorioz, lehen baino auto-ilara eta arazo gehiago dago.

EAEko gazteen mugikortasun-ereduak aztertu aurretik, aipatu beharra dago gidatzeko baimena duela gazteen %60,2k; eta berezko autoa (%38,5) edota motorra (%2,4) duela EAEko gazteen %40,9k.

Eguneroko mugikortasunari dagokionez, ondoko hauek dira **astelehenetik ostiralera** egiten diren joan-etorrien ezaugarriak:

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- Oinez doaz gazte gehienak leku batetik bestera. Gazteen hamarretik ia bederatzi oinez joan eta etortzen dira; gazteen %51,5ek garraibide publikoak erabiltzen ditu; eta %48,1ek autoa.
- Oinezkoetan, ia ez da alderik generoen, lurraldeen, edo adinen artean.
- Hala eta guztiz ere, hiru aldagai horiek aztertzen baditugu leku batetik bestera joateko gazteek gehien erabiltzen dituzten motordun bi ibilgailuetan hainbat desberdintasun nabariko ditugu batzuen eta besteen artean. Esaterako, emakume baino mutil gehiagok hartzen du autoa egunero leku batetik bestera joateko. Emakumeek, beren aldetik, mutilek baino gehiago erabiltzen dituzte garraibide publikoak.
- Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoako gazteak dira guztietan autoa gehien erabiltzen dutenak; Gipuzkoako gazteen hamarretik ia seik autoa erabiltzen baitu egunero. Bizkaiko gazteak dira guztietan autoa gutxien eta garraibide publikoak gehien erabiltzen dituztenak.
Hala ere, Gipuzkoako gazteek askoz kilometro gehiago egiten dituzte garraibide publikoetan Bizkaikoek eta Arabakoek baino.
- Bestetik, zenbat eta zaharrago izan orduan eta gehiago erabiltzen dute gazteek autoa leku batetik bestera joateko. Zenbat eta zaharrago, beraz, orduan eta gazte gehiago mugitzen da ibilgailu bidez, eta orduan eta kilometro gehiago egiten ditu egunero.

Jarraian azalduko ditugu gazteek leku batetik bestera mugitzeko 2007an izan zituzten **arrazoiak**:

Egunero leku batetik bestera mugitzen diren gazteen erdia baino gehiago ikastera doa (%57,1); eta heren bat baino gehiago lanera (%37,5).

Hala ere, egunero egiten diren kilometro gehienak lanera doazenek egiten dituzte.

- Antzerakoa da lanera joan-etorriak egiten dituzten emakumeen eta gizonen kopurua. Hala ere, emakumezkoek baino askoz kilometro gehiago egiten dituzte gizonezkoek lanera joateko.
Hiru lurraldeetan, halaber, antzeko kilometroak egiten dituzte gazteek lanera joateko. Arabako gazteek, hala ere, gainerako lurraldeetakoek baino kilometro gutxiago egiten dituzte egunero lanera joateko.
- Zenbat eta zaharrago izan, orduan eta kilometro gehiago egiten dituzte gazteek lanera joateko; eta gero eta kilometro gehiago egiten dituzte egunero lanera joateko.
- Ikastera doazen gazteei dagokienez, hiru lurraldeetatik Gipuzkoako gazteak dira ikastera joateko gutxien mugitzen direnak. Hala ere, ikastera doazen Gipuzkoako gazteek gainerako lurraldeetakoek baino kilometro gehiago egiten dituzte.
- Adinak, azkenik, eragin handia du ikasketengatiko joan-etorrien gain. Hau da, zenbat eta zaharrago orduan eta gazte gutxiago mugitzen da egunero ikastera joateko; eta orduan eta kilometro gehiago egiten dituzte egunero.

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

Aztertuko dugu, baita ere, **gazteak lantokira edo ikastetxera nola doazen**; eta leku horietara joateko zer garraio bide erabiltzen duten. Jarraian, beraz, aldagai horri buruzko daturik garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

- Ikastetxera oinez joatea da gehien egiten den hautua: ikasten ari diren gazteen lautik bat (%24,3) oinez doa ikastetxera.
- Lanera joateko gehien baliatzen diren moduetan bigarren da oinez joatea da. Oinez doaz lanera, gehien bat, emakumeak, Arabako gazteak, eta 25 urtetik beherakoak. Hala eta guztiz ere, lanean dauden gazteetatik lanera oinez doazenen ehunekoak (%14,8) askoz txikiagoa da lanean diren herritar guztietatik lanera oinez doazenera baino (%26,7)⁹⁸.
- Norberaren edo beste norbaiten autoan doaz lanera Euskadiko gazte gehienak: Gazteen ia %60 autoz doa lanera. Autoz doaz lanera, gehienbat, mutilak, Gipuzkoako gazteak, eta gazteetan zaharrenak. Lanera autoz joateko ohitura dute gateek (%59); herritar guztiek baino are handiagoa (%48).
- Gainerakoek baino askoz gehiago erabiltzen dituzte emakume gazteek eta Bizkaiko gazteek garraio bide publikoak lanera joateko.
- Ikastera joateko orduan, gainerako lurraldeetan baino gehiago erabiltzen dituzte Bizkaian taldeko garraio bideak –pribatuak nahiz publikoak–.

Orain aztertu egingo dugu **astean zenbatetan erabiltzen dituzten gazteek hainbat garraio bide**⁹⁹. Goiko atalean ikusi ditugun antzeko joerak izango ditugu honetan ere. Hala eta guztiz ere, badira zenbait desberdintasun aurrekoaren aldean:

- Lehenik, autoa da gazteek gehien erabiltzen duten garraio bidea (gazteen %51 gutxienez asteen behin hartzen du autoa). Bigarren lekuan leudeke taldeko hainbat garraio bide, adibidez: autobusa (%38); metroa (%25 –atentzioa deitzen du datu honek, Bizkaian baino ez baita metroa erabiltzerik); eta trena (%16). Azken postuan, berriz, txirrindua (%11) eta motorra (%8) leudeke. 2004. urtetik, ia ez da aldatu garraio bide horien erabilera. Metroa da aldatu den bakarra, lehen baino gehiago erabiltzen baita.
- Autoan doazen gehienak gizonetzkoak dira. Gipuzkoako nahiz Arabako gazteak dira guztietan autoa gehien erabiltzen dutenak. Gainera, zenbat eta zaharrago orduan eta gazte gehiagok erabiltzen du autoa. Motozikleta eta beste ibilgailu pribatu batzuk erabiltzen dituzte, gehienbat, gizonak eta Gipuzkoan bizi diren gazteak.
- Emakumezkoek eta gazteetan gazteenek (hots, 15 eta 19 urte bitartekoek) erabiltzen dituzte gehien lineako autobusak.
- Azkenik, txirrindua ibiltzen dira, batez ere, gizonetzkoak, gazteetan gazteenak, eta Arabako nahiz Gipuzkoako herritarrak. Antzekoa da, bestetik, motozikleta erabiltzen duten gizonetzko eta emakumezko gazteen ehunekoak. Gizon eta emakume, hala ere, maiztasun desberdinez ibiltzen dira motorrean.

Merezi du aipatzeak, baita ere, lantokira edo ikastetxera autoz edo motorraz doazen eta garraio bide publikoa ez den beste era bateko baliabideak erabiltzeko aukera duten

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

gazteek zer **arrazoi** ematen dituzten **garraio bide publikoa** ez erabiltzeko. Gazte horietako gehienak, hau da, bi heren norbere ibilgailuan doa "erosoago" suertatzen zaiolako; lautik bat, berriz, garraio bide publikoak "motelak" iruditzen zaizkiolako; eta %6 "ordutegiak egokiak ez direlako".

Asteburu etako joan-etorriei dagokienez, Euskadiko gazteen erdia bere **udalerritik kanpo** doa lagunekin asteburuan. Norberaren edo beste norbaiten autoan joan ohi dira gazte gehienak udalerritik kanpo. Nabarmendu beharra dago, hala ere, leku batetik bestera joateko ibilgailu propioa duten gazte gehienek ez dutela hura erabiltzen gauz parrandan ateratzen direnean.

Asteburu etan autoz ibiltzen dira, nagusiki, gizon ezkoak, Araba eta Gipuzkoarrak, eta gazteetan zaharrenak (hots, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak).

Bizkaiko gazte gehienek, ordea, metroa hartzen dute asteburu etan; norberaren edo beste norbaiten autoa baino gehiago.

Asteleheneetik ostegunera ez bezala, **jende andana biltzen den leku etara** joan ohi dira gazteak asteburu etan, hau da, Euskadiko hiriburu etako **merkatalgune handietara, hirigune etara, eta alde zaharretara**.

Merkatalgune etara doazen gazte ia guztiak autoz doaz.

Hala ere, Euskadiko hiru hiriburu etara joateko hainbat garraio bide erabiltzen dituzte gazteek. Horietan garraio bide publikoak dira nagusi. Goazen, bada, hiriburu etara joateko garraio bideen datuak ikustera: Bilbon, esaterako, metroa da gehien erabiltzen den garraio bidea; haren ondotik dira, hurrenez hurren, autoa eta oinez joatea. Donostia hirigunera joateko, berriz, gazteen heren batek autoa erabiltzen du. Autoaren ondotik erabili enak hiri-busa eta aldiriko trena dira. Arabako hiriburuan, azkenik, oinez ibiltzen dira gazte gehienak (hirutik bi).

Mintzagai ditugun joan etorriek, bestetik, hainbat **arazo** sortzen dituzte asteburu etan nahiz astean barrena. Gazteen 10etik 7k uste du trafikoa arazo larria dela Euskadin. Iritzi horri eusten diote, gehienbat, Gipuzkoa eta Bizkaiko gazteek eta 20 urtetik gorako pertsonak.

Ingurumen-arazoei dagokienez, poluzio arekin eta errepide etan ibilgailu gehiegi egotearen ondorioz sortzen den poluzio arekin daude arduratuta gazteak. Hala ere, desberdintasunak daude taldeen artean. Emakumezkoak, esaterako, mutilak baino kezkatu ago daude ingurumen arekin. Gidatzen duten gazte etatik, azkenik, ingurumena zaintzeko asmoz autoa etxean uzteko prest dauden gehienak emakumezkoak dira.

Ondorioak

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

- EAEko garraiobideen ezaugarriak ondoko hauek dira: errepidetik ibiltzen diren ibilgailuen kopuruak gora egin du oro har; gero eta ibilgailu gehiago dago; gero eta lur-eremu handiagoa erabiltzen da ibilgailuen azpiegiturarako; ezin dira konpondu ez zirkulazioaren beharrak, ez auto-ilaren gorakada, ezta errepidean ibilgailu gehiegi ibiltzearen ondorioz sortutako arazoak ere.
- Gidatzeko baimena dute gazteen hamarretik sei, eta ibilgailu propioa dute gazteen hamarretik lauk (autoa, gehienbat).
- Hurrenez hurren, gazteak nagusiki honela mugitzen dira leku batetik bestera astean barrena: oinez, garraiobide publikoen bidez, eta norberaren ibilgailuan.
- Egunero leku batetik bestera joateko arrazoiei dagokienez, gazteen erdia baino gehiago ikastera doa egunero (%57,1). Gazteen heren bat baino gehiago, berriz, lanera doa (%37,5).
- Ikastera joaten direnetako asko —gehienak ez, asko baizik— oinez doa. Ikastetxera hiriarteko autobusean edo itundutako eskola-autobusean eta oinez doazen gazteen kopurua berdintsuak dira. Bestetik, lanera doazen gazteen hamarretik sei autoan doa.
- Arrazoiak bazter utzita, astero egiten diren joan-etorriak aztertuz gero konturatuko gara EAEko herritar guztiek baino gehiago erabiltzen dituztela gazteek garraiobide publikoak eta taldeko garraiobideak (azken multzo horren barruan leudeke autoan elkarrekin doazen gazteak). Txirriinduz joaten diren gazteen ehunekoak (%18,3) handiagoa da herritar guztien batez bestekoa baino (%6,5).
- Norberaren autoan doazen gehienak gizonezkoak dira. Gipuzkoako gazteak dira guztietan autoa gehien erabiltzen dutenak; zenbat eta zaharrago, orduan eta gehiago. Erosotasunagatik eta azkartasunagatik baztertzen dituzte garraio publikoak autoan edo motorrean ibiltzen direnak.
- Asteburuetan, berriz, bere udalerritik kanpo doa Euskadiko gazteen erdia; autoz, gehienbat. Hala ere, leku batetik bestera joateko ibilgailu propioa duten gazte gehienek ez dute hura erabiltzen gauz parrandara ateratzen direnean.
- Euskadin trafikoarekin den arazoa larria dela uste dute gazte askok. Gidabaimena duten gazte gehienak prest leudeke, ingurumenaren mesedean, garraiobide pribatuak bazter utzi eta, haien lekuan, garraiobide publikoak erabiltzeko; betiere, aukerako garraiobide publikoa erabiltzeko aukerarik izango balute.

Beharrak

Mugikortasunari buruzko diagnostiko labur horren bidez, ondoko behar hauek hauteman ditugu:

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

1. Aukerako beste garraiobide publiko batzuk eskaini behar zaizkie gazteei ikastegietara eta lantegietara joan eta aisialdiaz goza dezaten.
2. Gazteei aukera ematea leku batetik bestera oinez eta txirrinduaz joan daitezen.

2. III Gazte Planaren lehentasunezko eginkizunak mugikortasunaren alorrean

Guztiontzako **garraiobideak**, garraiobide eraginkorrak, seguruak, lehiakorrak, osasungarriak, eta ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren garraiobideak eskaini behar zaizkie gazteei. Xede hori betetzeko orduan, alabaina, hainbat oztopo gainditu beharko ditugu:

1. Gazteek motordun garraiobide pribatuaren aukerako beste bide batzuk erabil ditzatela nahi badugu, aukerako beste garraiobide horien azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetu beharko ditugu, gizonen eta emakumeen arteko aldeak aintzat hartuta.
2. Sentikortzearen eta kontzientziazioaren bidez, motordun garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuk erabil daitezela sustatzea, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

3. III. Gazte Planeko mugikortasunaren alorreko helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak

1. **Motordun garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuen azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk** hobetzea.
 - Gazteen mugikortasun-beharretara egokitutako garraiobide publikoaren sarea sustatzea. Garraiobide publikoen erabilera indartu beharko da, batez ere: hura gutxien erabiltzen duten lurralde historikoetan; asteburuetako gauetan; eta aisialdi-zonetan.
 - Azpiegiturak sortzea edota egokitzea, oinezkoen mugikortasuna eta txirrinduaren erabilera suspertzeko.
2. **Sentikortzearen eta kontzientziazioaren bidez, motordun garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuk** erabil daitezela sustatzea.
 - Garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuk erabiltzeari buruz gazteak sentikortzea eta kontzientziaztea. Garrantzi handia emango diegu, batez ere, aukerako beste garraiobide horiek gutxien erabiltzen dituzten taldeei; asteburuetan gaueko garraiobide publikoak erabiltzeari; aisialdiaz gozatzeko eremuetara garraiobide publikoan joateari; eta txirrindua erabiltzeari.
3. **Espazio publikoa genero-ikuspegitik diseina dadila sustatzea, oztopoak eta “puntu beltz” direlakoak ezabatuta.**

EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

BEHARRAK	LEHENTASUNEZKO EGINKIZUNAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESKU-HARTZE ILDOAK
<p>.-Aukerako beste garraiobide publiko batzuk eskaini behar zaizkie gazteei ikastegietara eta lantegietara joan eta aisialdiaz goza dezaten.</p> <p>.-Gazteei aukera ematea leku batetik bestera oinez eta txirrinduaz joan daitezen.</p>	<p>.- Gazteek motordun garraiobide pribatuaren aukerako beste bide batzuk erabil ditzatela nahi badugu, aukerako beste garraiobide horien azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetu beharko ditugu, gizonen eta emakumeen arteko aldeak aintzat hartuta.</p> <p>.- Sentikortzearen eta kontzientziazioaren bidez, motordun garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuk erabil daitezela sustatzea, genero-ikuspegia aintzat hartuta.</p>	<p>1.- Motordun garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuen azpiegiturak, ekipamenduak eta beste alderdi batzuk hobetzea.</p> <p>2.- Sentikortzearen eta kontzientziazioaren bidez, motordun garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuk erabil daitezela sustatzea.</p> <p>3.- Espazio publikoa genero-ikuspegitik diseina dadila sustatzea, oztopoak eta "puntu beltz" direlakoak ezabatuta.</p>	<p>1.1.- Gazteen mugikortasun-beharretara egokitutako garraiobide publikoaren sarea sustatzea. Garraiobide publikoaren erabilera indartu beharko da, batez ere: hura gutxien erabiltzen duten lurralde historikoetan; asteburuetakoa gauetan; eta aisialdi-zonetan.</p> <p>1.2.- Azpiegiturak sortzea edota egokitzea, oinezkoen mugikortasuna eta txirrinduaren erabilera suspertzeko.</p> <p>2.1.- Garraiobide pribatuen aukerako beste garraiobide batzuk erabiltzeari buruz gazteak sentikortzea eta kontzientziatzea. Garrantzi handia emango diegu, batez ere, aukerako beste garraiobide horiek gutxien erabiltzen dituzten taldeei; asteburuetan gaueko garraiobide publikoak erabiltzeari; aisialdiaz gozatzeko eremuetara garraiobide publikoan joateari; eta txirrindua erabiltzeari.</p>

**III. GAZTE PLANA
2020REN
ADIERAZLE ETA
XEDEEN MULTZOA**

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA


ADIERAZLE OROKORRA

1. XEDEA: EMANTZIPATUTAKO GAZTE-KOPURUA HANDITZEA

1. adierazlea: Emantzipazio-tasa

Gauregungo balioa: %44,6 (2010)
 Emakumeak: %50,3 Gizonak: %38,9
 2016rako xedea: %47
 2020rako xedea: %50

- ▶ Adierazlearen definizioa: Emantzipatuta bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehuneko, adin-talde bereko biztanleria osoarekiko. Hau da emantzipatuta bizi den pertsona: jatorrizko familia-bizilekutik kanpo bizi dena, BAIn "erreferentziako pertsona", "ezkontidea" edo "senidetatsunik gabeko pertsona" gisa jasota daudenak oinarri hartuta.
- ▶ Iturria: [CJE-OBJOVI](#) INEren *Encuesta de Población Activa (EPA-BA)* oinarri hartuta.
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Urtero
- ▶ Kontraste-adierazleak: Espainiako 18 eta 34 urte bitarteko gazteak (iturria: [CJE-OBJOVI](#)) eta EB27ko 18 eta 34 urte bitarteko gazteak (iturria: Eurostat, [EU-SILC](#))
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua, adin-taldeak (18-24, 25-29, 30-34)



1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA


ADIERAZLE OROKORRA

2. XEDEA: EMANTZIPATZEKO ADINA AURRERATZEA

2. adierazlea: Emantzipatzeko batez besteko adina

Gauregungo balioa: 29,9 urte (2006)
 Emakumeak: 28,7 urte Gizonak: 31 urte
 2016rako xedea: 29
 2020rako xedea: 28

- ▶ Adierazlearen definizioa: Jatorrizko familiarekin bizitzeari uzten zaion adina.
- ▶ Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTATEk emandako datuak oinarri hartuta (Inkesta Demografikoa)
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin
- ▶ Kontraste-adierazleak: Ez dago
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

1. AREA. HEZKUNTZA

3. XEDEA: ESKOLA UZTE GOIZTIARRAREN TASA MURRIZTEA

3. adierazlea: Eskola-uzte goiztiarraren tasa

Gauregungo balioa: %10,8 (2010)
 Emakumeak: %9,0 Gizonak: %12,7
 2016rako xedea: <%10,5
 2020rako xedea: <%10


► Adierazlearen definizioa: Gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osatu duten eta inolako ikasketarik egiten edo prestakuntzarik jasotzen ez duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa

► Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea, [IVE/ISEI](#). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta [EUSTAT](#), Egiturako Adierazle Nagusiak: Adierazleak Europa 2020, 2009rako eta 2010erako.

► Eguneratze-maiztasuna: Urtero

► Kontraste-adierazleak: Estatuko batez bestekoa eta EB27ko batez bestekoa (Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea, [IVE/ISEI](#). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta [Eurostat](#), 2009rako eta 2010erako.

► Xehekatutako aldagaiak: sexua



1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

1. AREA. HEZKUNTZA

4. XEDEA: DERRIGORREZKO HEZKUNTZAREN ONDOKO IKASKETA MAILA HANDITZEA

4. adierazlea: Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasa

Gauregungo balioa: %80,1 (2008)
 Emakumeak: %85,4 Gizonak: %75,0
 2016rako xedea: %85
 2020rako xedea: %90


► Adierazlearen definizioa: Derrigorrezkoaren ondorengo Bigarren Hezkuntza osatu duten 20 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa

► Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea, [IVE/ISEI](#). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

► Eguneratze-maiztasuna: Urtero

► Kontraste-adierazleak: Estatuko batez bestekoa eta EB27ko batez bestekoa (Iturria: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea, [IVE/ISEI](#). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila).

► Xehekatutako aldagaiak: sexua



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA


1. AREA. HEZKUNTZA

5. XEDEA: GAZTE HIRUELEDUNEN KOPURUA HANDITZEA

5. adierazlea: Hirueletasun-tasa

Gaur egungo balioa: %26 (2009)
 Emakumeak: %22,3 Gizonak: %29,9
 2016rako xedea: %30
 2020rako xedea: %35

- ▶ Adierazlearen definizioa: Ingelesez eta euskaraz ondo hitz egiten duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa
- ▶ Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, [EUSTATEk](#) emandako datuak oinarri hartuta, Bizi Baldintzen Inkesta.
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin
- ▶ Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, [EUSTATEk](#) emandako datuak oinarri hartuta, Bizi Baldintzen Inkesta)
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua, adin-taldeak eta lurralde historikoak.



1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA


1. AREA. HEZKUNTZA

6. XEDEA: GOI-MAILAKO IKASKETADUNEN KOPURUARI EUSTEA

6. adierazlea: Goi-Mailako Hezkuntzako prestakuntza dutenen ehunekoa

Gaur egungo balioa: %43,7 (2010)
 Emakumeak: %52,3 Gizonak: %34,7
 2016rako xedea: %44
 2020rako xedea: >%44

- ▶ Adierazlearen definizioa: Hirugarren mailako titulazioa (Cine 5A, B eta 6) duten 30 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin-talde bereko pertsona guztekiko. Goi-mailako ikasketetan honako hauek sartzen dira: graduiko unibertsitate ikasketak, Masterrak eta Doktoretza, bai eta Goi-Mailako Heziketa Zikloak ere.
- ▶ Iturria: [EUSTAT](#). Egiturako Adierazle Nagusiak. Europa 2020 Adierazleak.
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Urtero
- ▶ Kontraste-adierazleak: Estatuko batez bestekoa eta EB27ko batez bestekoa (iturria: [EUSTAT](#). Egiturako Adierazle Nagusiak. Europa 2020 Adierazleak eta [Eurostat](#) 2010eko datuetarako)
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

2. AREA. ENPLEGUA

7. XEDEA: GAZTEEN LANGABEZIA MURRIZTEA

7. adierazlea: Langabezia-tasa

Gaur egungo balioa: 16-29 urte, %18,4 (2010); 16-24 urte: 25 (2011)
 Emakumeak 16-29: %15,3; Emakumeak 16-24: %20,4
 Gizonak 16-29: %21,0; Gizonak 16-24: %29,0
 2016rako xedea: 16-29 urte, %15; 16-24 urte, %15
 2020rako xedea: 16-29 urte, %10; 16-24 urte, %10


► Adierazlearen definizioa: 16 eta 29 eta 16 eta 24 urte bitarteko gazte langabeak, adin-talde beretako gazte aktibo guztiekiko.

► Iturria: 16 eta 29 urte bitarteko gazteen datuei dagokienez, Gazteen Euskal Behatokiak EUSTATI eskatutako ustaketa, Biztanleria Jardueraren arabera Saikatzeko Inkesta (BJA) oinarri hartuta; 16 eta 24 urte bitarteko gazteen datuei dagokienez EUSTAI, Datu Bankua. Biztanleria Jardueraren arabera Saikatzeko Inkesta (BJA)

► Eguneratze-maiztasuna: Urtero

► Kontraste-adierazleak: 16 eta 29 urte bitarteko gazteen datuei dagokienez, EAEko biztanleria osoaren langabezia-tasa (iturria: EUSTAI, Datu Bankua BJA) eta Espainiako gazteen langabezia-tasa (iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INJUVEren datuak oinarri hartuta, Cifras jóvenes, INE-BAln oinarritua), 16 eta 24 urte bitarteko gazteen datuei dagokienez, EB27ko eta Espainiako 15 eta 24 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa (iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eurostat-en datuak oinarri hartuta)

► Xehekatutako aldagaiak: sexua



1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

2. AREA. ENPLEGUA

8. XEDEA: GAZTEEN ENPLEGUAN ALDI BATERAKO KONTRATUEN KOPURUA MURRIZTEA

8. adierazlea: Aldi baterako kontratudunen tasa

Gaur egungo balioa: %46,4 (2010)
 Emakumeak: %46,4 Gizonak: %46,4
 2016rako xedea: %40
 2020rako xedea: %35


► Adierazlearen definizioa: Aldi baterako lan-kontrata duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin-talde bereko soldatapeko guztiekiko.

► Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTAI-en datuak oinarri hartuta, Biztanleria Jardueraren arabera Saikatzeko Inkesta (BJA)

► Eguneratze-maiztasuna: Urtero

► Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoaren aldi baterako kontratudunen tasa (EUSTAI-en datu-bankua, BJA) eta Espainiako gazteen aldi baterako kontratudunen tasa (iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, INJUVEren datuak oinarri hartuta, INETik hartuak, BA).

► Xehekatutako aldagaiak: sexua eta lurralde historikoak



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA


2. AREA. ENPLEGUA

9. XEDEA: GAZTEEN ARTEAN ENPRESAGINTZA AREAGOTZEA

9. adierazlea: Norberaren kontura lan egiten dutenen tasa

Gauregungo balioa: %5,2 (2010)
 Emakumeak: %3,6 Gizonak: %6,6
 2016rako xedea: %7,5
 2020rako xedea: %10

- Adierazlearen definizioa: Norberaren kontura lan egiten duten 20 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa (enpresariak eta autohomoak) adin-talde bereko okupatu guztetikiko.
- Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTAT-en datuak oinarri hartuta, Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta (BJA)
- Eguneratze-maiztasuna: Urtero
- Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osan, norberaren kontura lan egiten dutenen tasa (EUSTAT-en datu-bankua, BJA).
- Xehekatutako aldagaiak: sexua



1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA


2. AREA. ENPLEGUA

10. XEDEA: GAZTEEN ARTEAN LAN-ISTRIPUAK MURRIZTEA

10. adierazlea: Laneko istripuen tasa

Gauregungo balioa: %48,4 (2010)
 Emakumeak: %23,8 Gizonak: %71,7
 2016rako xedea: %44
 2020rako xedea: %40

- Adierazlearen definizioa: 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen bjadun laneko istripuak, adin-taldeko bereko 1.000 gazte okupatuko. Laneko istripuek lantokian nahiz *in itinere* gertatutakoak hartzen dituzte barne.
- Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, OSALANek emandako gazteen istripuei buruzko datuak eta biztanleria okupatuari buruzko EUSTAT-en datuak oinarri hartuta.
- Eguneratze-maiztasuna: Urtero
- Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, OSALANek emandako istripuei buruzko datuak eta biztanleria okupatuari buruzko EUSTAT-en datuak oinarri hartuta).
- Xehekatutako aldagaiak: sexua, lurralde historikoak eta adin-taldeak (16-20, 21-25, 26-30, 31-34), lesio-maila, jarduera-sektorea,



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

3. AREA. ETXEBIZITZA

11. XEDEA: ETXEBIZITZA ALOKATZEKO AHALEGIN EKONOMIKOA MURRITZEA

11. adierazlea: Alokairuko etxebizitzaren merkatura sartzeko kostua

Gauregungo balioa: %62,6 (2010)
 Emakumeak: %70,0 Gizonak: %57,7
 2016rako xedea: %50
 2020rako xedea: %40


► Adierazlearen definizioa: Gazte batek etxebizitzaren alokairua ordaintzeko erabili behar duen soldataren ehunekoa. Ehuneko hori kalkulatzeko, 18 eta 34 urte bitarteko gazte baten hileko batez besteko soldata garbia eta alokairuko etxebizitza libre baten hileko batez besteko zenbatekoa jartzen dira harremanetan.

► Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egin dako kalkulua, [CJE-OBJOVI](#) k soldata garbiei buruz emandako datuak eta [Euskal Etxebizitzako Behatokiaren](#) etxebizitza-eskaintzari buruzko datuak oinarri hartuta.

► Eguneratze-maiztasuna: Urtero

► Kontraste-adierazleak: Etxebizitza alokatzeko kostua Espainiako 18 eta 34 urte bitarteko gazteentzat (iturria: [CJE-OBJOVI](#) eta [Sociedad Publica de Alquiler del Ministerio de Fomento](#)) eta etxebizitza jabetzan eskuratzearen kostua Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko gazteentzat [CJE-OBJOVI](#).

► Xehekatutako aldagaiak: sexua



1. ARDATZA. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA

3. AREA. ETXEBIZITZA

12. XEDEA: ALOKAIKUAN BIZI DIREN GAZTEEN KOPURUA HANDITZEA

12. adierazlea: Alokairu-erregimeneko emantzipazioa

Gauregungo balioa: %19,0 (2006)
 Emakumeak: %19,5 Gizonak: %18,3
 2016rako xedea: %27
 2020rako xedea: %35


► Adierazlearen definizioa: Emantzipatuta dauden eta alokairu-erregimenean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa, adin-talde bereko gazte emantzipatu guztetikiko

► Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egin, EUSTATEk emandako datuetan oinarrituta, 2006ko Inkesta Demografikoa.

► Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin

► Kontraste-adierazleak: Ez dago

► Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


ADIERAZLE OROKORRA

13. XEDEA: GAZTEEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA

13. adierazlea: Satisfazio pertsonalaren Indizea

Gauregungo balioa: 6,7 puntu (2011)
 Emakumeak: 6,7 puntu Gizonak: 6,8 puntu
 2016rako xedea: >7
 2020rako xedea: >7

- ▶ Adierazlearen definizioa: 15 eta 29 urte bitarteko gazteek bizitza nola doakien galdetu eta emandako puntuazioaren batez bestekoa 0tik 10era doan eskalan (10 oso gaizki esan nahi du eta 10ek oso ondo).
- ▶ Iturria: [Gazteen argazkiak](#) (2004ra arte), [Euskal Soziometroak](#) (2005etik 2010era, 18 eta 29 urte bitartekoak datuei dagokienez) eta [Gazteen argazkiak 15 \(lanitze prozesuan\)](#) 2011ko datuetarako. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Urtero
- ▶ Kontraste-adierazleak: 18 urteko eta hortik gorako EAEko biztanleak (iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, [Euskal Soziometroak](#)).
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


4. AREA. OSASUNA

14. XEDEA: TRAFIKO-ISTRIPUEN ZIOZKO GIZON GAZTEEN HILKORTASUN-TASA MURRIZTEA

14. adierazlea: Gizonen hilkortasun-tasa, trafik-istripuak direla-eta

Gauregungo balioa: 10,9, 100.000ko gizonak (2009)
 Emakumeak: 2,5, 100.000ko
 2016rako xedea: 8, 100.000ko gizonak
 2020rako xedea: 5, 100.000ko gizonak

- ▶ Adierazlearen definizioa: Trafiko-istripuak direla-eta, hildako 15 eta 29 urte bitarteko mutil gazteen kopurua, adin-talde bereko 100.000 gizoneko.
- ▶ Iturria: Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendariak emandako datuak.
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Urtero
- ▶ Kontraste-adierazleak: 15 eta 29 urte bitarteko emakumeak, EAE, eta 15 eta 29 urte bitarteko gizonak, Espainia (iturria: [Gazteen Euskal Behatokia](#), [Gazteen Adierazleak](#))
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: lurralde historikoak



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


4. AREA. OSASUNA

15. XEDEA: GAZTEEN ARTEANGIZENTASUNA ETA SEDENTARISMOA MURRIZTEA

15A. adierazlea: Gizentasun-tasa

Gaur egungo balioa: %3,9 (2007)
 Emakumeak: %3,5 Gizonak: %4,4
 2016rako xedea: %3,5
 2020rako xedea: <%3

- ▶ Adierazlearen definizioa: 30 puntu baino gehiagoko GMI (Gorputz Masaren Indizea) duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa. GMI formula honen bitartez kalkulatzen da: "Esandako pisua (kg) / esandako altuera (m)²"
- ▶ Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. [EAEko Osasun Inkesta 2007](#)
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin
- ▶ Kontraste-adierazleak: Espainiako 15 eta 24 urte bitarteko gazteak eta EB27ko 15 eta 24 urte bitarteko gazteak ([Eurostat](#))
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


4. AREA. OSASUNA

15. XEDEA: GAZTEEN ARTEANGIZENTASUNA ETA SEDENTARISMOA MURRIZTEA

15B. adierazlea: Jarduera fisikoa

Gaur egungo balioa: %27,4 (2007)
 Emakumeak: %17,8 Gizonak: %36,4
 2016rako xedea: %35
 2020rako xedea: %40

- ▶ Adierazlearen definizioa: Aisialdian egiten duten jarduera fisikoa aintzat hartuta, euren burua aktibo edo oso aktibotzat jotzen duten 16 eta 24 urte bitarteko gazteen ehunekoa.
- ▶ Iturria: Osasun eta Kontsumo Saila. [EAEko Osasun Inkesta 2007](#)
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin
- ▶ Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa, Osasun eta Kontsumo Saila. [EAEko Osasun Inkesta 2007](#)
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


4. AREA. OSASUNA

16. XEDEA: GAZTEEN ARTEANDROGEN KONTSUMOA MURRIZTEA (TABAKOA, ALKOHOLA ETA KANNABISA)

16A. adierazlea: Tabako-kontsumoa

Gaur egungo balioa: %32,8 (2010)
Emakumeak: %32,7 Gizonak: %33
2016rako xedea: %28
2020rako xedea: %25

- Adierazlearen definizioa: Ohiko tabako-kontsumitzaileak direla dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.
- Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Droga Menpekotasunen Euskal Behatokiak emandako datuak oinarri hartuta. Osasun eta Kontsumo Saila.
- Eguneratze-maiztasuna: Bi urtean behin
- Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Droga Menpekotasunen Euskal Behatokia [Euskadi eta drogak 2010](#))
- Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


4. AREA. OSASUNA

16. XEDEA: GAZTEEN ARTEANDROGEN KONTSUMOA MURRIZTEA (TABAKOA, ALKOHOLA ETA KANNABISA)

16B. adierazlea: Alkoholaren asteburuetako gehiegizko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa

Gaur egungo balioa: %22,4 (2010)
Emakumeak: %19,3 Gizonak: %25,3
2016rako xedea: %18
2020rako xedea: %15

- Adierazlearen definizioa: Kontsumitzen duten alkohol-kantitatea aintzat hartuta, asteburuetan gehiegizko kontsumoa edo arrisku-kontsumoa gauzatzen duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.
- Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Droga Menpekotasunen Euskal Behatokiak emandako datuak oinarri hartuta. Osasun eta Kontsumo Saila.
- Eguneratze-maiztasuna: Bi urtean behin
- Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Droga Menpekotasunen Euskal Behatokia [Euskadi eta drogak 2010](#))
- Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


4. AREA. OSASUNA

16. XEDEA: GAZTEEN ARTEAN DROGEN KONTSUMOA MURRIZTEA (TABAKOA, ALKOHOLA ETA KANNABISA)

16C adierazlea: Kannabisaren ohiko kontsumoa

Gaur egungo balioa: %7,5 (2010)
 Emakumeak: %4,2 Gizonak: %10,5
 2016rako xedea: %6
 2020rako xedea: <%5

- ▶ Adierazlearen definizioa: Kannabisa egunero edo ia egunero (astean lau egunetan edo gehiagotan) erretzen dutela dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.
- ▶ Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Droga Menpekotasunen Euskal Behatokiak emandako datuak oinarri hartuta, [Euskadi eta drogak](#) seriea.
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Bi urtean behin
- ▶ Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Droga Menpekotasunen Euskal Behatokiak, [Euskadi eta drogak](#) seriea)
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA

4. AREA. OSASUNA


17. XEDEA: NERABEZAROKO HAURDUNALDI KOPURUA MURRIZTEA

17. adierazlea: Nerabezaroko haurdunaldien tasa

Gaur egungo balioa: 8 1.000ko, 15-17 urteko emakumeak (2009)

2016rako xedea: 7, 1.000ko
 2020rako xedea: <5, 1.000ko

- ▶ Adierazlearen definizioa: 15 eta 17 urte bitarteko emakume gendakid urte batean jaiotako en kopurua gehi adin-tarte bereko emakumeek bõrõndatez etendako haurdunaldien kopurua, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko
- ▶ Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, jaiotzei eta biztanleriar buruzko INEren datuak eta Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezaqitzaren Gestioiko eta Ebaluazio Zuzendaritzak [HBE](#)ei buruz emandako datuak oinarri hartuta.
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Urtero
- ▶ Kontraste-adierazleak: Kataluniako 14 eta 17 urte bitarteko emakumeak (iturria: Kataluniako Generalitatearen Gazteria Idazkaritza, [Kataluniako Gazteriaren arloko Adierazlearen Sistema](#)).
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: lurralde historikoak eta adina, urtez urte (15-17)



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA

5. AREA. GIZARTE EKINTZA

18. XEDEA: FAMILIA-BIZILEKU GAZTEETAN POBREZIA-ARRISKUA MURRIZTEA

18. adierazlea: Pobrezia-arriskua

Gauregungo balioa: %10,9 (2008)

2016rako xedea: %9

2020rako xedea: <%8


► Adierazlearen definizioa: Mantentze-pobrezian (errenta eskuragarria) edota melatze-pobrezian (ondarea eta bizi-baldintzak) dauden 35 urtera artekoak buru dituzten familietan bizi direnen ehunekoa.

► Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren [Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta](#).

► Eguneratze-maiztasuna: Lau urtean behin

► Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: [Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta](#), Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila).

► Xehekatutako aldagaiak: Ez dago



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA

5. AREA. GIZARTE EKINTZA

19. XEDEA: ETXeko LANETAN, GENERO-ALDEA MURRIZTEA

19. adierazlea: Genero-aldea etxeko lanetan

Gauregungo balioa: 0:49 m (2008)

2016rako xedea: 0:30

2020rako xedea: <0:15


► Adierazlearen definizioa: 16 eta 29 urte bitarteko emakumeek eta gizonek etxeko lanetan ematen duten batez besteko denboran dagoen aldea (oo:mm).

► Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, EUSTATEk emandako datuak oinarri hartuta, Denbora Aurrekontuen Inkesta.

► Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin

► Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: [EUSTAT](#), datu-bankua, Denboraren gizarte-erabiera).

► Xehekatutako aldagaiak: Ez dago



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA

6. AREA. KULTURA

20. XEDEA: GAZTE GEHIAGOK PARTE HARTZEA JARDUERA ARTISTIKOETAN

20. adierazlea: Partaidetza jarduera artistikoetan

Gauregungo balioa: %39,8 (2007-2008)
Emakumeak: %45,4 Gizonak: %34,5
2016rako xedea: %42
2020rako xedea: >%45


► Adierazlearen definizioa: Ondoko arte-jardueretan aktiboki parte hartu duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: argazkigintza, musika-tresna bat jotzea, margotzea, idaztea, dantza egitea, bideoak egitea, koruan kantatzea, ikus-entzunezkoak egitea, antzerkia, bertsolaritza, bestelako arte plastikoak eta beste arte-jarduera batzuk.

► Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Kulturaren Euskal Behatokiak kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruz emandako datuak oinarri hartuta.

► Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin

► Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak, [Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008](#)) eta EB27ko gazteak (iturria: Europako Batzordea, [Flash Eurobarometer 319a](#))

► Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA

6. AREA. KULTURA

21. XEDEA: GAZTEEN ARTEANIRAKURTZEKO OHITURA HANDITZEA

21A. adierazlea: Irakurtzeko ohitura

Gauregungo balioa: %44,6 (2007-2008)
Emakumeak: %49,4 Gizonak: %40,2
2016rako xedea: %47
2020rako xedea: >%50


► Adierazlearen definizioa: Azken hilean, aisialdian libururen bat irakurri duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.

► Iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak, Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008.

► Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin

► Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak, [Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008](#)).

► Xehekatutako aldagaiak: sexua



EUSKADIKO III. GAZTE PLANA 2020

2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


6. AREA. KULTURA

21. XEDEA: GAZTEEN ARTEAN IRAKURTZEKO OHITURA HANDITzea

21B. adierazlea: Euskaraz irakurtzeko ohitura

Gauregungo balioa: %43,5 (2007-2008)
Emakumeak: %41,6 Gizonak: %45,3
2016rako xedea: %46,5
2020rako xedea: >%50

- ▶ Adierazlearen definizioa: Azken hiru hiletan aisiari, lanari edo ikasketei lotutako euskarazko liburuen bat irakurri duten 15 eta 29 urte bitarteko gazte elebidunen ehunekoa.
- ▶ Iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak emandako datuak, Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Bost urtean behin
- ▶ Kontraste-adierazleak: EAEko biztanleria osoa (iturria: Kulturaren Euskal Behatokiak, [Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistika 2007-2008](#)).
- ▶ Xehekatutako aldagaiak: sexua



2. ARDATZA. BIZI KALITATEA ETA GIZARTE KOHESIOA


7. AREA. AISIALDIA

22. XEDEA: EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEA GAZTEEN ARTEAN, AISIALDIAN

22. adierazlea: Euskararen erabilera lagunartean

Gauregungo balioa: %45 (2008)
Emakumeak: %48 Gizonak: %43
2016rako xedea: %50
2020rako xedea: %55

- ▶ Adierazlearen definizioa: Lagunartean euskaraz edo euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egitea nahiago duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoa.
- ▶ Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, [Euskadiko Gazteak seriea](#).
- ▶ Eguneratze-maiztasuna: Lau urtean behin
- ▶ Kontraste-adierazleak: Kataluniako 15 eta 29 urte bitarteko gazteak (iturria: Kataluniako Gazteria Idazkaritza Nagusia, [Estadística dels joves de Catalunya 2007](#)).
